



Eremu libreak, eremu konpartituak

ANJEL LERTXUNDI



Gure arteko autozentsuraz

PAKO SUDUPE



Euskal Kutzak: fusiorik ez

JENARO GARATE



Teknopop, Teknozientzia, Teknohermetismo

JUAN BAUTISTA BENGOETXEA

Egunen gurpilean

JON BENITO • PABLO SUBERBIOLA • PATXI GAZTELUMENDI

JAKiN

150

iraila
urria
2005




*Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskararen
Normalkuntzako Zuzendaritza Nagusiaren laguntza jaso du*



KULTURA SAILA

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

Aurkibidea



Zenbaki honetan

► 7

Gaiak

Eremu libreak, eremu konpartituak ► 11

ANJEL LERTXUNDI

Gure arteko autozentsuraz ► 25

PAKO SUDUPE

Euskal Kutzak: fusiorik ez ► 39

JENARO GARATE

Teknopop, Teknozientzia, Teknohermetismo.
Kraftwerk, Devo, El Aviador Dro eta zientzia-fikzioa ► 51

JUAN BAUTISTA BENGOETXEA

Egunen gurpilean

JON BENITO • PABLO SUBERBIOLA • PATXI GAZTELUMENDI ► 91

© JAKIN

JAKINeko idazlanez inon baliatzerakoan
aipa bedi, mesedez, iturria

JAKIN

aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez
idazleen iritziekin bat

ZUZENDARIA

Joan Mari Torrealdai

ERREDAKZIO-ARDURADUNA

Xabier Eizagirre

KONTSEILU EDITORIALA

Paulo Agirrebaltzategi, Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Tolosa Hiribidea, 103-1.C / 20018 Donostia

Tel. 943 21 80 92 / Fax 943 21 82 07


jakin@jakingunea.com

2005eko PREZIOAK

BARRUAN	HARPIDEDUNA	EZ HARPIDEDUNA
Harpidetza	42 €	—
Ale arrunta	7 €	9,10 €
KANPOAN		
Harpidetza	45 €	—
Ale arrunta	7,50 €	10,50 €

Jabegoa: Jakinkizunak, S.L. Donostia. Lege gordailua: S.S. 25/1977. ISSN: O211/495X
Inprimaketa: Leitzaran Grafikak, S.L., Gudarien Etorbidea, 8. Andoain (Gipuzkoa)

Summary



Free spaces, shared spaces

The writer Anjel Lertxundi reflects on Basque language, culture, the particular and the universal. According to Lertxundi, the Basque language provides us with a particular cultural way of being in the world. However, this particularity does not in turn end in our own home environment, but rather tends to be of a universal nature. In short, Basque culture has its own spaces and shared ones. Working on this principle, the author provides us with some of the keys to a cultural policy regarding the Basque language. ► ANJEL LERTXUNDI



About self-censorship among us

The teacher Pako Sudupe reflects on the nature of the analysis and critique of the history of Basque literature. In this way, the author asks himself to what extent scholars attempt to safeguard the good image of the leading players of that history—in other words, the writers. Sudupe illustrates his comments by presenting little-known and controversial passages from the life and works of Lauaxeta and Andima Ibinagabeitia. ► PAKO SUDUPE



Basque savings banks: no to merger

The economist Jenaro Garate shows his disagreement with regard to the project to merge three Basque savings banks. The author stresses that this project would be detrimental to the philosophy of customer service and to the society which has characterized the savings banks since they were set up. Thus, Garate puts forward arguments of a financial, social and cultural nature to justify his stance against the merger. ► JENARO GARATE


Technopop, Technoscience, Technohermetism

Juan Bautista Bengoetxea, a Doctor in Philosophy, provides us with a reflection about the scope of technoscience in contemporary culture. According to the author, the term «technology» conceals the introduction of a new variant in the hermetic tradition: digitalism, based on myths and beliefs which idealize and overrate the scope of science and technology in society nowadays. According to Bengoetxea, the field of technopop (groups such as Kraftwerk, Devo and El Aviador Dro) provides us with a magnificent means of ironically dealing with and playing down the myths and imagery of technohermetism. ► JUAN BAUTISTA BENGOETXEA



News today

This gathers together cultural information focusing on the present from various areas and perspectives. This year we shall be closely following sociolinguistic, communication and literary-related matters. This section draws on various specialists: Pablo Suberbiola, Patxi Gaztelumendi and Jon Benito. ► *Various Authors*



*e*skuetan duzun hau bigarren aldiko 150. zenbakia da eta 2005. urteko bosgarrena.

Zenbaki honetan ez da gai nagusirik lantzen. Horren ordez, *Gaiak* sailean, elkarren artean lotura zuzenik ez duten lau artikulua aurkezten dizkizugu. Honako gaiak lantzen dira, hain zuzen, artikulua hauetan: euskara, kultura eta kultur politikari buruzko hausnarketak; euskal literatura eta idazleen ikertzaileen arteko autozentsura; euskal Kutxen fusio egitasmoaren aurkako argudioak; zientziak eta teknologiak egungo gizartean eta kulturaren duten eraginaren inguruko gogoeta.

Lehenengo artikuluan, bada, Kultur Politikei buruzko Nazioarteko Biltzarrean Anjel Lertxundik irakurritako hitzaldia dakarkigu (Bilbo, 2005-11-15). Bertan, euskara, kultura, euskal kultura eta kultur politikari buruzko hainbat hausnarketa aurkezten dizkigu. Lertxundiren ustez, euskalduntasuna aukera kultural, ekarpen intelektual eta bizi-poz linguistiko gisa bizi liteke, baina etxetik atera eta unibertsaltasunari uko egin gabe. Eremita proiektuak ez ezik, eremu konpartituak ere landuz. Euskararen eta euskal kulturaren neurritik abiatuz proposatzen ditu egileak euskal kultur politikaren funtsezko hainbat gako.

Pako Sodupe, bigarren artikuluan, euskal literaturaren historiografiari buruzko gogoeta egiten du. Zehazkiago, ikertzaileak begirunez euskal idazleen irudi ona gordetzen saiatzen ote diren galdetzen du egileak, hainbat iritzi eta adierazpide baztertuz. Sodupe Lauaxeta eta An-


dima Ibinagabeitiaren bizitzako zenbait pasarte ez oso ezagun eta polemikorekin osatzen du bere gogoeta.

Hurrengo artikuluan, Jenaro Garatek euskal Kutxen fusio egitasmoaren aurkako iritzia agertzen digu. Egitasmo horrek, Garatek azpimarratzen duenez, Kutxek hasiera-hasieratik herritarraren eta gizartearen zerbitzura egoteko gorde duten filosofia hautsiko luke. Horrela, bada, fusioaren aurkako bere jarrera oinarritzeko, ekonomia, gizarte eta kultura alorreko hainbat argudio proposatzen ditu egileak.

Laugarren artikuluan, azkenik, Juan Bautista Bengoetxeak egungo gizartean eta kulturaren teknozientziak duen eragin eta irismenari buruzko gogoeta kritikoa eskaintzen digu. Egilearen arabera, «teknologia» hitzak tradizio hermetikoaren aldaera berri baten agerpena mozorrotzen du: digitalismoak, hain zuzen, zientziak eta teknologiak egungo gizartean daukan indarra idealizatu eta neurritz kanpo baloratzen du. Bengoetxearen iritziz, teknopop musikaren eremuak teknohermetismo berri horren mitoak eta irudi multzoa ironiaz landu eta kritikatzeko proposamen bikaina ekarri digu. Hortxe ditugu, besteak beste, Kraftwerk, Devo eta El Aviador Dro taldeen lanak.

Egunen Gurpilean saileko orrialdeetan, ohi bezala, literatura, soziolinguistika eta komunikazioaren inguruko berriak dituzte aipagai, estilo arin eta bizian, Jon Benitok, Pablo Suberbiolak eta Patxi Gaztelumendik. ¶

Gaiak



ANJEL LERTXUNDI

Eremu libreak, eremu konpartituak

11



PAKO SUDUPE

Gure arteko autozentsuraz

25



JENARO GARATE

Euskal Kutxak: fusiorik ez

39



JUAN BAUTISTA BENGOETXEA

Teknopop, Teknozientzia, Teknohermetismo
Kraftwerk, Devo, El Aviador Dro eta zientzia-fikzioa

51

E remu libreak, e remu konpartituak



ANJEL LERTXUNDI



*a*nthony Burgess-ek esaten zuena betetzea tokatzen zait gaur: «Idazlea hor dabil beti ez dakienaz hizketan...». Ez naiz ezertan aditua: ikusten duenari eta ikusitakoaz pentsatzen duenari hitzezko forma ematen saiatzen den idazle bat izaki, euskarari eta kulturari buruzko hainbat hausnarketa egiten saiatuko naiz.¹

Munduaren neurriaz

Euskararen inguruan ari den euskaldun batentzat ezinbestekoa baita Koldo Mitxelenaren ekarria, haren aipu bat baliatuko dut gaiari ekiteko: hizkuntzalari handiak zioen euskaldunon berezitasuna ez dela «europartasunaren hezur-mamiei usain eta kolore berexi antzekoa ematen dien larmintz mehea baizik».

Nire orain arteko ibilbideak irakatsi didanez, posible da euskalduntasunaren zirkunstantzia aukera kultural, ekarpen intelektual eta bizi-poz linguistiko gisa bizitzea. Irakatsi dit halaber aukera intelektual horiek ez direla etxean ahitzen, ez daudela kanpoan bakarrik. Miguel Toragak zioen bezala, unibertsaltasuna ez da langarik gabeko partikulartasuna besterik.

► **Anjel Lertxundi** idazlea da.

Eta Kipling-ek Ingalaterraz zioena geurera ekarriz, «Zer dakite Euskal Herriaz, Euskal Herriaz soilik dakite-nek?». Gure identitatea azpimarratzeko premiak ez digu begi-bistatik kendu behar auzoak ditugula, auzo gaituztela. European ditugu sustriak, Europak ere esplikatzen gaitu. Europako arragoan zaildutako kultura eta mundu ikuskera ditugu gure joan-etorri intelektualen iturri. European beharra dut euskarari eta euskararen aukera kulturaleri diedan estimu intelektual, artistiko, literarioa sendotzeko. Eta euskararen alde eginez frogatzen dut European erai-kuntzan parte hartzeko nire borondatea.

Gainera, gure European bizitzeko modua elebiduna da euskaraz egiten dugunon ia kasu guzti-guztietan (gaztelaniak zein frantsesak egin gaitu, historian zehar, elebidun) eta gure European bizitzeko modua bada eleanitza ere gero eta modu ugariagoan: elebitasunak zekarren eta eleaniztasunak dakarren talaia baliatu beharra du euskal kulturak.

Gure kulturak mendebaleko kulturarekin bat egiten duen puntuan lortzen da komunikazio kulturala, puntu komun horretan sortzen dira denok ulertzeko moduko efektuak, puntu horretan hasten da Europa etxeratu eta etxea Europaratzearen joan-etorritzko bidaia. Kultura da substantiboa, eta euskalduna, modernoa, kosmopolita, herrikoia, marjinala edo bururatuko litzaigukeen beste edozein adjektibok substantiboa zehazten du eta gizentzen edo argaltzen, baina adjektiboak ezin lezake substantiboaren tokia hartu. Europar kulturaz hitz egiterakoan ere, kulturak garamatza, europartasunak baino gehiago, beste kulturetako gizon-emakumeekin solidarizatu ahal izateko eremu komunetara.

Europa behar dugu, baina European izaera mosaikozkoak ere behar gaitu geure txikian. Bai, Europak ere behar gaitu, bere ezaugarri aberatsenetako bati, mosaikozko izaerari eutsiko baldin badio. Horrek bi lehia garrantzitsuen partaide bihurtzen gaitu besterik gabe. Lehendabizi, E u ropak bizi duen lehiaren partaide: Erasmok *aniztasu-
nean bat* amestu zuen herrien Europa eta bere identitatea desberdintasunen suntsiketari oinarritzen duen estatuen Europa jakobinoa lehia bizian daude, eta guk erabaki be-

harra dugu nola izan Europan. Bigarren lehia ez da patxadatsuagoa: kultur desberdintasunak oro itotzen dituen merkatu itsuaren eta identitate kulturalaren defentsan salbuespen kulturala errebendikatzen duen jarrera protektionistaren artean jokatzeko da. Hona laburbilduta bi lehien muina: europarrok nola eutsi geure identitate aniztasunari merkatu globalaren garaiotan.

Munduko herriek, kulturek, hizkuntzek munduaren beren neurkera propioa zuten Frantziako Iraultza arte: arrobak eta kana erdiak, oinak eta zelemiak, pintak eta koartilloak, librak eta ontzak, goldeak eta arrak... Ugaritasun horri kaltegarri iritzirik, Frantziako Asanblea Nazionalak neurriak batzea erabaki zuen, garai guztiek, lurralde guztiek eta gizaki guztiek mundua neurtzeko modu bera izan zezaten. Baina mundua ez baita neurri bakar batean, hitz batean, ezta libururik ederrenean ere kabitzen, Gabriel Arestik idatzi zuen ez ironiarik gabe: «Nire munduaz mintzatzen naiz, naizelako munduaren neurria».

Hizkuntza dugu munduaren gure neurria, gure lehen eremu kultural librea, hizkuntzari eutsi nahi soilarekin kontribuzio sekulakoa egiten ari gara kultura unibertsalari.

Halatan, gure hizkuntza txikitua eta arriskuan dagoena kulturalki garatzen ari bagara, geure izaerari eutsi nahi horrek ezinbestean dakar Europaren eredu mosaikodunaren alde egitea, ezinbestean dakar merkatu globalizatua- ren aurrean salbuespen kulturalaren alde egitea.

Ohartuta zein oharkabean, lehia bikoitz horretan gaude bete-betean.

Garenaren neurria

Euskaldun izateak, beste edozein zirkunstantziak bezala, problemak ditu, baina problema ez da euskaldun izatea bera. Euskalduna naiz, eta euskaldun izaten jarraitu nahi dut. Ohart naiz, ordea, arriskuan dauden giza errealitate orok bezala, euskarak ere eguneroko jarduna duela irtenbide bakar, eta hala ere, lanak. Euskararen auzia ez dugu sekula konponduko. Izatekotan ere, hobetu egingo

ditugu euskararen zirkunstantziak. Eta zirkunstantzia horiek hobetzeko orduan, derigorrezkoa zaigu euskararen eta kulturaren arteko nondik norakoak eztabaidatzea, zehaztea, bultzatzea.

Ez, ez dago beste panazearik, ez dago ukendu miresgarririk.

Horregatik, esparru urriko hizkuntza bateko hiztun izatearen pedagogia sustatu beharko genuke, zirkunstantzia horren bizipena traumatikoa izan ez dadin. Joseba Sarrionandiak zioen bezala, «txikiak izaten ikasi behar dugu». Etorkizunari buruzko paranoiarik eta izurik gabe, baina baita modernitate gaizki ulertu baten pasotismo antzurik gabe ere.

Esperantza ezagutzaren maila adimentsuena omen: garena onartzeaz gainera, izan gaitezkeenaren alderik onenak kontenplatu ditugu. Halatan ere, esperantzak eta aurrera egiteko borondateak ezin dituzte arreta eta zuhertasuna baztertu. Desegokitasunak detektatzeko zentzu kritikoa eta haiek salatzeak ausardia makulu ezinbestekoak ditugu bidean: maitasunak ez du dena on bihurtzen, maitasunak itsutu ere egiten du. Hargatik, euskaltzaletasunaren izenean —edo aitzakiaz— egiten den guztia ez da on.

Badakigu zer ez garen, baina jakin behar dugu zer ez dugun izan nahi. Eta baiezkoan formulatuta: badakigu zer garen, baina jakin behar dugu zer izan nahi dugun.

Hizkuntza batek kohesio halako bat ekartzen du hizkuntza horretako hiztunen artean, eta kohesio hori kulturala da batez ere. Erkidego autonomoan bi hizkuntza ditugu, gaztelania eta euskara, Nafarroan bezalaxe. Ipar Euskalerman, berriz, euskara eta frantsesa. Euskara dugu komuna hegoan eta iparrian, mendebaldean eta ekialdean.

Eremu propioak, eremu partekatuak dauzkagu. Kontua da hizkuntzen arteko harremanez eta bizitzaz hitz egiterakoan, erreferentzia kultural desberdinen arteko bizitzaz ere hitz egin behar dugula. Eremu propioez, eremu konpartituez. Baina politikariek zeharkakotasunaz hitz egiten dutenean, nago ikuspegi soziologikoa edo ideologikoa edo ekonomikoa hartzen dituztela aintzat, inoiz ez kulturala. Gaztelaniaz ari naizenean, nire erreferente kul-

tural zuzen-zuzenak espainolak dira, eta horrek Susoko monasteriotik Pablo Nerudaren Isla Negraraino narama, Don Kixoteren Mantxan barrena. Euskaraz ari naizenean, erreferenteak euskaldunak dira, eta Eihalarreko plazatik Jon Miranderen Parisa edo Ameriketara dauden euskal artzainek ingelesa eta euskara nahastuz osatzen dituzten bertsoetara. Maria Zambranoren hausnarketa bat parafraseatuz, gure kulturak bere indarra erakusten du ezertan nabarmendu gabeko euskaldun anonimoei natural-natural erakusten dutenean munduan egoteko forma bat, forma horren esklabo izan ordez.

Eliotek, kulturaren oso kontzeptu elitista baldin bazuen ere, herri baten kulturaren deskribapen ez batere elitista eman zuen *Kulturaren definiziorako oharra* liburuan:

Kultura terminoak herri baten ekintza eta interes guztiak biltzen ditu: Derbya, Henley-ko errege estropada eta Co-wesekoa, abuztuaren hamabiko festa, kopako finala, galgoen lasterketak, apustuak egiteko makinak, dardoak, Wensleidle-ko gazta, aza txikitu egosia, erremolatxa ozipinetan, hemeretzigarren mendeko eliza zaharrak eta Elgarren musika. Irakurleak bere zerrenda propioa osatzeko.

Jose Luis Ansorenak bere zerrenda propioa osatu berri du azkeneko *Larrunen*:

sexu harremanak noiz, nola eta norekin; jateko ohiturak; lagunartekoak; jaiak ospatzeko moduak; eguna partitze-ko aukerak; lanari ekitekoak; arazoak konpontzeko usadioak; bizitzari eta heriotzari nola erantzun era kolektiboan; etxeak eta auzoak antolatze gisak; hizkuntzan gorderik dauden logika eta psikologia egiturak... Horixe eta gehiago da kultura. Gu, konturatu gabe ere, talde bihurtzen gaituen arau trinko eta isil ugarien egitura.

Eliotek kulturaren izaera elitistan sinesten zuen, baina oharrezkoa da Eliot elitistak kultura-modu elitistaren adibide bakarra eskaintzen digula bere zerrendan: Elgarren musika. Ansorenak, ezta hori ere.

Kulturak egiten gaitu, kultura egiten dugu. Kulturaren kalitatea eta kulturari eskaintzen zaion arreta ez dira

batere adierazgarri txarrak herri batek duen garapen demokratikoa neurtzeko.

Prestigioa, balore erantsia, dotoreziatzko ukitua darrkio kulturak euskarari, egia da, baina hori bakarrik? Munduan egoteko eta mundua pentsatzeko modua da kultura eta bada galderak egiteko eta erne egoteko eta bide berriak saiatzeko eta arriskuak prebenitzeko sistema bat ere.

Paradoxikoa badirudi ere, arrazoi kulturelek hobeto eta zehatzago esplikatzen dute gurea bezalako hizkuntza bati eutsi nahi tematia arrazoi politikoek baino. Hizkuntza gure historia da, gure memoria da, gure izaerari buruzko dokumenturik bikainena da. Hizkuntza, definizioz, erai-kuntza sozial eta anitza da, kolore desberdinetako jendeak mendeetan osatutako egitate kultural eta komunikatzailea; hizkuntza da gu esplikatzen gaituen eta mundua ikusteko gure modua gehien zehazten duen ekintza kulturala.

Errentagarritasunaren neurriak

Kultura deitzen dugun horrek sare trinko bakar bat josten du partikula renetik unibertsalenera doan zirkulu zentrokideetan. Partikula renetik zabalenera doa zirkulu zentrokide horietan kulturaz arduratzen den administrazioen sarea ere: udal, foru aldundi, erkidego, estatu edo europar batasun, administrazioak ere kultur gileak dira. Kultura garestia baita, kultura saldu eta erosi ere egiten baita beste edozein produktu bezala, kulturak bai baititu erabilera-balioa eta truke-balioa ere, diruaren kudeaketak erantzukizun handia ematen die administrazioei, kultur gintzan duten eragina ere handia da beren alde bateko edo besteko erabakiekin.

Amaraun erraldoi baten gisa irudikatu izan dugu administrazioa: itsu-gor-mutua. Kontzientziarik gabea eta aurpegi jakinik ikusten ez zaiona. Administratuok kontrolatu ezin dugun, baina administrazioen etorkizuna baldintza dezakeen egitate abstraktuaren itxura hartu du mundu guztiko administrazioak, egitate ia metafisiko halako

batena. Administrazioaren mekanismoen ulerkuntza ez dago hiritar arrunton esku, hala sinestarazi zaigu: antzua da ulertzeko gai ez garen zerbait ulertzen saiatzea. Esanekoak nahi gaitu administrazioak. Hiritar konkretuen premiak kudeatzen dituen amaraun abstraktu bilakatuta, nori eskatu erantzukizunak? Onenean, esfinge bati. Administratuen iritzi, juzku eta kritiken gainetik, gugandik aparteko eremu abstraktu urruti hotz batean balego bezala jokatzeko jarrera du administrazioak.

Esparru urriko hizkuntzek eta kulturak, ordea, hil ala bizikoa dute, aurrera egingo badute, administrazioaren eta administratuen arteko hurbiltasuna, kolaborazioa eta baita konplizitatea ere: bakoitzak bere nortasunari uko egin gabe, elkarren arteko mugak ondo markatuta, batak bestearen plaza konkistatzeko asmorik gabe eta bi-biek garbi ikusita *laissez faire* ereduak merkatu itsuaren atzaparretan uzten gaituela, administrazioaren babes gehiegiak administrazioaren kultur irizpideen gidaritza duela nolabaiteko ondorio.

Nolanahi ere den, auzia garrantzitsua da: esparru urriko hizkuntzek eta kulturek beti beharko dute, bertako administrazioek zuzen diseinatutako politikaz gainera, administratuen boluntarismoa. Frantsesa edo gaztelera bezalako hizkuntza hegemonikoetako hainbat jende kezkatuta baldin badago ingelesak dakarren erosioarekin, zer esan esparru urriagoko hizkuntza eta kulturetako hiritar ardura-tuenei buruz? Beren izaeraz jabetzen diren une berean hartzen dute beren hizkuntzaren eta kulturaren egoera diglosikoaren kontzientzia.

Bai, dosi esanguratsuetan behar dugu boluntarismoa: hizkuntza hegemoniko bateko hiztunari bere hizkuntzan aritzea arnasa hartzea bezain naturala zaion bitartean, hizkuntza urrikoak hil edo bizikoa du arnasaren etengabeko kontzientzia, arnasketa zaindu eta hauspotu beharra: badaki hiztun guztiak guztiz konprometituta ere lanak izango dituela hizkuntza horretan ehundutako kulturak; badaki, halaber, zer dakarkion hiritarren utzikeriak ere. Horren aurrean ba ote dago ezer hoberik hiritararen inplikazio pertsonal librea baino? Hori gabe, gureak egin du.

Esparru urriko hizkuntza eta kultura kudeatu behar duten Administrazioek, dirudunenak izanda ere, nekez eraman ahal izango dute ezer aurrera iniziatiba partikularrekin kontatu gabe. Gureari begiratu, dagoen dirua dago, eta horrekin jokatu behar dugu. Ados. Ez naiz inoiz *aberats berrien* politiken zalea izan. Daukagun diruari ahalik eta etekin gehien ateratzen saiatu behar dugu. Ezin dugu esparru guztietara iritsi. Ezin dugu denera iritsi ezinez garrantzitsuena ito: gure ahulezien jakitun izan; lehentasunak markatu; zuhertasunez jokatu; zorrotzak eta diziplinatuak izan; sormenari tokia eman; arriskuak neurtu, baina ez arriskuei atea ixteko; ez xahutu dauzkagun diruak eta baliabideak... Uste dut denok ados geundekeela planteamendu horiekin. Baina baldintza batekin: kultur administrazioaren alor guztietan eta administrazio orokorraren sail eta arlo guztietan ere auto-kontrol eta diruarekiko zorrotasun horixe bera sustatzen baldin badira. Birtartean, gerria estutzea guri bakarrik eskatzen digun diskurtso batek beti edukiko gaitu aurrez aurre.

Normala ematen du —normala bihurtu dugu— kateko kate-maila ahulenei gerrikoa estutzeko eskatzea. Normala bihurtu dugu, bai, herri baten garapenerako hain garrantzitsuak diren hizkuntza, irakaskuntza, kultura, zientzia edo ikerketa bezalako esparruak tarta-banaketako koitadutzat jotzea. Diziplina eta gerri-estutzea, bai, ados, baina baita kulturarekin zerikusi zuzenik ez duten sektore guztien inplikazioa ere. Zaila da, inertzia askoren kontra egin beharra dago, badakit, baina kulturaren egiteko nagusia ez da ba utopiaren bideragarritasunean sinestea eta ezinezkoak diruditen lanetan ahalegintzea?

Halako planteamenduen aurrean berehala aipatzen dituzte: batetik, kulturaren elitismoa, luxuzko izaera eta pribatutasuna; eta bestetik eta batez ere, kulturaren errentagamitasun falta. Lehendabiziko argudioari, pribatutasunarenari eta luxuzko izaerarenari helduz: kulturari buruz hitz egiten hasi orduko, egia da gizabanakoon esperientzia pribatua etortzen zaigula burura: sotsailearen lan bakartiak edo kultur emaitzen jasotzeko modu guztiz pertsonalak horretara eramaten gaitu. Baina kultura esperientzia

pertsonalen metatze eta partekatze soziala da definizioz. Denok gara, definizioz, kulturadun, eta denok gara, aldez edo moldez, kulturgile, baita kulturaren elitismoa salatzen duten pragmatikoenak ere. Oinordetzan jasotako kultur parametrojakin batzuen arabera espresatzen dugu gure giza esperientzia; ez dugu ezereza ren gainean sortzen, sortutakoaren komunikazioa ere ez dugu ezereza ren gainean eraikitzen; eta guk eraikitakoak ere soziala du emaitza; eta, batez ere, espirituala. Neurgaitza. Parametro ekonomiko hutsetik begiratuta, babestu ezin dena. Baina kontua muturerraino eramango dut: konturatzen ez bagara Oihenarteren eta Boilearen arteko joan-etorria aztertzearen garrantziaz, edo Juan Krisostomo de Arriagaren musikan eredu italiarren eta etxeko musikak egiten duten uztarketaz, europar espiritua galduko dugu betiko: has gintezke pentsatzen etekina beste helbururik ez duen burokrazia kudeatzaile bati saldu diogula gure bizitza espirituala.

Iraultza frantsesaren ondoren, Fabre kazetari katalana pasatu zen Urdazubitik, hango monasterioko liburutegi famatua ezagutu nahian.

—Ez dago liburutegirik, iraultzaileek hondatu zuten —esan zioten herrikoek—, eta liburu gehienak zaldien azpitarako erabili genituen.

—Zergatik diozu gehienak?

—Arrotz batzuek erosi zituztelako balio zutenak.

Kulturaren kalitatea eta kulturari eskaintzen zaion arreta ez dira batere adierazgarri txarrak herri batek duen garapen demokratikoa neurtzeko. (Hemen bertan Euskal Kulturaren Plana aurkezterakoan esan nituenak berrituko ditut):

Gizarteak alor guztietan eskatzen duen kalitatea bermatu behar dizkio Administrazioak bai sorkuntzari bai kultur kontsumoari. Horretarako, hiritarrak jasoko dituen kultur produktuen kalitatea eta kultur sortzaileen independentzia bermatu behar ditu Administrazioak. Era berean, hiritarrak —kultur sortzaileak zein kultur kontsumitzaileak— eskubidea du kultur kudeaketaren demanda egiteko, kudeaketa jarraitzeko, kudeaketaren aurretik bere irizpideak emateko eta, ondoren, kudeaketa kritikatzeko

zein txalotzeko. Hori guztia Administrazioaren eta administratuaren elkarren arteko hipotekarik gabe eta bien arteko zibiltasunez eramanda.

Bai, hori dena ondo dago, baina... Kultura ez lehenesten kontrako argumentu nagusira heldu gara, errentagarritasun ezarenera.

Industria kulturalen neurriak

Errentagarritasuna baitugu bizitzea egokitu zaigun garaioetako neurria, *ondare* eta *ondasun* kulturalaz hitz egiten dugu, jarduera ekonomikotik datozkigun hitzekin adierazten dugu gure kulturaren altzorra. Industriaren kontzeptua ere ekarri dugu enpresaren mundutik kulturarenera.

Oximoron bat edo kontraesan bat da ondareaz eta kulturaz, industriaz eta kulturaz hitz egitea? Bai eta ez. Industria kulturala deitzen diogun horri jarriko diot segidan arreta. Eta horretarako, lehenik eta behin: industria kulturala eta aisialdiaren edo entretenimenduaren industria bereiziko bagenitu, hobeto ulertuko genuke elkar, eta lagungarria ere gertatuko litzaiguke bereizketa hori begi-bistan edukitzea printzipioak zehazterakoan, irizpideak erabakitzekoan eta baita kudeaketa lanetan ere. Ez dut entretenimendua gutxiesten eta ezta horren industria ukatzen ere. Kulturaren eta entretenimenduaren industriak, biak behar ditugu, biek betetzen dute beren funtzioa. Baina desberdinak dira. Dituzten ezaugarriak eta premiak ere desberdinak dira. Etekiniei dagokionez, industria kulturalak pentsaezinak ditu etekinak edo, onenean, hutsaren hurrengoak: industria kulturalaren helburu nagusia ere etekin ekonomikoen gainera dago —edo beste eremu batean—. Materialak ez diren premiei erantzun nahi die materialak diren bitartekoekin. Baina industria kulturalak ezin du, bere ekoizpenen izaera ez materialaren izenean, zein mundu klasetan dagoen ahaztu. Kultura garestia da, kultura merkatuan dago, kulturak ezin dio bizkarrik erakutsi balioaren testari. Ekonomia eta kultura elkarrekin topo egitera derrigor-tuta daude, bai, baina halatan ere:

ekimen kultural serio batek ezin du etekin ekonomikoaren ez maizter, ez esklabo izan.

Entretanimenduaren industriak ere produktu kulturalak ekoizten ditu, baina helburu kulturala eta etekin ekonomikoa elkarren lehian daudenean, etekin ekonomikoa ateratzen da garaille. Entretanimenduaren industriak aurrez kalkula ditzake etekinak, beste edozein aktibitate industrialetan bezala: merkatua aztertu, joerak ikusi, jendeak eskatzen duenari erantzun, arrakasta izan duten produktuen araberakoak ekoiztu...

Artistak, ordea, lanean hasi aurretik eta lanean ari dela zera esango dizu: «ez dakit zer nahi dudan eta zer egingo dudan, ezin dizut ezer aurreratu». Jendearen gustuari eta jendearen apetari baino gehiago, bere baitako jardun beharrari erantzuten dio artistak. Baina kapital bihurtzeko dohainak erakutsi dituen arteaz soilik arduratzen da kapitalismoa, ez arte horretara iritsi bitarteko prozeduraz, zailtasunaz eta porrotez. Zaldi irabazlearen alde baino areago, irabaziak ematen dituen zaldiaren alde egiten du.

Ekoizpen kulturalak kulturalki izan behar du, beste ezeren gainetik, lehiakorra. Entretanimenduzkoak, ekonomikoki. Bereizketak oso garbia dirudi eta ondo funtziona dezake biziraupen-arazorik ez duten kulturetan. Esparru urrikoetan, ordea, bien arteko mugak lanbrotsuagoak dira. Nola lortu bere burua ordaindu eta gainera etekinak emango dituzten euskarazko ekoizpen entretanimenduzkoak? Bego. Panorama horren aurrean, nekez egin dezaket baten edo bestearen aldeko apustua, bien egoera baita, gehienetan, defizitariora. Baina halatan ere, biak desberdinak direla adierazi nahi dut; eta desberdinak badira, ezin direla modu berean tratatu.

Bide beretik, entretanimenduaren industriak industria kulturala du iturri. Baina bertako industria kulturalari jaramon gutxi egin eta entretanimendu kulturala lehenestek zera esan nahi du: entretanimendu kultural horrek berea ez den beste esparru batzuetan bilatu beharko du non inspiratua; edo, bestela, inportatua izango da entretanimenduzko produktu hori. Antzerkia, zinea, komikiak eta aldizkariak, haur diskoak, telebistako programak... Den-dena

kanpoko erodei begira jartzea da unibertsaltasunari eskain diezaiokegun emaitza bakarra? Tamala da, eta ezer berri eskaintzea ia ezinezkoa dela esatea egia bada ere, ez da, inondik ere, bide berriak ez saiatzeko aitzakia.

Gure entretenimenduzko industria bat sustatzeko beharrezkoa dugu *gure* industria kulturala ere sustatea: *gure* egile eta artistak, *gure* itzultzaileak, *gure* komikigileak, *gure* dramaturgoak, *gure* zinegileak, eta artista horiei bai hemen eta bai kanpoan beren lana erakusten lagunduko dieten *gure* agente artistikoak eta *gure* distribuzio-sareak.

Curraldetasuna edo gu gara zortzi probintzi

Alarma-dei ugari entzuten ari gara teknologia berriak direla-eta. Egunotan, azkena: Unescoren ustez, gaur egun munduan hitz egiten diren sei mila hizkuntzetatik ia gehienak hilda egon daitezke mende hau bukatzerako, eta prozesu horretan Internetek eragin sekulakoa izango omen du. Aurreikuspen apokaliptiko horren aurrean nik ez daukat hemen aldarri bat egitea beste biderik: gu gara zortzi probintzi. Edo, beste modu batean esanda, euskarak zazpi lurralde naturalak izateaz gainera, zortzigarren bat konkistatu behar du: teknologia berriena, Internetena.

Orain arte lurraldetasun fisikoak —«gu gara zazpi probintzi» kantatzeak— indar handia zuen, horrekin lurraldetasunari ematen ari gara *gure* etorkizunaren giltza. Ez naiz auzi horri garrantzia kentzen hasiko, baina lurraldetasun fisikoaz gainera, garrantzi betea du lurraldetasun birtualaren konkistak ziberespazioan. Hor ez dagoena ez da; hor ez bagaude, *gure* egin du. Joanak dira familiak, kaleak eta elizak hizkuntza baten transmisioa guztiz ziurtatzen zuten garaiak. Aspaldi ikusten ari gara eskolak, eman dezakeen guztiarekin ere, badituela bere mugak transmisioari dagokionez. Badakit teknologia berriak ez direla panna, baina badakit ziberespazioan geure zortzigarren lurraldea bilatu gabe ez dugula ezer lortuko.

Euskarari eta euskal kulturari eutsi nahi badiegu, ezin dugu beste hizkuntzen eta beste inizatiben maizter izan.

Iniziatiba partikular askok ikusi du hori eta ezingo diegu sekula behar bezala eskertu gaur egun euskarak eta euskal kulturak Interneten duten tokia. Ez da, ordea, inondik ere aski. Hor gero eta presentzia handiagoz egoteaz gainera, egote horri etekin kulturalak eta etekin ekonomikoak ateratzen jakin behar dugu. Baliabide ekonomikoak behar ditu euskarak, baina, aldi berean, gero eta gaiago da euskara aurrez egindako inbertsioak itzultzeko. Teknologia berriek eta Internetek bide horretan jarri behar dute, Internet, beste gauza askoren artean, bai baita merkatua ere.

Azken solas

Orain gutxi argazki polit bat ikusi nuen *Berria* egunkarian. 1920 urtearen ingurukoa zen eta bertan hiru artista euskaldun ageri ziren: erdian, idazle bat, Ebaristo Buztintza *Kirikiño*; haren ezkerrean, Indalezio Ojanguren argazkilaria; eskuinean, berriz, Karlos Elgezu eskultorea. Hiru diziplinetan maila ona erakutsi zuten eta euskararekin konprometiturik zeuden hiru euskal artista. Diziplinen arteko joan-etorria gaur baino askoz ere normalagoa zen garaietako argazkia da.

Agian nostalgikoegia naiz eta pozik ikusiko nuke gaur antzeko argazki bat: bertan jasota Euskal Herriko diziplina artistikoen eta artisten inplikazio argiagoa euskal kulturarekin. Beren izaera autonomoa izan arren, arteak ez dira konpartimendu estankoak. Eta diziplina desberdinen konpromisoak, arteak pribilegiozko izaera baitu, baliu erantsi garrantzitsua ekarriko lioke euskarari, eta diskurtso estetikoak ere ekarriko lioke, eta ekarriko lioke munduan egoteko modu jantziago bat ere.

Euskararen bidez jaso nahi dugun / jasotzen ari garen etxeak zabala behar du izan euskaldun guztiak bertan goxo sentitzeraino; eroso eta erakargarria behar du izan, auzoen arreta eta jakin-mina sortu eta irabazteko; eta aberatsa behar du izan: etxekoei eta auzoei Arestiren begietako mundu hura erakutsiko diena: «Nire munduaz mintzatzen naiz, naizelako munduaren neurria».

Gu guztiok, bakoitza bere alorrean, egiten ari garen lana izan bedi elkarrekin askatasunaren lurralde bat erakitzen segitzeko ahalegina.

Horren esperantzarekin, mila esker. ¶

-
1. Kultur Politikei buruzko Nazioarteko I. Biltzarrean Anjel Lertxundik eman zuen hitzaldia (Bilbon, 2005eko azaroaren 15ean).

Gure arteko autozentsuraz



PAKO SUDUPE

Gure aurreko euskal idazleak irakurtzen, aztertzen eta besterengana helarazteko lantegian aritzen garenok irakurritakotik zenbat iritzi eta adierazpide baztertzen dugu? Hobe beharrez, interes handirik ez duelakoan, den-dena ez baitago hurrengo belaunaldiei iragaiterik, ala zer hori, dena delako hori bazterturik xedetzat hartu dugun autore hori, gure arteko historiara, irudi ho-bearekin igaroko delako ustean? Idazle baten hainbat artikuluri, hainbat jokabideri ez-ikusi eginda, irabazi ala galdu egiten du gure tradizioak: nolabaiteko traizioan dihardugu ala hildako idazleei zor zaien begirunea atxikitzen?

Gutxiz gehienetan autore baten antologoa, liburu-pres-tatzailea, liburu baten hitzaurregilea saiatzan da alde onak nabarmentzen eginahalean, eta ez hain onak inuditzen zaizkionak, estalian utz ditzake hainbat kalkulu tarteko; bestelako paradigma bakarretakoa gurean Ramon Saizarbitoria dugu Célineren *Gauaren muturrerainoko bidaiare*n hitzaurrean: idazle frantsesaren alde antipatikoak bistaraten dizkigu gupidarik gabe, hark erakutsi zuen gupidagabezia beraz —«Célinen idazteko grina, literaturaren par-nasoa irabazteko desioa eta konfiantza, miresgarriak dira, eta bere miseria personalaren parekoak seguruenik»—, ha-ren antisemitismoa, batez ere, eta bide batez idazleez, ba-tez ere eleberrigileez, bere esperientziaren berri emana di-

► **Pako Sudupe** euskara irakaslea da eta Euskal Filologian lizentziaduna.

gu direla urte batzuk: «Nik dakidanez, diferentzialki narziso, berekoi, histeriko, bekaizti gehiago aurki daiteke gremio horretan biztanlego orokorrean baino».

Aurreko batean Ea herrian Lauaxetari buruzko mainguruaren kariatz, kazetari bat xaxaka genuela Beletxe eraikin berezian, titular indartsu baten xerka, itsas haizearen kresal usainak ekarri zion Xabier Mendiguren idazleari solas bihurria ahora: ea Pako, titular indartsu bat, esaterako: «Lauaxeta homosexuala zen» —hutsa zakiat nik Lauaxetaren biografiaz; orain urte gutxi batzuk, Andolin Eguzkitza zenak galdetu zidaan gauza bera Andima Ibina-gabeitiaz, Caracasko atzerrian zela Eako hondartzagaz amets zegien elantxobetarrak: homosexuala al zen?—.

Ez dakit Andima homosexuala zen. Familiaren arabera ilea zuriz tindatu zuelako zabaldu zen esames hori, batiere funtsik gabe, Francoren erregimenaren aurkako ezkutu lanak, Eusko Jaurlaritzaren mendeko espioitza-lanak behartu zuelako horretara. Dakidana da ez zela Ibinagabeitia Céline bezala antisemita, juduak eta israeldarrak miresten baitzituen gauza izan zirelako hildako hizkuntza berpizteko eta estatua sortzeko eta sendotzeko inguruko lurak bereganatuz: judu eta israeldarren aldera zuen miresmenak arabiarren alderako gaitzerizkoa ekarri ziola esango nuke, aurrerago frogatzen ahaleginduko naizenez; baina, Lauaxetaz ari ginen, eta ikertzaile eta liburu-presetatzaileok kolkoan gordetzen ditugunez, hobe beharrez, goretsitako idazlearen orban itxurakoak estali beharrez.

Zergatik argitaratu zuen Lauaxetak *Euzkadin* hain justu Célinek *Gauaren...* plazaratu zuen urte berean, 1932ko azaroan zuzen, «Mussolinigaz autuka»¹ izeneko iudimezko elkarrizketa, hain justu Aitzolek astebete lehenago adierazia eta ohartarazia zuenean *Euzkadin* bertan, Mussolini bezalako buruzagiek, Maurrasek, Hitlerrek eta Stalinek zer-nolako gaitza zuten: estatua jainkotzearena, horrek zekartzan ondorio malapartatuekin.

Aitzolek:²

El nacionalismo extremista y perturbador de Mussolini, Hitler, Maurras y Stalin es conocido con el nombre de «estatalotria». No sabemos por qué el nacionalismo, la

aspiración nobilísima de un pueblo por su resurgimiento, ha venido a ser casi sinónima de culto exagerado al Estado. Nacionalismo, de suyo, se opone a «estatolatria».

Lauaxetak berriz, lehenbizi Unamunori egindako alegiazko elkarrizketa argitaratu zuen, beste nazioetan ere era horretako elkarrizketak boladan zeudela-eta, hain zuzen bilbotarra ren idazletasuna eta batez ere haren poeta izateko ezintasuna gutxiesteko, eta ondotik Mussolinirena, hura batez ere goratzeko:

Italiarren ixatia il-zorijan zan eta bixitza gurari batek, ludijan iraun nai elgor batek sortarazi eutson. Alderdi onek beste ixaterik eztauko. Neure ikurritza 1910gn. urtetik auxe: «guda-egin iragi-bidez». [...] Alde gustijetatik arerijuak urten yataz [...]. Orokerizaliak, sozialistek eta masoyak arrizkurik-arrisku erabillen. Neure agerkundaz gusti onek etsai bijurtu yatazan baña errijak arerijoen lanakaz sendotuten dira. Arerijorik eztaukon errija, erri galduba.

Mussoliniren itzak barrenean sartuten yataz. Geure aberri onetzazkuak dira. Erara yatorkoz.

Aitzolek:

La idea fundamental de Mussolini es ésta: «La nación es la síntesis de todas las energías morales y materiales de la raza. El Estado es la expresión de la nación. Todo en el Estado; nada contra el Estado; nada fuera del Estado».

Astebete beranduago, egunkari berean, Lauaxetak:

Gaur gastedi osuak Italia baño buruban eta bijotzean eztauko. Antziñako Imperium, ludiko buru ixatiak jo gauz. Erromatarren semiak garala ikasi dogun ezkerero, areik egin ebezan lan aintzagarriak barriz ludijan barreyatu gura doguz [...]. —¿Baña Imperium gogai orreik guda diadarrak dira, bakiaren aurkako zarateak? Duceren ezpanetan barre-irri ankerra agertzen da. Eskuba luzetuten dau ta ikabilla biribildu-ostian erantzuten daust: —Gastedi argi ta sendua euki gura badozu, euren begi-aurretik ezegixu guda baten itxala kendu. Urbil gudea eztakustenak galduta dagoz [...]. Turuta-otsak eragin dautse gastiai. Millaka dagoz. Arkondara baltzak eta galtsu-txortakaz Duceren aurretik igaroten dira. Eskubak jasoten dabez.

Italia odol beroz barriztuta datorrela iruditu yat. Eta neure aberri onetan Mussolinik sendotu daun gastedi baten antzekua piztu nairik, eskuba jasoten dot. ¡«Rasci di combattimento», «revolte ideale»! ¡Gixon ori Euzkadin sortu ba-zan!

Aitzolek lehenxeago:

Las ideas ateas y agnósticas impresas por Mussolini al nacionalismo fascista aparecen en [...]. «Yo aseguro que la tradición latina e imperial de Roma está hoy simbolizada en el catolicismo», mientras consideraba al cristianismo como medio o función del Estado, al manifestar que: «Nuestro pueblo no sólo ha avanzado con el fascismo hasta el mismo Dios por deificación de Italia, sino que también ha valorado de nuevo en su verdadera estimación su religión verdadera revelada, el catolicismo...». La elocuencia de estos testimonios, en los que aparece el sentimiento pagano de la divinización del Estado, el cual hace llegar al ciudadano italiano hasta Dios y pretende dar un nuevo valor a la religión católica, nos revela de demostrar la desviación sufrida por el nacionalismo fascista [...]. Mas hay otro motivo para nosotros poderosísimo que nos obliga a censurar el fascismo. Y es el asimismo brutal que ejerce actualmente en el Tirol alemán para descartarlo y aniquilarlo. [...] Tal interés encierra el proceso asimilista que gradualmente va llevando a la práctica el fascismo en el Tirol, que bien merece estudie-mos este otro tipo de nacionalismo «exagerado».

Lauaxeta berriz jaisten da elkarrizketa lekutik, hots, Capitoliumetik, eta hitz hauekin bururatzen du diktadoreari egindako alegiazko autua:

¡Eta Mussoliniren abotsa entzuten dot! Irrasoyak be, itzaldi gurenak belarriratu daustez. Ludijak dardar-dagi gixon orren itzak entzun ostian. ¡Italia aurrera dua! Etsai edo arerijuak daukoz ta [!]udiko aintzindari ixango da. Gaztedi sendua, euki gura badozu, begi-aurrian guda bat jarri egijozu. Gari ta burni-itzak Mussoliniren itzak. ¡Entzun gura neukez entzun geure aberri onetan!

Inork ez al zion erantzun? Mussoliniz edo faxismoaz besterik idatzi zuen mungiarrek?

Azalpen politikoaren bila, 1932ko udazkenean jeltza-leak, oro har, berantetsirik bide zeuden autonomi estatutua geldirik zegoelako ez aurrera ez atzera. Urte horretako uda baino lehen, bospasei artikulua idatzi zituen Lauaxetak *Euzkadin* autonomi-estatutua aldeztarren. Bilboko Euzko Gaztedian ba al zegoen Mussoliniren alderako joerarik? Eta alderdian bertan?

Azalpen poetikora etorriz, ordurako Lauaxeta olerkari famatua zen, *Maitale kutunarekin* Errenteriako Eusko Oler-ti Egunean garaileen haritz-adar zilarreztatua jaso, *Bide Barrijak* liburua argitara emana, Orixerekin klasikoa zer zenaz eztabaida izana, Aitzolek ere olerkari gisa, euskal olerkari erotiko gisa goratua; eta halaber adierazia zuen poesiaren bere definizioa:

La poesía es un género de literatura que basa su mérito en cierto misterio muy grato, que nos traslada a un mundo de realidades irreales que inyectan salud moral al despertar.³

Arrats beranen hitzaurrean zioen:

Ludi onen bestaldez loratzen diran landaraen usañak goxalde bakotzak dakarkidaz. ¡Auxe da neure sakona! Bestiak entzuten eztaben egal-otsa neure gelara jatort eta barneko zugatz onettatik txorijak aldatu ziranarren, abar dardarea ezta amattu.

Olerkari sinbolista, bere sakon horretan, Mussolinik gazte italiarrei itsatsiriko idealismoak, gauza guztien gainetik Italian erein bide zuen abertzaletasunak hainbestearaino kolpatu zuen, ezen gerra-arriskua bera eta beste hainbat herri zapaltzeko peril larria ahaztera ekarri zuen?

Nolanahi ere den, Mussolini miresteaz gain harengandik laguntza jaso eta jasotzekoa zutenak matxinatu ziren Espainiako gobernu legezkoaren aurka, eta haiexek fusilatu zuten mungiarra, hots, italiar *ducea* gisa honetan gurtzen zutenek:

Llega Mussolini. Mussolini salva a Italia. Destruye primero la revolución. Aniquila al socialismo [Estatu faxista babesteko sortu zuen auzitegi bereziak, 1927tik 1943ra, 4.700 aurkari politiko zigortu zituen: ia egunean bat].

Pulveriza el liberalismo. Expulsa de Italia a todas las sectas anticatólicas. Purifica la nación de toda la gangrena comunista y atea. [...] Y medita un tratado. Lo articula. Y rápidamente se firma un Convenio, que es todo un Tratado entre la Santa Sede y el Reino de Italia [...]. Dios le concede el cerebro más equilibrado del mundo. Es el maestro de los tratadistas de derecho. El almirante de todas las escuadras. El guía, el pensamiento político de todas las naciones. Y orienta el espíritu de todos los Gobiernos. Es la fuerza y el derecho. Es el brazo y es la cabeza. Es la vida y es el ejemplo. Y es que Mussolini mira a Dios antes de fijarse en los hombres. España puede aprender mucho de este ejemplo de Mussolini.⁴

Lauaxeta fusilatu eta handik pare bat hilabetera argitaratua Nafarroako *Diario de Navarran*, Raimundo Garcia Garcilaso zuzendariak edo bere gogaide hurbilekoren batek idatzia.

Ramon Saizarbitoriak:

Zer axola zaigu bestalde Samuel Becketek Bigarren Gerla Handian Parisen zegoelarik, bere jaioterriaren neutraltasunaz profitatu beharrean, frantses gehienek ez bezala erresistentzian parte hartu bazuen faxismoaren aurka. Zer eransten dio horrek, eta horrek bezala bere zintzotasuna frogatzen duten beste zehaztasun aunitzek, *Godoten begira*, *Malone hilurran*, edo *Aipagaitzari*, laranja bat mahain gainean bezain borobilak eta argiak baldin badira?

Bestela esanik, ez diogu ezer kendu nahi izan Lauaxetaren poesia, obra eta pertsonari, eta ez diogu kendu, gure iritzian. Argitasun gehiagoren aiduru gelditzen gara, eta anartean zilegi bekit azalpen poetikora makurtzea, hots, politikari poesiaren arauak aplikatzeak eragindako hutsegitez atxikitzea nire memoria literarioan.⁵

Bestetara jo gabe, geuk geure baitarik orain zuzenean: zer eransten edo kentzen dio Andima Ibinagabeitiaren obrari eta pertsonari juduen alderako miresmenak arabiarren alderako gaitzerizkora lerrarazi bazuen?

Lo cierto es que quedamos altamente sorprendidos con la aparición en Caracas de los Cancilleres del Líbano, Siria e Iraq para mendigar el apoyo del Gobierno de Venezuela a

la campaña bélica que los países árabes están llevando a cabo contra Israel bajo la égida de Nasser, tomando ahora por excusa el aprovechamiento que piensa hacer ese progresista país de sus aguas territoriales [...]. Por lo visto no deben de estar muy seguros los árabes de la justicia de su causa, cuando con tanta insistencia buscan el apoyo de las cancillerías extranjeras. Las causas justas se mantienen por sí mismas sin mendigar de puerta en puerta.⁶

Gogora Israel egun baino larriago ibili zela 50eko eta 60ko hamarkadetan, bera ahulagoa eta batez ere inguruko herrialde arabiarrak, Nasser buruzagi zuen Egipto buru zela, askoz indartsuagoak zirelako gaur egun diren baino, eta Israel laguntzen zuen eta duen AEBetako gobernuak ez ezik SESBekoa ere hor zegoelako arabiarrei laguntzeko prest.

También es verdad, históricamente comprobada, la conatural hidrofobia de los árabes. Louis Bertrand en su preciosa «Histoire d'Espagne», dice que es difícil suponer que los árabes pudieran haber sido los que implantaron el riego en las huertas valencianas y murcianas así como en los vergeles de Granada y de Sevilla. Se inclina más bien a creer que fueron los propios mozárabes y judíos, gente autóctona sometida por los árabes. Así pensamos también nosotros, pues en todo lugar donde los agarenos posaron su planta se agostó la hierba. Prueba de ello es el estado deplorable en que quedó la Tierra Santa «que manaba leche y miel», según la Biblia, desde que subrepticamente la ocuparon las hordas árabes [...].

Ez dakit ziurtasunez ur kontu horretan hizpidean dagoen ala ez —famatuak dira Babiloniako lorategi dilindariak eta guregandik hurbilago Al-Andalusko lore eta ur baratzek—, baina bistan dago gaia ez duela inpartzialtasunaz jorratzen, arabiarrak horda basati eta salbaitzat dauzka, eta aurrerapen onuragarriak ekartzeko ezgaitzat. *Agarino* hitza ere gaiztoz erabilia dagoela esango nuke: ismaeldar edo arabiarrei Abrahamen mirabe edo esklabo Agarren ondorengoak direla esatea, hots, esklabokumeak.

Ondoren bere ideia nagusi bat: herrien eskubideek ez dutela preskribatzen.

La derrota del Sinaí (1956) no le deja descansar a Nasser y quiere sacarse la espina clavada en su corazón sea como sea, aún provocando una guerra injusta contra Israel en torno de las aguas. Olvidan los árabes que las Patrias y las Naciones NO PRESCRIBEN. Les bastaría recordar que después de más de ochocientos años de ocupación fueron arrojados de la Península Ibérica (España y Portugal) y también de algunos otros países. Israel pues, está en su pleno derecho para hacer en la tierra que históricamente le pertenece y que con todo derecho también ha reconquistado, en parte, lo que más le convenga.

Estatua finkatu eta sendotzeko lur gehiago bereganatzea oniritzen zion, hiru mila urte lehenagoko mugetara heltzea, hots, gure Jainkoak emandako lurrak berreskuratzeko zuzena.

Bestalde, Nazio Batuen Erakundean eta nazioarteko potentzietan ez du federik:

Y que no vuelvan a meterse en el asunto ni la UNO ni tampoco las famosas grandes potencias para apoyar nuevamente a Nasser y demás fautores de guerra en detrimento de Israel.

Jakingo zuen AEBetako gobernuak zer-nolako sostengua ematen zion Israeli orduan ere, eta zalantza barik onetsiko zuen. Hasieran aipatu dugunarekin amaitzen du artikulua: «El que esto escribe no es, ni remotamente, judío, pero es un admirador del pueblo de Israel».

Israelen alde eta arabiarren aurka zegoen, funtsean, arrazoi historiko preskribaezinen ondorioz, eta Israelek egin zuenaz mira eginik. Bere garaian jeltzale eta euskaltzale asko ere Israelen alde egon ziren eta daude oraino ere beren erara. Hala ere, ez dut uste arabiarren aurkako herra horretan asko bat etorriko zitzaiokeenik. Zer bilakaera izango ote zuen? Bidea ematen digu, bestalde, eskubide preskribaezinez gogoeta egiteko: ba da horrelakorik ala herritarren borondatea da preskribaezina, nahiz eta herritarren joan-etorriak ez izan nazioen mendeko baizik estatuen eskumen?

Bestera etorritz, Andima Ibinagabetiaren obra literario-rako bi garai eta leku garrantzizko hain segur Loiolako san-

tutegiko Euskal Akademiaren garaia —1921etik 1926ra— eta gerren ondoko Parisko zortzi urteak —1947tik 1954ra— izan ziren. Hainbat zertzelada eta gorabehera jasoak eta azalduak ditugu han eta hemen, baina ez denak.

Azaldua dudan bezala,⁷ honela idatzi zuen Parisko *Euzko-Deyan*, 1952-11-01ean:

Hauxe esan dot: Aberri barruan, TASUN eta KERI guztiak izaten dirala: Edertasunak eta Arinkeriak; Maitasunak eta Maitakeriak. Orra gauza bi berdingiak. Esku garbiz bizi diranak eta lapurreta maite dabenak. Beti gogo garbiz dabilzanak eta noizik bein ezpada be lizunkerira joten dabenak. (...) Orain arte, euskera alde zerbait egin nai izan dogunok TASUNATZAZ bakarrik jokatu gara, KERI alde ori aldebat utzita. Eztot esango okerreko bidetik ibili gara, ez orixe, baña giztalde askori opor egin dautsogula, ori bai. Beraz, KERI talde orreik be euzkeraz alikatu bear dirala deritxot. [...] Eta orain yatork gogorrena: Eta idazti lizunak (pornografia) eurak be euzkeraz egingo ba'lira? Zer? Ikaratu? [...] Ziur naz, gai orreik euzkeraz erabiliko ba lira, millaka ta millakari sartu-aziko geunskioela euzkerea. Bide okerra dala euzkera alde jokatzeko? Eretxia eskatu dozue ta orra etexi bat.

Gure artean hautsak harrotu zituen, 1952an; bospasei artikulu idazteko akuilu gertatu zen. Ceferino Xemein *Abandotarra*, Chabagno eta Piarres Lafitte gogor aurka: euskara eta eusko ekandu onak jagotearen alde hura, eta Piarres Lafitte Aita Xabañok sustaturik:

Zikinkeria dariogula izkiriatur, ba omen ginuke arrakasta biziki gehiago, eta eskuarazko liburua bichkotcha bezala sal omen litake... Holakorik gogoratzea bada zerbait, aiphatzea ez da gutiago: mozkor batek, ez dakienean zer mintzo den, athera ditzazke gisa hortako arrazoin ahulak; harrituak gaude nola odol hotzean norbaitek izkiria-tu ahal dituen eta agerkari batek argirat eman.

Alde berriz, Andima Ibinagabeitiaz gain, Jon Mirande eta Nemesio Etxaniz, bakoitza oso bere erara. Andima Ibinagabeitiak:

Zertako ez dugu aitortuko euskaldun fededunetz gainera ba direla bertze batzu ain fededun ez direnak? Zergatik

ez ditugu argituko oroen aburuak auzi huni buruz? Ez
dugu izan nahi bereak azal eta bertzenak itotzen dituten
gizon ertsiak.

Ordurako idatziak zituen bere olerkietarik hainbat
Jon Mirandek, besteak beste, *Oianone*:

Gauko oihanetan lasterrka
Zure gainean zaldizka,
Behorr zalhu eta bizkorr,
Gau-bidetan gaindi, mozkorr
Banaramazu lasterrka.

Ezpain likhits, esku lizun,
Atseginaren jakintsun
Bulharretik belhaunera
Haragi biok ikhara,
Jauzten zaitut, neska lizun!

[...]

Neskatilak erraiten dau
eskerr onetan othoitz haur,
Dantzularik Ilhargiak:

«Gora izan hadi, Suge,
Hi haizenik ene Rege,
Hi haizenik ene Jainko
Gau huntan eta bethiko,
Urrhe-buztaneko Suge!...»

Salbatore Mitxelenak *Susaak*:

Ekin diote eztiki,
mingain eta esku,
usainka ta igurtzika,
millizka ta musu,
titi ta ipur-masaillak
jan bearrez, itxu...
ta biak narru-gorri
or ari dituzu.
T'Erio gozoenak
biak lotu ditu
besarka illezkorrean
Zeruaren Zeru!

Nemesio Etxanizek berriz *Griñen loa*:

Su-mendi-aoa
 irakiten eukanan.
 Salda berotan burni arrotua,
 aguro goritu niñan.
 Ta ire poza ler zanean
 urruma-artean: «Biok bat!»
 intziri egin idanan.
 Gau aretan, ni gaiñeko ekaitz:
 i, azpiko lur-ikara.
 Noizbait nekeak atertu ziñan
 gure poz-enara.
 [...]
 Bizi guzian baiño geiago
 ikasi giñanan,
 Jaunari esker onak ematen
 gau pozgarri artan.

Sekularizazio bidean, modernismo-zantzu goiztiarrak euskal literaturan. Eta hainbat autoreren arteko harreman pertsonalak: Salvatore Mitxelena eta Nemesio Etxaniz Donostian ezin etsirik bezala: Mitxelenak erdi-bidali edo/eta alde egingo du 1954an misio-lanetara Euskal Herriaren agoniatik kanpora; Francopeko eremutik erbestera: Nemesio Etxanizek Jon Miranderi eta Andima Ibinagabeitiari adieraziko die Parisen gustura izango litzatekeela euskalgintzan euren ondoan; baina, haiek ez diote aurrerapenik emango, eta Donostian etsi beharrean izango da. Andima Ibinagabeitia Jon Miranderekin, Peillen anaiekin, Federiko Krutwigekin tarteka, eta beste banaka batzuekin elkartuko da Parisen, gehienetan beren etxean, Loiolako euskal akademiaren bertsio modernoagoa eraiki nahian bezala, noizean behin bekatuak egingo dituela Paris gogor bezain erakargarrian:

Lengo batean, apari eder baten ondoren, Rue Ponthieu'n, gure etxetik urbillean dago, zoragarritzogabats [sic] (puta antziñako euskeraz) arkitu nuen eta zazpigarren zerua ere ikus-erazi zidan. Txukuna, apaiña eta espiritualua zan...⁸

Hala aitortzen zion Jon Miranderi gutunetan; Nemesio Etxanizi berriz, zuen fedearen kriseilua olio beharretan zela aitortzen zion bezala.

Artean urrunxko ginen Ramon Saizarbitoriak, gagozkion hitzaurrean agertzen zuen gogo-girotik:

Gaur egun argiago dakusat idazlearen obra eta biografia disoziatu beharra. Justizia hori denborak berak egiten baitu. Era berean, ordea, eta dena esateko, ofizioak konpromezua eskatzen zueneko nostalgiak ezin abandonatu banau ere.

Ez zaigu damutzen ildo horretan barrena abiatua, egia esateko, kostatu bazaigu ere.¶

1. Ikus: *Esteban Urkiaga. Azalpenak eta beste 1932*, Prest.: Agurtzane Mallona, Klasikoak 48, Donostia, 1991: 180-184 or.
2. *Idazlan guztiak. 5. Liburukia*, Donostia, Erein, 1987, «De luchador socialista a líder nacionalista» eta «El Tírol, bajo el super-nacionalismo fascista»: 377-381 or.
3. Kortazar, Jon: *Euskal Literatura XX. mendean*, Zaragoza, Prames, 2000: 94-102 or.
4. Lapesquera, Ramón: *Sí me avergoncé de Diario de Navarra*, Iruña, Pamiela, 2003: 147-148 or.
5. Eskertzen diot Pruden Gartzia artikulua honetaz bidali didan gutun pertsonala. Besteak beste, honako azalpenak ematen dizkit: «zintzotasun intelektual minimo bat daukan edozeinentzat zure aurkikunde eta komentarioak munduko gauzarik naturalena dira, eta adierazten diguten gauza bakarra da 1930etako abertzaleen eboluzio politiko-intelektuala guztiz bat datorrela Europan segitu zenarekin, puntu bat bereziki azpimarratuz: abertzaleek demokrazia kristaura jo zuten argi eta garbi (Aitzolek, Lauaxetak, Lafittek...), eskumatar izateari utzi gabe (jakina!); aldiz, espainolistak eta frantses-zaleak, argi eta garbi faxismoarekin lerratu ziren (hori ere esan beharko da, ezta?)».
6. Caracasko *Correo del Pueblo* egunkarian argitaratu zuen. Datarik ez dut, baina gaiagatik 1964. urte hasierakoa izan behar du.
7. Sudupe, Pako: «Olerki erotikoak eta hauen ingurunea (1)», *Egan*, 1992: 39-77 or.
8. Markos Forkada azkoitiarrari, Parisen 1954ko urtarrilaren 29an. Handik hilabetetsura hartuko zuen itsasontzia Guatemalara joateko.

Euskal Kutxak: fusiorik ez



JENARO GARATE



Kutxak eta Banka

Uste baino arazo larriagoa daukagu gure Euskal Herrian: Banka eta Kutxen arteko harremanen sabaiean gure Kutxen bateratzearen ekimena.

Arazo sakona eta eragingarria, Kutxen izate eta jardunbide zeharo dibergenteak aukeratzeko unean baika-biltza. Horregatik, *denon bistan* egin beharreko aukeraketa da, aldeko eta kontrako argumentuak *erakutsiz*; eta *jorratuz*. Nire aldetik hautaketa honi buruz daukadan ikuspegi eskaintzera nator.

Arazoak berez beragan daraman eduki politikoa go-goan edukiz eta gaur arteko azalpenak irakurriz gero, argi dago eztabaida eta borroka bizia sortuta dagoela lurraldeetako talde eta alderdi politikoen artean. Fusioaren ondorioz nork eskuratuko aginte gehiago, nori egingo ote dion gehiago gorantz, hor gorabehera subjektiboa, benetan eraginkorra.

Nire ikuspegiak, aldiz, objektiboa izan nahi du. Hau da, Kutxen izanaren iraupena ala muin aldaketa hautatzeari lotua. Eta, ondorioz, hautaketa horrek hiru lurraldeetako gizakiengan eduki dezakeen eraginari begira, lehenbizi eragin ekonomikoari, baina baita ere bestelako herri

► **Jenaro Garate** ekonomialaria da.

ekintzei begira. Hau da, herritarrei aurrera eta hobera bultzatuko dien Kutxaren *izanari* buruz ariko gara.

Beraz, gizakia aipatzen badugu ez da izango taldekide edo alderdikide denez, gizaki denez bete-betean baizik, elkarren gogoko gizaki garenez baizik.

Makroekonomia

Arazoari sakonki eusteko, makroekonomiazko oinarrietatik hasi beharko genuke; baina, oraingoz, besterik ezean argibide gutxi batzuk ipiniko ditut begien aurrean.

Edozein erresumatan inbertsioen kopurua kontsumoaren kopuruarekin konparatuz urteetan zehar beherantz doanez (AEB eta nahi beste nazioen estatistikak lekuko), kontsumoa ari da bereganatzen diru fluxu gehienak eta handienak. Eta hau bi alderditik:

a) kontsumogai produktu eta zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresek gero eta diru fluxu askoz sakonago eta ugariagoak darabiltzatelako, inbertsiogaiez ari diren enpresek baino. Eta

b) kontsumitzaileek Kutxa eta Bankuetan uzten duten dirua (lansariak, pentsioak, irabaziak eta era guztietako aurrezkiak) delako finantza etxeetara sartzen den diru multzorik handiena; eta kontsumitzaileek eskatzen/jasotzen dituzten diru piloak (beste kontsumitzaileek aurreztuak) direlako kreditu gero eta handiagoen zatirik gero eta handiagoa.

Beraz, diru merkatuaren zatirik handiena kontsumitzaileen jirabiran eta ingurumarian zentratzen ari da. Banka konturatuta dago praktikan horretaz (ez oraindik makroekonomiak argitutako teorian). Eta hor bankari eta politikarien buruhaustea, nolatan heldu eta eskuratuko kontsumitzaile arrunten merkatu hori, ahalik eta zati handiengan. Adibidetzat, bankuak egiten ari diren propaganda eta lana etxe berri erosleei hipotekazko mailegu eskainka, bezeroak luzarorako lotu eta kateatu nahian, Kutxei kompetentzia bizia eginez.

Kutxak daude kokatuta, betidanik, diru merkatuko nitxorik handien, emankorren horretan; herritarrentzat ongarrienean. Eta hori horrela da, Kutxak, herritarren giza ekintzei lagundu nahian, bete-betean jarri direlako nitxo horren zerbitzuan. Hau da, lurraldeko herritarren harremanak direlako Kutxen finantza jardunen muina.

Eta nitxo (jardun-sail) hori izanik proportzioan gorantz doan nagusia, okerreko bidea da, argi dago, nitxo horretatik diru multzoak atera eta enpresen jabetasunak lortzera desbideratzea. Banka, bere aldetik, bestelako enpresa eragiketetatik kontsumitzaileen nitxora dirua bideratzen, eta Kutxak kontsumitzaileen nitxotik dirua enpresa handietako ospe eta diru-agintera aldentzen, oker handia da. Bide oker horretatik ibiltzeak ekarri du azken denboretan Kutxen finantza zatiak, bestelakoenekin konparatuz, gorantz ez egitea, beherantz baino.

Ekonomia

Atal honetan enpresei buruzko sorreran eta kudeaketan azaltzen diren jarduerak aipatuko ditugu. Hiru eragile klase agertzen dira enpresen munduan:

a) Enpresa sortu, jaso eta eutsi dutenen taldea. Horiek enpresa maite dute, euren edo gurasoen kreazioa da eta sarritan lan eta bizibide asmorik gehienak ipini izan dituzte ekintza horretan. Beti ere enpresa indartzen, edertzen, egokiago egiten saiatzen dira. Enpresaren alde jokatzuz lanpostu gehiago sortzeaz ere poztu egiten dira. Kontratatzan dituen zuzendariak ere giro horretan murgiltzen dira.

b) Garaian garaiko unean sortu ez duten enpresen goiburua egin diren gizakiak. Gaur egun duten helburu nagusia ez da enpresa bera hobetzea (gaurkoa eta etorkizuneko), enpresak merkatuan daukan unean uneko balorazioa igoaraztea baizik. Ez dute, berez, enpresa maite; baina enpresa gainean jarriz gero, bere eraginkortasuna eta balorazioa jasotzen saiatzen dira, eskuratu duten enpresaren zatia beste enpresa baten (edo diruaren) truke onuraz saltzeko egokieraren zain. Enpresa, unean uneko tranpo-

lin bihurtzen zaie gorago igotzeko: dirutan, kargutan, ospean. Enpresa saltinbanki bihurtuta ari dira.

c) Inbertitzaile izen gezurtiaz dihardutenak enpresen merkatuan, Burtsan. Inbertitzaile hitza ez dagokie inola. Espekulatazaile eta apustulari huts dira. Ez nabil horien funtzioaren aurka. Baina argi eduki behar dugu horiek ez dutela inola enpresa bat bera maite, ez dutela inolako ardurarik inongo enpresaren benetako izanaren alde; unean uneko kotizazioen (enpresaren itxuraren, truke balorazioaren) arteko gorabeheren arabera dihardutela partaidetzak salerosten. Biziki saiatzen dira erosi aurretik enpresaren balioa txikitzen (edo ustezko balio handiagoa isilik gordetzen) eta erosiz gero jasotzen. Espekulatazaile-apustulari hitza da dagokiena.

Horrelakoak dira gaur egun, orokorkean, batez ere enpresa handien goi-zuzendaritzan edo partaidetzan diharduten asko.

Baina beste erakunde ekonomiko batzuk ere ari dira lanean, Burtsan (enpresa merkatuan) azaltzen ez direnak, orain arte espekulatazaileen eskuetara zeharo jausi ez direnak: *Kutxak*.

Kutxen eta Bankaren izaera

Behar-beharezkoa da Banka eta Kutxen arteko izaera desberdina azpimarratzea. Bankuen arima hau da: irabazi. Horretan bestelako enpresa guztien pareko dira. Helburua, irabazi. Eta ez da helburu okerra, inola, baldin gizakiaren —maitagogoaren— nagusitasuna onartuz ari badira. Bakoitzak bere eginkizunean gero eta hobe, ederrago, handiago, eraginkorrago izatea nahi du; idazle, egunkari, langile, kirolari, aldizkari, irakasle eta bere kabuz diharduen langile orok bezala. Eta horretara bideratuta daude beren asmoak. Adibidez, enpresek zerbait egiten badute dohain herriko erakunde eta ekintzaren baten alde, marketing egin asmotan dihardute, irabaziei lagundu nahian.

Kutxaren arima zeharo desberdina da. Kutxen oinarritzko asmoa ez da irabaztea. Kutxen oinarritzko asmoa,

hasieratik, lurraldeko herritarrei aurrezten laguntzea da, eta aurrezkiak herritarren ekintzei diru babes emateko eginak izan ziren. Kutxek ere finantza egoera trinkoan jardun nahi dute. Baina diru harremanen jardunean esku-ratzen duten marjina ez da izango irabazia norbaitzuentzat, ekintza sozialetan zabaltzeko baizik. Eta horretan diraute, orokorrean. Herritarrei eta beren erakundeei laguntzea ez da izan marketing arloa, jardun guztiaren helburu baizik. Hori da Kutxen helburu eta eginbeharra. Gertaera kolateralak diren irabaziek ez dute beste eginkizunik herritarrei lasaitasun osoa ematearena baizik, argi utziz zuhur eta zuzen darabiltela eurengandik jasotako dirua; eta horrela jardunez sortutako etekinak ere herritarrei beren ekintza sozialetan laguntzeko direla.

Enpresek, orokorrean, beren izana indartu, edertu, handitu nahi dutela esan daiteke; ederki. Kutxak, aldiz, ez dabilta, zuzenean, beren burua edertze, handitze, indartze bila; ez bada era guztietako jardunetako diru arazoetan euren eremuko herritarrei hobeto zerbitzatzeko. Bi eratan lagundu: herritarrei, ahal dutenean, aurreztea erazteko (helburu oinarrizkoa garai batean, eta gaur ere uste baino garantzitsuagoa); eta edozein eratako ekintza edozein sailetan eragitea nahi duten herritarrei diru maileguz laguntzeko. Kutxek herritarren *bizitza osoa* piztea daukate helburu.

Esandakoen ondorioz, Kutxen eta Bankuen desberdintasun garrantzitsua hau da: enpresen giza jabeek eta goi-zuzendariak beren buruak aberats izan ginetik, ospedun, agintedun, eragile ikustea nahi dutela. Kutxek, aldiz, giza jaberik ez daukatenez, beren Erakunde ospe bakarra herritarren zerbitzari on izatean datzala. Hitz batez, arima zeharo desberdina daukatela.

Politika

Bankarien buruhaustea aipatu ditugu, nolatan heldu eta eskuratuko kontsumitzaileen jirabirako diru merkatu emankor hori, ahalik eta zati handienean.

Baina, gaur egun, gero eta argiago, politikariak ari dira muturra sartzen finantzan diharduten enpresarik handienetan: Bankuetan. Eta Banku handiak direnez, gehienetan, bestelako enpresa handien buru eta jaun, zeharka edo zuzenean; politikari nagusiak finantzen munduan ere buru-belarri sartuta ari dira. Eta hor datoz saltinbankiak, enpresaz enpresa saltoka ari diren enpresaburuak, politikariekin era askotara lotuta dihardutenak.

Bankuen gizaki fundatzaileak (eta gaurko enpresa handi gehienetak ere) galduz joan dira eskuan daukaten akzioen zatia. Gero eta akzio gehiago eta balio handiagoa daukate, bai; baina gero eta akzio guztien kopuru txikiagoa. Enpresaren arrakastak berak enpresaren kapitala handitzea eskatu izan du, eta fundatzaileek ezin izan dute batetik ondo bizi eta bestetik kapital zabalkuntzei eutsi beren zatiaren neurrian. Horregatik, beti daude salgai akzio multzo handiak diru-merkatuetan, gero eta handiagoak. Eta aukerak daude norbaitek edo norbaitzuek Bankuen Kontseiluetan sartu ahal izateko adina akzio eskuratzeko. Eta hori ari da gertatzen, batez ere kontseilari izateko baldintzak murriztu dituzten Bankuetan (akzio multzo txikia eta denbora motzean edukia aski eginez, adibidez). Baita ere enpresa publikoak pribatu egiterakoan politikariek goi zuzendariak izendatzeko izaten duten aukerez baliatuz.

Baldintza horietan, fusio eta enpresa mugimendu nagusietan, lege, erakunde politiko eta goi funtzionarioen artean hor ari dira goi politikariak, euren gogoko diren saltinbanki zuzendariak kontseiluetan ezartzen. Eta talde edo alderdi arteko borroka finantzariak sorrarazten. Sarritan ez duzu jakingo enpresaren zuzendari berria den politikariren esaneko, ala politikariak diren zuzendari horien menpeko. Edozelan ere hor sortzen da indar olatu izugarri bat, Bankuen kontrola irentsi nahian. Noiznahi alderdi politikoen eginkizun nagusien artean sartzen dena.

Keynesianismoaren koartada

Goi funtzionario eta politikariren profeta izan den Keynesek esana da:

Luzarora eta gizarte aurrerapen sozialean kapital ondasunen eraginkortasun marjinala kalkulatzeko egokieran dagoenez, inbertsioa antolatzen gero eta ardura gehiago hartzen ikustea espero dut Estatua.¹

Ezin esaera hoberik asma Estatuen itzalpean diharduten aginte-ospe bulimiadun politikari eta saltinbankientzat! Ekonomiaren goitik beherako eragiketa eskuratu, inbertsioen epaile bihurtu eta aurrerapen sozial onkorri ekin. Zer hoberik!

Baina hirutik bat ez.

1) Ekonomiaren bilakaera eskuratze-kudeatzea, lehenbizi, gaur bazterrik gehienetan nagusi den eta politikari eta saltinbanki gehienek onartuta daukaten esaera neoliberal nagusi honen aurka doa: «utzi gidaritzza merkatuari!».

2) Inbertsioen eraginkortasuna kalkulatzeko, aipatu ere ez, ez dutelako zentimo bat inbertitzen inon, inbertituta dagoen (enpresen) jabetzari buruzko apustueta buru-belarri sartu baizik.

3) Eta aurrerapen sozialaren ordez norberaren eta bere talde edo alderdiaren sakelara ahalik eta diru, boto eta jabe zati handienak lortzea daukatelako helburu.

Gaurko enpresa salerosketetan ez dago inolako enpresa sortze edo indartze asmorik, enpresen jabetasuna eskuratzeko agintea eta ospea lortzea baizik. Ez dago inolako inbertsiorik, eskutik eskura dirua eta jabe-zatiak aldatzea baizik. Hortaz ohartzeko, begira gaurko Opa, Fusio, enpresa Jabe aldaketei. Ez dago nor zeren jabe arazoa baizik. Saiatuko dira dauzkaten asmoei izenik eta estalperik erakargarrienak ipintzen. Baina jokoa nahiko garbi azaltzen da.

Globalizazioa eta ekonomia

Luze jardun daiteke globalizazioari buruz, herrialde txikietan zentralismo huts bihurtzen den globalizazioari buruz. Oinarritzko printzipioa globalizazioaren maila hauen hierarkia hautsezina da:

1) *Gizakien* askatasuna nonbait eta zertan nahi lan egiteko.

2) Giza askatasun hori lortuz gero, eginiko *produktu eta zerbitzuak* nonahi saltzeko askatasuna.

3) Gizakien askatasuna eta produktu-zerbitzuak nonahi saltzeko askatasuna bereganatuz gero, eginiko produktu eta zerbitzuen *diruzko jabetza* nonahi jaso eta ipintzeko. Alderantziz esanda: diru jabetzaren askatasuna, beti, eginiko produktu eta zerbitzuak nonahi saltzearen askatasunaren azpiko. Produktu eta zerbitzuen salerosi askatasuna (eta areago horien diru jabetzarena) gizakien giza askatasunaren menpeko.

Enpresen joera irabaziak lortzea da, eta dirua irabazteko diruaren askatasuna aldarrikatuko dizute lehenbizi. Kutxen joera herritarrei laguntzea da, eta lurraldeko gizaki soilei laguntzeko, gizakiek askatasunezko jardunean dauzkaten asmoak betetzen aritzea da. Dirua gizakiengandik jaso eta gizakiek erabil dezatela. Gizakiak dira helburu, dirua tresna hutsa.

Globalizazioak aurpegi asko dauka. Gure gaurko arazoan, ez dago dudarik Kutxen lana zeharo gizatiarra dela, gizakiaren askatasunari eta eraginkortasunari begira.

*P*olitikari eta enpresaburuen etorkizuna

Inork inoiz inon ez du enpresa bateratzen jardun, lanpostu gehiago sortzearren. Baina bai jaunpostu eta jaun-sari altuago eta boteretsuagoak eskuratzearren.

Euskal Herriko Kutxei dagokien proiektu horretan ere, kalkulu hori izan da eragile, nonbait, arazoaren erdi-erdian, bai politikari eta bai enpresa-zuzendarien artean: nork (alderdik, taldek edo banakok) zenbateko agintza lortuko ote lukeen sortuko litzatekeen Kutxa bateratu handi indartsuan. Hiru Kutxa berdinen batuketak, adibidez, hiru bider baino indar askoz handiagoa ipiniko luke goi zuzendarien eskuetan, ziur. Kutxa berriaren buruak ez lirateke bakarrik erakunde askoz ahaltsuagoaren zuzendari bihurtuko, eragile errespetagarriago edo beldurgarriago;

baita ere bereganatuko Kutxa batu horrek eskuratuko lituzkeen jaunpostu eta jaunsari emankor goragokoak, erosi ahalko lituzketen bestelako enpresen kapitaletan-eta. Kutxa bateratuen diru deposituak tresna hiru bider baino askoz handiago eta hobe izango lirateke enpresen jabeek Burtsan indartsu jokatu ahal izateko. Eta goi zuzendarientzat bankari handi bihurtzeko aukera tentagarria.

Ez dago on huts edo oker huts izango den ekintzarik, jakina. Horrelako boterea eskuratuko luketen gizakiek agintza biltzeak batez ere etorkizunean ekarriko lizkiguketen onurak erakusten saiatuko zaizkigu. Zatiaren zatiren bat egia izan daiteke. Baina ez dute aipatuko gizakien (herritarren) eskuetatik desbideratzearen kalte izugarriak. Merkatuen eboluzioaren alde jokatzetik (indartuz doan herriarekin bat eginda) kontrako sailera aldatzea (Bankaren jokalekura). Norberekeriak ilundu eta estali egiten dizkigu beste askoren esku egokietan datzan agintea baterazteak ekar ditzakeen galbideak, onuragarri azalaraziz.

*K*ultura, ekintza

Zenbat eta Kutxaren piramidearen gaina gorago, hainbat eta errazago bankuekin bat egitea; hainbat eta herriaren bizitza orokorretik urrutiago.

Kutxak erakunde finantzariak dira eta herritarren bizitza osoan murgilduta ari dira: ez bakarrik, adibidez, herritar enpresaburuei aurrera egiten laguntzen, baita ere, era batera edo bestera, kirol antolaketetan, jaietan, literaturan, gaixo eta ezinduen aldeko ekintzetan, herri bizitza den alor guztietan. Eta laguntza dirua doan emanez egiten denean ere, ez da izaten marketing asmoz, izate boka-zioak eraginda baizik.

Gogoangarria da era guztietako herritarren ekimenak oso eraginkorrak direla, baita ere, ekonomiagintza suspertzen eta indartzen. Zenbat eta gorago piramidean, esan dugu, Kutxak hainbat eta Banka eta politikari handien hurrago, herri xumetik aldenduago. Baina Kutxak herriar xumeak eginak dira, herritar soilen arnasaz bizi

dira. Guk egin ditugu Kutxak, gure bizitzako egoera guztietan, asmo guztietarako dirua prestatuz edo dirua eskatuz.

Eta euskara gure hizkuntzaz are gehiago hoztu eta urrutiratuko lirateke goiburuok. Konstituzioak erdara beharrezko egiten duen onartezin ediktua onartu/bedeinkatu egingo lukete eta gure euskara boto edo bezero tresna huts egin.

Fusiorik ez

Gure iritzia —zalantzarik gabe—, hau da:

1) *Herritarren eta herriaren ekonomiaren aldetik*

a) Ekonomia orokorretik begiraturaz, Kutxek bereganatuta daukaten finantza munduko sailik emankorrena eta eraginkorrena uztea, besteen jardun espekulatiboetan sartzeko, ergelkeria itzela izango litzateke. Kontsumitzaileen diru gordailuak erakartzeko giro, ekintza eta baldintza egokienei eutsi ordez, bestelako jardunetara ardura, lana eta herritarrentzat izan beharko lukeen dirua desbideratzea, Bankuek darabilten eta erakusten diguten kontrako bidetik. Horrela, bestelako finantza sailetan dabilzentzat Kutxen nitxora sarrera erraztuz.

Zeren Kutxa bakoitzaren diru-gordailu multzoa gaur ere banaka erakargarria baldin bada enpresa espekulatzailentzat, hirurak bat eginda oraindik askoz tentagarriagoa izango litzateke. Kutxak Banku eta Enpresen partaide egin, bai; baina Bankuak Kutxetan partaide ez, egoera eutsezina bihurtuko litzatekeela, Kutxen kaltegarri, berandu baino lehenago.

b) Euskal Herriko herritarren era guztietako ekintza ekonomiko eta bestelakoei bultzatzea murriztuz, kanpoko ekintza eta merkatuetako ardurak puztu. Gogoan eduki behar dugu behin eta berriz esana. Kutxak lortua jokaera honetan datzala, gehienbat: gizakiari berari, herritarrari berari lagundu bere ekintzetan, herriaren erakundeei ere lagundu aurretik. Hori da lurralde bakoitzeko herritarrak

bere Kutxara erakartzen dituena. Kutxari eman dioten dirua, herritarrentzat eta herriaren etekin helbururik gabeko erakundeentzat izatea.

Gogoan sartu behar dugu herrien gorakada ez datorrela bakarrik ekintza ekonomikoetatik zuzenean, baita ere bestelako ekintzek sortarazten dituzten era guztietako dinamiketatik ere.

c) Bestalde, fusioaren ondorioz lanpostuak gehitu ala gutxituko lirakekeen, ez dakigu. Fusioek, gehienetan, lanpostuak urritzea dakarte. Euskal Herritik kanpo sortaraziko omen lituzkeen lanpostu berriak, urrutiko intxaurrak. Hori bai, jaunpostuak eta jaunsariak (jabesariak lortezinak bazaizkie ere) loditu eta ugaritu, ziur.

d) Hasieran estatistikak aipatu ditugu. Jakin beharreko beste argi bat ere ematen dute, irabaziei buruz. Inbertsioarekin zeharo lotuta dauden enpresen sektorearen makrokontuan azaltzen diren irabaziak baita ere, inbertsioak bezala, beherantz doazela urteen etorrian, kontsumitzaileen diru sarrekin (lansari eta abar) konparatuz. Hor ere beste datu beltz bat azaltzen da: Burtsa puspuloaren eten arrisku handia.

2) *Gizartearen aldetik*

a) Mila herri ekintza bultzatzen dihardute Kutxek. Kutxak gizatiarrak dira. Gizakiarengandik abiatuz behar den globalizaziora irekiak, eta ez gizakiak globalizazioaren itsasoan itoarazteko. Fusioz bat eginik, Erakunde berriaren burua askoz urrutirago kokatuko litzateke herritarrengandik, gogoz, asmoz eta egitez. Galera itzela izango litzateke lurralde bakoitzeko gizartearentzat.

3) *Kulturaren aldetik*

Hainbat eta hainbat kultura laguntza eta bultzakada utziz, gure hizkuntza aipatuko dut bakarrik. Euskara gaur jasaten ari den lege negargarrietan bat hau da: zenbat eta boterepiramidean gorago jardun, euskara gutxiago erabili. Goi maila horietan beti ari da jokoan, beste inon baino errazago, euskaraz ez dakien talenturen bat, gutxienez. Erdaraz nahitaezko egin/onartu eta gero denok dakigun hiz-

kuntzan hitz egitea eskatu/inposatu, berehala dator. Fusioak euskararen galera itzela ekarriko luke Kutxen bizitzan, goitik beherako hedapenean. Badakigu euskara ikurrin bat dela politikari askorentzat: euskararen aldekoen —edo kontrakoen— botoak eskuratzeko. Baina euskaraz bizitzeko arnasarik ere ez. Konstituzio espainiarraren 3. artikulua zapaltzailea gure bizitzan gehiago errotzea ekarriko luke.

Jardunbidea

Ez dago norma argi, orokor, salbuespenik gabekoa asmatzerik. Baina Kutxen ibilbideak honelakoxea izan beharko luke:

a) Burtsan diharduten enpresen jabetza berriei uko egin eta herritarrei eta herri erakundeei prestatu, bai.

b) Enpresen jabetzan ezarrita dauden diru multzorik gehienak herri tarren eta herri erakundeen nitxora berriz bideratzen saiatu, bai.

c) Bere lurraldetik kanpo ez egin konpetentziarik ino-ri. Bai, jakina, bere lurraldeko herritarrei laguntzeko behar diren bulegoak eraiki.

d) Bankarekiko daukaten independentzia osoari eutsi. Bankak Kutxetan muturra sartzea eragotzi gogo betez, etsi gabe.

Beraz, nire iritziz, Kutxa-arima gorde eta zaindu, bai; enpresa-arima berria ezarri, ez.

Kutxen fusiorik ez. ¶

-
1. «I expect to see the State, which is in a position to calculate the marginal efficiency of capital-goods on long views and on the basis of the general social advantage, taking an ever greater responsibility for directly organising investment» (John Maynard Keynes, *The General Theory of Employment, Interest, and Money*, New York, First Harbinger Edition, 1964).

Teknopop, Teknozientzia, Teknohermetismo

*Kraftwerk, Devo, El Aviador Dro eta
zientzia-fikzioa*



JUAN BAUTISTA BENGOETXEA



Teknologia modako hitza izan zen, jantzi behar genuen marka.¹ Teknologia, gaur egun, erabilera arrunteko hitza da. Soilik aurrizki batzuek, «nano» esaterako, jartzen dute hura berriro lehiaketa-gunean. Baina ezer txarrik ez dauka hitz bat normalizatzeak; alderantziz, esango nuke. *Teknopopa* orain dela urte batzuk modan zegoen musika tankera bat adierazteko izena zen. Beti onerako ez, batzuek maitatzen zuten (tankera), beste batzuek ez. Are gehiago, batzuetan talko eta herpesaren eskutik agertzen zitzaigun. Hau da, ezer onik ez. Baina teknopoparen kritikari askok exajeratu egin zuen. Dena den, egia esanik, teknopopa ere desagertu egin zen, nahiz eta, «teknologia»rekin gertatu legez, «elektropop», «synthpop» eta beste horrenbeste izenen pean berpiztu den. *Hermetismoa* pentsamendu korrontea eta jarrera bitala izan zen garai batean; batzuetan errespetatua. Egun zaborra dirudi. Hailere, «tekno» markako makillajeak kiratsa ezkututzen dio. Edo horretan saiatzen da.

Hain kirasdun mantentzen dira ere, «nolabait esateagatik», ertainetako institutueta laborategiak Estatu Ba-

► **Juan Bautista Bengoetxea** Colorado School of Mines eta University of Colorado at Boulder-en irakaslea eta ikerlaria da.

tuetan —eta ez naiz ausartzen beste tokietakoei buruz ezer pentsatzen—. Beno, «lizunduta» esan dezagun, *National Research Council* estatubatuarren 2005eko abuztuko txostenak esan bezala.² Leio gutxi batzuetan, laborategi askoren egoera latza ez ezik gauza interesgarriago bat islatzen da izkribu horretan, alegia: zientzia eta teknologiari buruz dugun irudiaren bizitza (edo moral) bikoitza. Kontuan izanda zinema, literatura eta teknozientiaren inguruko estetikak bide oso egokiak direla gazteak zientzia ikastera erakartzeko, aspalditik baliabide ugari jarri dira zientzia eta teknologiaren irudia ezin hobeki hautematen duten kontsumorako produktu onak sortzeko. Eta, egia esan, produktua bikainak dira askotan. Ez naiz ari pentsatzen soilik espazioko lorpen ongi telebisatuetan edo Spielbergen pelikuletan. Denon ahotan daude «krimenaren eszenatoki»ko telesailak, *CSI*en tankerakoak, adibidez. Horiei esker, ikasle askok zientzi eta auzitegi-lanetan jarri dituzte beren begiak. William Petersen-en aurpegi izukaitzak eta begirada hotzak arreta piztu dute pertsona askorengan. *Agent Scully* eta bere mantal zuriak beste horrenbeste 90eko hamarkadan. Eta produktu mordoa, ez denak *X Files* edo *CSI* bezain onak, datorkigu laster.

Horrek ematen digun teknologiaren perfekzio, garbitasun eta argitasun irudia galdu egiten da, alabaina, institutu eta unibertsitate askoren laborategietan; hau da, zientiaren errealitatearen alde garrantzitsu batean: *hez-kuntzan*. Irudi hori irakasle askoren gaitasunik ezaren atzean ezkutatzen da, ez baitakite argi zein den ikasleei egitera behartzen dituzten saioren helburua; ez baitituzte ikasle horiek eztabaidatzera bultzatzen —hori filosofoen gauza da, dio zientzietako irakasle «sasi-zientzialari» askok—; oso modu eskasean ilustratzen baitute zientiaren metodoek ezagutzara nola eraman gaitzaketen. Bagenekien han eta hemen laborategi txarrak daudela, baina ez gehienek ez dituztela kontuan hartzen hezkuntza zientifiko eraginkorraren oinarrizko printzipioak. Horrekin batera, egia da baita ere irakasle asko ez dagoela prestatuak laborategi bat zuzentzeko, eta haien azterketek —curriculumak behartuta— ez dutela apika estimatzen ikasleen abi-

lezia praktikoa. Hau da, laborategiko ezagutza praktikoa ez dute ezagutza legez ikusten, soilik osagarri legez baizik. Eta latzena: «artista» ugarik inork ulertzen ez dituen produktuak sortu bezala —«absurdo» edo «lan ireki» etiketen pean ezkututzen direnak—, zientzialari eta teknologoaren artean ere beren zereginari buruzko *nahastea* suma daiteke. Eta argitasunik gabe ez goaz urrutira. Beren irtenbide arruntena: errua ikasleena da.

U2 musika taldearen jarraitzaile dezentek, Donostian hura ikusteko aukera izan zutenek (2005eko abuztuaren 9an), aho batez kontzertua *bakarra* izan zela zioten. Kontzertu berezia, «niretzat», «zuretzat» egina. Baina talde horren *n*-garren kontzertua zen aste berean. Tamalez, gehiena ez da bakarra, ez da berezia, aipaturiko zentzuan. Mediku 'publikoak' gaixoak zenbakiak bailiran ikusten ditu; kontsulta pribatuan tratua 'berezia' da, «autentikoagoa». Kontsumismoak «serie-produkzio»ra garamatza: «gauza beraren gero eta gehiago, ez gauza berriak», «hurrengo mesedez?». Zentzuak ez du zentzurik. Zientzia eta teknologia espedientea betetzeko, gaizki zuzendutako gastu publikoak, zentzurik gabeko artea, kate-produkzioa: telebista saio bera eta berdina nonahi, egunkarietako zutabe errepikatua nonahi, iragarkiek inposaturiko *casual* modak, giza-harreman prefabrikatuak. Jaio eta inork igarri barik hiltzeko, aurrera ihes eginez. Eta gainera barre egiten diogu *zentzuren* bat bilatu nahi duenari. Hain anakronikoa al da zentzuaz galdetzea?

Badaude filosofiak zentzu eta esanahiak ukatzen dituztenak. Modako pentsamendua askotan. Zaborra gehienetan. Pentsalari on batek eta Nuyorican pobre batek badute gutxienez gauza bat komunean, alegia biek ospa egiten dutela Adidasko —edo beste edozein markako— *cool-hunter* (moda edo joeren ehiztari) delakoen ingurutik. Alde egite horrek, dena dela, jakinduria eskatzen du, jakinduria kognoszitiboa eta baita ere moralak. *Wannabæz* —modan dagoen edozertan kosta ahala kosta parte hartu nahi dutenak— beteriko mundu honetan badirudi edozein doala ospearen atzetik, ospe publikoa edo ospe profesionala bada ere. Lan onaren orde, gehienetan, kaleko autografoak

nahiago. Hortik aldentzeko, hortaz, borondatea eta jakinduria behar ditugu. Baina esanahia, zentzua, moralak, autentikotasuna eta antzekoak ez dira probetxu ederrekoak merkatuaren jokoarentzat (ikus Taylor 1991). Zeren probetxuzko bihurtzen badira, orduan zaila da horiek bere horretan mantentzea. Akaso izan daiteke ezer autentikoa merkatuan? Askok dio inor autentikorik ez dagoela. Ongi, baina badaude autentikoagoak eta ez hain autentikoak direnak. Joerak, tendentziak, *cool* den hori eta abiadura batu egiten dira 'maltzurki' kate-produkzio baldarra sortzeko. Pneumatikoak, ogiak, torlojuak, margolanak, filmak, sexua, iritziak, maitasuna, ideiak, gizakiak, pobrezia, aberastasuna, abereak, landareak. Den-dena katean. Teleberri bera bi egunetan segidan. Langile espezializatuak eta ez-espezializatuak. Badago non edo nora ihes egiterik?

Giza-faktoreari buruzko diskurtsoa edonon dago, baina faktore hori ia-ia ez da inon praktikan ikusten. Badaude alabaina joera filosofiko batzuk gizaki bakoitzaren garrantziaz mintzatzen ari direnak berriror, gizaki bakoitzaren *benetakotasunaz*. Baina joera horiek beste joera batzuk dituzte aurrez aurre, kontrakoak: bizitzari, produkzioari, gizarteari, zientzia eta teknologiari buruzko istorioak kontatzen dizkigutenak ezkutuko tonu arraro batean. Joera *hermetikoak*, esango nuke. Lehenbizikoek, ez-hemetikoek, badirudi egungo munduan gizakiak betetzen duen rola nahi dutela ulertu. Eta betebeharrak horretan heldutasunera nahi gaituzte bultzatu, helduak garelako onartzera. Batere berria ez den presioa, halere. Jada Kantek hori eskatzen zigun hala *Was ist Aufklärung?* (*Zer da Ilustrazioa?*) nola *Kritiketan*: guk geuk, gizakiok, pentsatu eta erabaki behar dugu. Egun, haatik, modu berriak agertu dira gauza bera adierazteko, modu postkantiarrak, zapora berezia dutenak, erakargarriagoak literaturaren ikuspuntutik, akademiatik harago joan daitezkeenak jerga filosofiko oro —oso hermetikoa ia beti— gaituz.

Horrek denak, arraroa iruditu arren, zerikusi handia du panpinekin, bikarioekin, gizakien ordezkoeekin. Eta azken horiek, era berean, hermetismoarekin, jakina. Gaur egun erlijioa inspirazio artistiko irekiaren iturria da, eta,

alderantziz, arte eta entretenimendu produktu askok moralista eta erlijio berri ugari elikatzen dituzte, eta ez hain zuzen bere zentzu sakratuenean. Artea eta literatura —batez ere zientzia-fikzioan, misteriozko idazkietan eta beldurrezko narratiban— kosmogonia desberdin ugari eta panteoi asko ari dira biltzen erlijio berriak inspiratzeko, batik bat *New Age* tankerakoak (Nelson 2001, vii. or.). Eta hori, hain ar a roa dirudiena, guztiz hedatuta dugu Mendebaldean, non munduko kontzepzio alternatibo berriak gero eta mistikoagoak diren, ez-razionalak, supernaturalak, sasi-erlijiosoak. Sinestunek badute euren jainkoa(k); erlijioz ateo direnak, ordea, hasi dira sinesten sinesteko oso zaila diren gauzetan. Zientzia-fikzioaren irudi-multzoari esker, zientzia eta teknologia *haragoko* sinesmen-objektu ari dira bilakatzen. Haragokoa, baina zer muga izanik buruan? Gizatasuna. Sinesmenaren objektua ez da jada jainkoa, baina ezta gizakia bera ere. Zerbait ez-gizatiarra da. *X Fileseko* ‘atzeko trama’n ederki igar daitekeena, edo *CSIko* ‘perfekzio’ jainkotiar horretan. Baina laborategiak, inperfekzioak, ‘aurreko trama’, hori guztia gizatiarra da goitik behera. Alde ezkutuen asmatzaileak ahazteko ordua da, beraz.³

Zientzia-fikzioa, cyborgak eta hiritar arruntak

Moderniaren aurreko ideia asko indartsu birsortu ziren XX. mendeko filosofian, estetikan, literaturan, artean eta zientzia-fikzioan, besteak beste. XXI. ean inposatzen ari dira. Itxura razionala, zientifikoa, dakartzate, hobeki uler dezagun gure ingurua. Edo horrela diote ideia horien babesleek. Baina ez pentsa janzkera ‘zientifikoa’ hori duen inposaketa hori lehengo mundu shakespearearra edo amets calderoniarra denik. Gauza burutsuagoa da, gu konturatu gabe intentsitate txikiko paradigma zabala. Nelsonen arabera (Nelson 2001, viii. or.), mendebaldeko kultura bere materialismo zientifikoa —edo positibismoa, beste batzuentzat— berregokitzen ari da idealismo platoniko berri bati tokia zabaltzeko.

Badu zentzurik horrelako sasi-konspirazioak? Ikus dezagun. Sekulartasunaren alde publikoan, hau da, gure

egungo mundu materialistan, transzendentaltasuna ezkutataturik eduki izan da; asko jota, erlijio-adierazpenaren esparruan izan du toki lasaiagoa. Ondorioz, artearekiko eta, batez ere, teknozientziarekiko *gurtzak* ordezkatu ditu idazki sakratuak eta errebelazio zuzena. Errealitate transzendente batean nahi badugu *benetan* sinetsi, mendebaldean behintzat ez gara erlijioaren ateak joka hasten; orain orakulua *teknozientzia* da —erlijioarena beharbada beste gauza bat da, alegia, sinetsi ‘nahi’arena—. Sendagaietan *sinetsi* egiten du jende arruntak; teknozientiaren emaitza gehienetan *sinetsi* egiten du jende gehienak; etorkizuna teknozientiaren esku dagoela da sinesmen arruntenetari-koa gaur. Gauza transzendentalez pentsatu edo hausnartzeko genituen bultzadetariko ugari, lehenak erlijioak bideratutakoak gehienetan, orain bi modu espektakularren bidez zuzentzen dituzte supematuraltasunaren ildotik: bata, literatura eta arte fantastikoa; bestea, izen arraroxamarraren duden *teoriak* eta *mundua ulertzeko kontzepzioak* (‘zientifikoak’, beren sortzaileen aburuz). XX. mendean barrena ongi sartu arte, hori dena *grotesko* —*grotto*tik: leize— zena-ekin eta *deabuzko* sinesmenekin lotzen zen. Arima hilez-ko giza-simulazio legeaz agertzen zitzaizun: txotxongiloak eta panpinak. Egundena sofistikazioz bete da eta *cyborgak*, ordenagailu hiper-adimentsuak eta robotak erakusten dizkigute. Den-denak leize horietatik etorritakoak dira, hale-re; lur azpiko mundu paralelo horietatik.

Ikus daitekeenez, XX. mendean mundu fantastikoak zientzia-fikzioan, beldurrezko literaturan, tebeotan eta, nola ez, zineman sartu ziren bete-betean. Zientzia eta teknologiaren eskutik, gainera, *materia-espíritu* lehia klasikoa ahaztu eta filosofian hain gogaikarri izan den *mundu erreala-itxurazko mundua* dikotomiaren inguruan hasi zen zientzia-fikzioa giza-ingurunea kategorizatzen: supematurala benetako errealitatea izanik; teknozientiaren —edo horren asmakizun ideal baten— hizkuntza izanik balioduna; lehenagoko erlijio-mitoak egungo gurtza berri bihurtuz, baina jainkoen ordez «alien»ak erabiliz. Zientzia-fikzioaren irudi-multzo teknozientifikoak, beraz, lehendabiziko *pulp* amerikar aldizkari, liburu eta filmei esker hartu

zuen paregabeko indarra XX. mendean. Teknozientiaren i rudia, berari buruz jakin eta ikusten duguna, orduan, ez da soilik testuliburueta eta eskolan ikasi duguna, edo, ikuspuntu kritikoago batetik, filosofoek, soziologoek edo ekologistek esaten digutena. Badago zerbait gehiago artearekin zerikusia duena eta jendearengana errazago hel daitekeena: *inudi-multzoen* sorrera, alegia. Nolako tokia lortu du teknozientiak irudi-multzo horietan barrena? Nolako da bere «mundu horietan izatea»? Jauzirik ba al dago *CS*ren i ruditik Batxilergo Institutuetako laborategien inudira?

Teknohermetismoa eta naturaren ispilu txikituak

Bi joera filosofiko proposatuko ditut teknozientzia eta zientzia-fikzioaren —lehenbizikoaren irudi-multzoaren modu garrantzitsuena, azken batean— arteko erlazioa ulertzeko. Bata abstraktuagoa da gai horri dagokionez; bestea, zuzenagoa, teknozientziaz, horren irudi-multzoaz eta teknohermetismoz hitz egiten baitu. Lehenbizikoa batez ere atzerrian jorratu da; bigarrena, neurri handi batean behintzat, Euskal Herrian bertan:

(A) *Esentzia metafisikoen aurka*. Heideggerrek teknologiari eginiko kritika berreskuratzen du joera horrek,⁴ hura indartu nahian metafisikaren eta esentzialismoaren aurkako hausnarketa anitzetan. Mendebaldeko filosofia dualismoz beterik agertu zaigu ia beti, eta hain zuzen joera hori haien aurka doa zuzenki, batik bat *azalekoa-sakona* edo *itxurakoa-benetakoa* (*esentzia*) dikotomien kontra. Nietzsche (*Tragediaren sorrera*) eta pragmatista amerikarrak izan dira gehienbat joera horren izen nagusiak, esaterako John Dewey XX. mendeko lehenbiziko hamarkadetan edota Donald Davidson, Michel Foucault, Nelson Goodman, Ian Hacking, Don Ihde, Larry A. Hickman eta Richard Rorty azkenengo hogeita bost urtetan.⁵ Azken hori da gogorren kritikatu duena filosofiak, batez ere epistemologia modernoak, jorratu duen munduaren ikuskera polarizatu hura: gu, gizakiok, *versus* natura, mundua. Gizakiok tresna kog-

noszitiboak erabiltzen ditugu (teoria zientifikoak batez ere) mundu 'erreal', mundu horren 'esentzia' islatzeko. Ezagutzarako tresna horiek dira gure ispiluak, eta helburua *ezagutza* bera, dio filosofo modernoak edo postcartesiarrak.

Zer dio Rorty antimetafisikoak? Lehenik eta behin, gizatiar ez den hori guztia ahaztu egin behar dugula, eta ahaztu ez soilik filosofikoki, baizik eta baita gure existentzia arruntean ere. Ahaztu eta ukatu behar dugu mendetan zehar gu babesteko, laguntzeko, beldurtzeko, mehatxatzeko, bizitza emateko, heriotza emateko existitzen zela uste genuena. Orduan, bigarrenez, Rortyk zera azpimarratzen digu: *hor kanpoan* izango bailitzan uler dezakegun edozein *egiaren* ideia bertan behera uzteko. Hau da, gure baitatik at, gure gogamenetik at dagoen naturak, esentziak, jainko ugariak, deabru groteskoak, edota zientziak aurkituriko egitura sakonek ez dute balio handirik gure egungo mundua ulertzeko. Hitz horiek guztiek hiztegi bat osatzen dute, zaharkitua jadanik, eta hura ordezkatzeko ordua heldu zaigu.⁶

Epistemologia modemoaren arabera, gizakiaren lan garrantzitsu bat esentzia horiek, Egia, bilatzean datza. Hau da, *Ezagutza* zer den jakitean.⁷ Gaur egun zientziak eta teknologiak bermatzen duten lana. Lehenago Jainkoa baldin bazen giza-ikerkuntzaren helburu nagusia, ikusten ez genuena baldin bazen 'errealitatea', Platonen leizeko biztanleak transzenditzen zuena baldin bazen benetako mundua, orain, zientzia eta teknologiari esker, azken horiek sorturiko eta aurkituriko item puruek, a-historikoeak, esentziales, gizatiarretik harago daudenek osatzen dute errealitatea. Esentzialisismoak, hortaz, mozerro berri bat jarri du.

(B) *Teknohermetismoaren aurka*. Aurreko ikuspegi filosofikoa hemen aipaturikoa baino korrante gehiagotan hedatu da,⁸ baina soilik bigarren bat interesatzen zait hemen, batez ere teknologien inguruko hausnarketaz arduratu delako eta, gainera, modu oso ausartan. Andoni Alonso eta Iñaki Arzoz (2002, 2004) dira haren euskal euskariak, teknohermetismoaren aurkako bi frankotiratzaile tinkoak. Horien ustez, hermetismo horren jantzi berriak *digitalis* -

moaren sinadura darama, modako azken urratsa. Eurek esan bezala:

Teknozientzia eta teknokulturaren irudi bizarroen leku-gara gaur egun. Horien artean teknozientzia ahalguztidun eta nonahiko bat erlijio sasizientifiko berria bailitzan proposatzen diguna da kezagarriena. Zientzialari, intelektual eta artista kopuru gero eta handiagoa ahal duen urrutien ari da joaten, ziber-espiritualtasun mota baten alde. Esaten dute konbentzitura daudela azkenean gizatiarrok Paradisua topatuko dugula mirarizko tekno-aurrera penei esker. Aurrerapen horiek tradizio hermetikoaren mitoak ere ekarriko dituzte, esaterako ziber-gorputza eta hilezkortasuna eta, batik bat, jainko artifizial eta birtual baten sorrera. Erlijio modu berri horri *digitalismo* esaten diogu informazioaren teknologiekkin eta Internetekin duen erlazioa dela eta, baina baita ere antzinako Kristautasunarekin duen antzagatik eta globalizazioaren inguruan duen ideia dela-eta. Digitalismoaren barne-filosofiari 'tekno-hermetismo' esaten diogu; horrek razionalismo zorrotzaren, erlijio esoterikoen tradizionalismoaren eta zientzia-fikzioaren ideien nahastea barneratzen du (Alonso eta Arzoz 2002, 133hh or.).

Irakurketa horren arabera, gizarte garatuek duten arazo sakon bat hauxe da: bertako biztanleek gizateria arakatu duen konstante baten aldagaien duten konfiantza, alegia, supra-gizakiaren mitoekiko konfiantza. Kasu hone-tan, sasi-erlijio zientifistarekiko ia itsua den konfiantza, *digitalismo*arekikoa, non soilik burutsuki behatuta ikus baitezakegu lerroarteko «I wanna believe» ikurritza (Arzoz 2004, 100. or.). Atzean, edo aurrean, adituak agertzen dira, zirkuluetan barrena, 'Zientziaren Eliza' antzekoren bat eratzen ari direla beren kredo dogmatikoki azaldu eta diziplina zientifiko askotan hedatu nahian —esaterako, ziber-teknologietan, Adimen Artifizialean edo bioingeniaritzan— (*ibid.*, 101. or.).

Nola era daiteke, eta nola diseinatu, horrelako estrategia ideologiko bat? Ala akaso dena konspirazio-paranoia bat ote da? Jeinu eta eroaren arteko mugarekin gertatu bezala, paranoiaren eta susmo zorrotzaren arteko muga ere oso mehea da. Eta uste dut kasu hori susmo-kasu bat

dela. Modu desberdin batzuk daude estrategia diseinatzeko, teknozientziak berpizturiko halabeharrezko mito batzuetan oinamitutako lau sinesmenetan laburbil daitezkeen arren:⁹ (i) *hilezkortasuna*, (ii) *cyborg* ikonoa, (iii) *utopia* teknologikoak, eta (iv) aurrerapen teknologikoei esker lortuko dugun *orientasuna*. Naturaren ispiluaren antzera —egia, ezagutza, gizatiarra ez denaren antzera— eraturiko teknohermetismoaren mitoen aurrean gaude hemen:

(i) *Hilezkortasuna* edo *mito jainkotiarra*. Bidaia batean barrena aurkituko dugu geure burua, baina buru hori teknifikatuta dugula. Ez da ilargi edo Marterainoko bidaia, ezta urrutiko izarretara ere, denboran zehar egingo dugun bidaia baizik. Berari esker, guk, dagoeneko gizaki ohiok, denboran atzean geratuko diren gizaki atzeratuak desagertzen ikusiko ditugu. Azpijainkotiar den guztia deuseztatu egingo da. Hortaz, gure hurrengo helburua orain gure giza-mugetatik ospa egitea da. Eta horretarako teknologia behar dugu. Ehun urte edo gehiago bizitzeko makinak, kriogenizazioa, hilezkortasun tekno-judeokristaua.

(ii) *Cyborg ikonoa* edo *gorputzaren mitoak*. Zer irabazten dugu gorputz ustelkor bat izanda, mundu teknologiko berria perfekzio teknologikorantz abiatzen bada? Mitoak zera diosku: urrutira begira, izaki espiritualarengana, entitate birtualen arteko nagusiarengana. Gure ordezkari hoberenarengana jo dezagun, hots, *super-gizaki*arengana, zeren bera izango da zibermundu berrian bizi ahal izango den bakarra. Sor dezagun, beraz, zibergorputza; laster izango gara *cyborg*-haragia, gero eta perfektuagoa izango den okela hilezkorra (Haraway 1991, 149hh or.).

(iii) *Utopia teknologikoak* edo *betiko arkitekturak*. Hiri perfektu berriak? Jainkoarenak ala deabruarenak? *Teknosburgo* irakiten? Diseinuzko etxeak, argiak, oso praktikoak. Dena futurista: kaleak, parkeak, hiriaren arkitektura. *San Teknosburgo* apika? Ala *Teknogrado*? Mito espazio-teknologikoak lau dira: *hiri sakratua*, *tenplua*, *Adanen etxea* eta *ma-goaren gordelekua* (ikus Alonso eta Arzoz 2002, 191. or.). Mito horrek zaborrik gabeko hiria aurreikusten du; ez zarama ezta arratoiak ere, birtuala eta adimentsua; museo zosita eta egunero meza San Tekno aurrean.¹⁰

(iv) *Zoriontasuna, teknologia eta ezagutza osoa*. Praktika, ezagutza eta zoriontasuna. Nahiz eta hirukoa bere idealetik urrun izan egun, zientzia-fikzio hermetikoak mezu mehatxatzaile baten alde egin du apustua: edo teknologian sinetsi, hura eta bere ondorioak garatuz, edo mesfidantza erakusten diogu, baina gizaki mugatu legez jarraitzen dugu geure burua arrastatzen. Utopia ala distopia? Dilemaren aurrean, jakina, teknohermetikoek nahiago dute Eden teknologikoak proiektatu, bakoitzak bere adorea emanaz erlijio-hitzaldi digitalista eta guzti.

Alabaina, nola sinets dezakegu teknologia bezain uki-garria den gauza batean oinarritzen diren mito *prima facie* hain ukiezinetan? Hemen zientzia-fikzioak zeresan handia du, doktrinamendu eta dibulgazio hermetikoaren estrategiaren baliabide ezin hobia delako.

Herri-kultura eta agindu teknohermetikoak

Zientzia-fikzioa ez da goi-kultura, ezta izan beharrik ere. Tele-predikua ere ez da. Hauteskunde-kanpaina ere ez da goi-kultura, baina alderdi politikoek ez dute azken hori behar. Gauza konbentzitzea eta saltzea da, kosta ahala kosta. Beraz, kontsumo errazaren patroien barnean diseinaturiko zientzia-fikzioak —diseinatzailearen ideologia heda dezan— ez ditu zertan onartu behar goi-kulturaren edo ikusmolde kritikoaren irizpideak. Halere, horrek ez du nahi esan zientzia-fikzio orok hermetismoak agindutakoari jarraitzen dionik. Zein agindu dira horiek, haatik?

Lehenago aipaturiko mitoeekin dute zerikusi handia. Ikus ditzagun hiru ezaugarri:

(i) Guk behinolako irrazionalismo magikoan sinestea nahi dute teknohermetikoek, orain irrazionalismo hori itxura ziberkulturaleraz trabestituta egon arren. Irrazionalismo sasi-erlijioso da, teknologiak unibertsoa menpean duela dioenarekin ados dagoena, baina teknologia magia edo zerbait misterioitsu legez ulertuta. Horra hor adibidez *Star Wars*en sasi-mistizismoa edo *The Matrix*en balizko filosofia. Geldi gaitezen pixka bat azken horrekin.

Deborah Knight eta George McKnight idazleen iritiz, *The Matrix* filmak Hollywoodeko edozein genero-sailkapen apurtzen du (Knight eta McKnight 2002, 188hh or.). Zuzena. Hortaz, ezin gaitzeko hartaz mintza hura zientzia-fikzioaren kasu arrunta bailitzan eta kito. Hau da, kritikariek zerbait gehiago nahi digute esan: alegia, *The Matrix* filma, narratiba-mota desberdinak iragazteaz gain, sakona dela, filosofia dela. Ez doaz oso urrutira,¹¹ jakina, baina zer filosofia motari buruz ari dira? Argi eta garbi laburbiltzen dute:

Ikasleek agudo ikusten dituzte paralelismoak Platonen leizean atxilotuek nabaritzen duten irudimenezko munduaren eta Matrixek zorroetan harrapaturiko gizakien artean. [...] Neok dena ametsa ote delako hausnarketaren inguruan hasieran duen nahasketa ere agudo erkatzen dute Descartes-en «Lehenengo Meditazio»ko Ametsaren Hipotesiarekin (*ibid.*, 189. or.).

Filosofia puri-purian, baina, hain zuzen, egokiena hermetikoa dela baieztatzen duen ikusmolde klasikoaren ildotik. Anti-esentzialistek preseski hermetismoaren adibide goren gisa ikusten duten filosofia mota bat; eta, esan bezala, bi zutabetan oinarriturikoa: bata, dualismoa; bestea, ezagutzarako azken oinarriaren bilaketan behin eta berriro aritzea. Azken oinarri hori arazoimenaren epaimahaia litzateke, egiaren epaimahaia; egia zer den eta zer ez den agintzen duena, gizatiarra ez den zerbait, *Diseinu Adimentsuaren*¹² sustatzaileek behar dutena erabat:

‘Egia’ deituriko ikerketa modu goren bakarra legoke azkeneko justifikazioa bezalako zer edo zer balego —Jainkoaren aurrean eginiko justifikazioa, edo arazoimenaren epaimahaiaren aurrean, giza entzuleek osaturikoaren bestelakoa hain zuzen—. Baina horrelako epaimahairik ezin da existitu. [...] Putnamek ‘Jainko-begiaren ikuspuntua’ deiturikoa eduki beharko luke epaimahai horrek [...]. Ezin dugu jarraitu epaimahaiaren ideia horri zentzurik ematen (Rorty 1999, 38. or.).

Platon, Descartes, *The Matrix*, Agent Malder: egia hor kanpoan dago.

(ii) Horrekin guztiarekin batera, modu akritiko bat dago, ia integratua, globalizazioaren inguruko teoriak edo hipotesiak erabiltzen dituen lelokeria handi bat sofistika-zioz jantzi nahian: hots, globalizazio ekonomiko arrakastatu baterantz hurbil dadin, munduak nahitaez teknologia berrien ildo jarraitu behar duela esaten duena. Behar bada egia izango da, baina zitala eta laidogarria da munduko populazio gehienarentzat. Areago, teknohermetismo itsuaren garapenerako hazkuntza-likido aproposa da, komunikazio globalaren —telebistak, Internet, sakelako telefonia— *premiaren* ideia erakartzeko eta sustatzeko karnata.

«Zerbait txarra al dauka horrek guztiak?», galdetuko du batek baino gehiagok. Galderak ongi erakusten du ergelkeriak ere milaka aurpegi dituela. *Teorikoki*, teknologia eta komunikazio berriek aurrerakuntzarako aukera ugari i rekitzen dituzte; *izan ere*, beste asko ixten dituzte, eta horiek ere eskubidea dute existitzeko. Globalizazioa, ez dezagun geure burua engaina, ez da elkarrekin bizitzeko, ez da bizikidetzarako zerbait, kontsumista baizik. Mendebaldean ez gara ari gizakiei zuzendutako bizitza-estilo teknologikoa bilatzen, diruari zuzendutako hiper-teknologiko bat baizik. Bizitza kontsumoak neurtuko du; eta zenbat eta kontsumo gehiago, hobeto (*kontsumismoa*). Frenetikoa¹³ behar du izan giza-bizitzak, hausnarketatik aldentua, kontsumorako *fast think*. Arribista edo goranahia ote da hemen zientzia-fikzioa? Ideologia horren alde erabilia da? Neurri handi batean, bai. Horrek hirugarren puntura garamatza.

(iii) Zientzia-fikzio berrian bi korronte mota nagusik egiten dute bat argi eta garbi hermetismo doilorrenarekin. Bat ia ez-kaltegarria dela esan genezake, *naïve* bere helburuetan, begien bistatik ezkutatu behar ez den arren. Frank Tipler fisikaria (*The Metaphysics of Immortality*, 1996), Richard Dawkins¹⁴ bitxia edo Philip K. Dick¹⁵ 'berpiztua' bezalako buru sukartsuek ezagutarazi duten korronte fantasiatsuan kasua da. Lehenbiziko biek eta hirugarrenaren jarraitzaileek, denek dute izendatzaile komun argia, alegia, goian aipaturiko mitoetan sinesten dutela hain zuzen.

Beste korrontea, aldiz, anbiguoagoa eta ariskutsuagoa da; seriotasunaren kaparen azpian kamuflatzen da:

zorrotza dirudi, berritzailea, benetako ikerkuntzaren antza du. Bere izena, Beeltzebub-arena legez, pluralean esaten da. Modan dauden bi: *nanoteknologia* eta *bioingeniaritza*.¹⁶ Baina ez gaitezen nahasi: badaude benetako zientzia diren eta errespetu osoa merezi duten nanoteknologia eta bioingeniaritza. Arazoa horien jarraitzaileekin sortzen zaigu; hau da, dibulgatzaile batzuekin, zientziaren sozio-analistekin, modako joeretara hurbiltzen diren akademiko arribistekin. Baina baita ere beren karrerak ‘bide arin’ batetik zuzendu nahi dituzten zientzialari batzuekin. Estetika ziberpunk pixka bat eta espekulazio gogor sorta batzuk nahastaten dituzte, ondoren kultur gunetan hitzaldiak eman eta edonola argitara ditzaten. Mundu eroso, egia esanik. Eta, gainera, jendeak, arte herrikoiak eta dibulgazioak onartzen dutela dirudien *think tank* berri bat antolatzen ari dira gutxinaka.¹⁷ Oztantasuna hezurretan daramagula dirudi. Nola antolatu, orduan, kontra-kritika sendo bat?

Teknopoparen metaforak versus zientzia-fikzioaren ‘egiak’

Ez da erraza zientzia-fikzio hermetikoak eta bere irudi-multzoak formatu gehienetan duten indarra kontra-kritikatzea. Horien artean literarioa da garrantzitsuena, beti prest beste adierazpideei metaforak eta ideologiak eskaintzeko. Bide musikala, berriz, gutxitan hartu da kontuan publikoari zientzia-fikzioak proiektatzen dizkion irudien inguruko hausnarketan.

Zientzia-fikzioa imajinazioarekin dago estuki lotuta. Teknohermetismoak, halere, imajinazioa modu *intentionalean* ikusten du; hau da, objekturen bati zuzenduta dago, objetu posible bati, oraindik ez dena existitzen, baina eratu behar dena xede ideologikoak aintzat hartuz. Xede ideologikook, jakina, goian aipaturiko mitoen atzean daudenak izaten dira gehienetan. Horretan, hortaz, imajinazioa, errealitatea eta helburu praktikoak nahasten dira. Zientzia-fikzioak teknozientziaren irudi-multzo bati buruz eta horrek gizakian izan dezakeen eraginari buruz hitz

egiten du, baina baita gaur egun dugun teknologiaren eragin imaginarioari buruz ere. Zientzia-fikzioak gizarteaz —erreal edo irudizkoa— eta gizabanakoez hitz egiten du. Eta hermetikoa bada, orduan mitoak sartzen ditu bere diskurtsoan. Galdera-giltza hemen honako hau izan daiteke: ez da apika posible zientzia-fikzioa, bere parametro eta aldagai generiko oinarrizkoak kontuan izanda, modu ez-hermetikoan pentsatzea? Uste dut baietz.

Musikaren esparruan, teknozientziaren irudi baten eraketak Futurismo italiarrarekin¹⁸ nahiz 50eko hamarkadako B-serieko filmekin du zerikusi handia. Bereziki, tekno-pop musikaren eragin soziala 70eko hamarkadan ikusten da lehendabizi, Alemanian eta Estatu Batuetan orduko pop-rock eta rockaren joera nagusiei alternatibak aurkezteko ahaleginak egiten hasi zirenean. Berrikuntza gaur egun erraz identifika ditzakegun hiru ezaugarritan eman zen batez ere: *irudia*, *musika-tresnak* eta *mezuak* edo diskurtsoa. Zalantzarik gabe, ezaugarriok Futurismo italiarraren eta zientzia-fikziozko filmen eragina jaso zuten.

Hiru ezaugarriak ez zeuden zuzenduta, alta, gertakari-auzietara. Hau da, tekno-pop musika-mugimenduaren helburua ez zen bere inguru sozio-politikoaren isla zuzena izatea. Bere aktoreek nahiago zuten mundu metaforiko bat sortu, istorio desberdinak konta zituzten. Egia akademiko eta erlijio-egietatik harago, teknozientziaren alde onak eta, bestalde, alde txarrak ikusten zituztenetatik harago, tekno-pop musikak —bere esperimentazioan ez hain urrun zientzia-fikziotik— mundu anitz moldatzera zuzendu zituen urratsak. Horretarako eta inposaturiko diskurtsoek sorturiko 'egiak' desblokea zitezen, tropo ugari erabiliko zituen, ederrak askotan. Horrela, Kraftwerk Alemaniako tekno-pop taldeak manikiak jarri zituen abesten, ez pertsonak; Devo estatubatuar synth-pop taldeak, bestalde, ea beraiek gizakiak ote ziren galdetzen zuen —«Are we not men? No, we are Devo»—, eta Madrilgo El Aviador Dro taldea bere zientzi operak hasi zen sortzen. Beraz, metafora teknologikoa eta musikala dagoeneko prest ze goen. Horra hor, bada, zientzia-fikziotik hurbileko diskurtso ez-hermetiko baten adibide egokia.

70eko hamarkadan hasita eta 80ko amaieran finkatuta, teknopop metaforak hiru bereizgarritan oinarritu ziren. Bata, musikala, non hiru berritasun aurkitzen ditugun: konposizioen *mikro-espazioak*, *multimedia* formatua eta *mekanizazioa* (Shapiro 2000, 1. atala). Bestea, esparru estetikoarena: hemen zientzia-fikzioko B-serieko filmen irudia ezinbestekoa izan zen (uniforme futuristak, industria astunaren langileen estetika, kolore ugari...). Azkenik, musika tresnen aukeraketa betiko baxu, kitarra eta bateriatik harago zihoan, eta sintetizadore analogikoak eta beste tresna elektronikoak hasi ziren erabiltzen. Horrekin guztiarekin batera, hitzen jariora parodikoa eta garratza zen, abstraktua batzuetan, baita laidogarria ere. Azken buruan, proposamen ergela eta *establishment* komertzial eta ideologikoarekiko deferentea izan beharrean, hasierako teknopopa ekimen apurtzailea izan zen, hala musika aldeetik nola alde sozio-kulturaletik.

Kraftwerk eta gizakiaren robotizazioa

Talde honek sintetizadorez eginiko pop musika sortzen zuen eta egiten du. Abesti hotzak hasierako entzunaldian, robotikoak, elektronikoak, murriztuak hasiera batean tekno-analogismoaren mugak zirela eta, baina ongi garratuak gaur egun tekno-digitalizazioari esker. Baltsean egiteko erritmoko abesti sinpleak ziren, egungo *teknopop* berriaren, dub, elektropop edota *electroclash*aren oinarria.

Kraftwerkengan eragina izan zuten joera elektroniko nagusiak Alemaniako teknopop seminalean aurki zitezkeen. Joera horien aitzindaria Can, Neu! eta Faust taldeek osaturiko Krautrock musika eta kultur mugimendu alemana zen. Horien espiritua hasieratik jada paradoxikoa zen: musika-joera berrienak ulertzeko askatasun absolutua defendatzen zuten, baina baita ere konposizioen diziplina zorrotzena, alemaniar tankerara. Gainera, 1970eko *rock progresiboa* ren bertuosismoaren aurka, teknopop taldeek nahiago zuten belarriak lastandu ia hautemanekin ziren soinu errepikapenen bitartez. Makinak eta lastanak: horra hor paradoxaren beste forma bat.

Onar dezakegu Can, Neu! eta Faust triunbiratua dela hasierako teknopoparen erreferentzi puntua. Hiruetatik Can izan zen *funky*ena. Inprobisazioa zen bere goiburua; soinu freskoa eta *trance* egiten zuten. Horrena fusioa zen, *groove* eta *atmosferaren* arteko fusioa. Emaitza: oroipen mistikoak zeuzkan funk abangoardista. Ondoren Neu! taldeak hori hartu eta hipnotismora eramango zuen. Talde horren goiburuak zera zioen: «kontrola eta murrizketa», gehiegikeriarik ez, 'des-inpresioa' soilik. Minimalismo hutsa. Beren motorra: konpulsioa, talka (*shock*) eta kolpea (*beat*). *Motorik* nozioa asmatu zuten, hau da, pultsioaren eritmoaren ideia —entzun euren *Hallohallo* edo *Fur Immer* abestiak, adibidez—, psikodelia eta geroago *punk*-soinua izango zenaren nahasketa. Gainera, *ambient* musikaren aitzindariak izateaz gain —*Leb's Wohl* abestian igar daitekeen modura—, gaur egungo talde askorengan —irakurri, esaterako, Stereolab— eragina izan duten soinu 'araro' en ikerlariak izan ziren. Faust taldea, bestalde, talde tekno-zaratatsu nagusia zen. Horiena burrunba zen, tartean melodiaren bat iragazi arren, pastoral antzekoak adibidez. Xedea: musika abangoardistaren artelanak sortzea, oso futuristak. Beren inkongruentziak, haatik, eklektizismora eraman zituen taldearen emaitzak, soinu-justaposizioez eginko kantak sortzera heldu arte. Hau da, egun *sample* deitzen dena. Fausten *The Faust Tapes* diskoa horren adibide argia da, hogeita sei segmentu heterogeneoz egindako *collagea*, 1980ko talde 'industrial' askok egokituko zutena —Cabaret Voltaire edo Zoviet France-k, beste askoren artean—.

Geroago, beste tekno-talde batzuek, Cluster-ek adibidez, teknopopa arrakastara eramango zuten, baina beti musika hotz legez ulertua, oharkabea, barruan *funk* bihotz batek mugitua. Ideia nagusia argia zen: benetako gozamen estetikoak ez datza monotoniatik aldentzean, patroien balioa detektatzean baizik, erritmo errepikakorrena, eskemena, egitura erritmikoena, horri guztiari esker trantzera ailega gaitzen musika entzun edo jotzen dugunean. Makina hutsak, gizakiak *soft* makina legez ulertuak. Robotak. Hori zen herri-musika horren erritmo eta ideia berria, simplea eta sofistikatua era berean. Eta Kraftwerk taldea errege bilakatu

zen teknika hori menderatzeari esker. Erradikalismotik harago, teknopopa herri-musikaren adibide ezin hobea izan zen, emozio eta sentsibilitateen kaleidoskopia.

Metropolis eta robotak

Hasiera batean Organisation izena zeukana eta 1970. urtean *Tone Float* disko klasikoa jada argitaratu zuena, las-ter batean, urtebete baino lehenago, Europako teknopop eszenako kultuko talde bihurtu zen: Kraftwerk. Ia denen inspirazioa, teknopop hoberenaren adierazgarria, elektro-
pop eguneratuenaren abangoardia, Kraftwerk birmoldake-
ta erradikala izan zen herri-musika entzuteko eta dastatze-
ko ohituretan. Rockaren eta folkaren berotasuna albo ba-
tera utzita, teknopop musika manikien eskutik etorri zit-
zaigun Dusseldorfetik, haragi eta hezurrik gabe, teknolo-
giaren inguruko alegoriez beteta. Alemaniatik maitasunik
gabe, hotz, emoziorik gabe, umore-sen misteriotsu batez.
1971. urtea zen.

Hasierako hiru diskoetan, Kraftwerken eraginak New
Yorken —John Cage eta Steve Reich-en minimalismoan—,
aipaturiko Krautrockeko taldeetan eta elektronika alema-
niarraren beste joera batean —Stockhausen— aurki ditza-
kegu. Sintetizadorea zen taldearen ikonoa, eta *Autobahn*
diskoa (1974) horren erakusgarri ezin hobea da (Shapiro
2000, 26. or.).

Teknologiaren erabilera, beraz, garrantzi handikoa
zen taldearentzat. Beraiek izan ziren lehenbiziko aldiz or-
denagailu-atze grafikoak erabili zituztenak zuzeneko ema-
naldietan. Horietan eszenatokiak lau mahai erakusten zi-
tuen, bakoitzean sekuentziadore bat, eta —hona hemen
alderdirik berritzaileena— tresna horiek erabiltzen zituz-
tenak gehienetan ez ziren musikariak izaten —publikoa-
ren aurrean, behintzat—, manikiak baizik, edo *robotak*,
taldekoek deitu bezala. Espektakuluak, hortaz, itxura hert-
sia zeukan hasieran, baina behin musika jotzen hasita, in-
probisazioa, probokazioa eta espektakulua bermatuta zeu-
den (ikus, besteak eta beste, www.kraftwerk.com eta kraftwerk.technopop.com.br).

Kraftwerk ez zen rock gehiago proposatzera etorri, ezta pop hutsa ere. Zerbait berria, propioa eta benetakoagoa zeukaten. Ez zen, jakina, musika kultua, kulturako musika baino. Futurismo musikala orduan, erretrofuturismoa gaur.¹⁹ Bere lehendabiziko disko arrakastatsuak (*Autobahn*, 1974) estetika eta tresneria guztiz teknologikoan oinarritzen zen lehenbiziko talde gisa konfirmatu zuen. Zentzu horretan, Kraftwerken musika zientzia-fikzioaren adar bihurtu zen, *2001: An Space Odyssey* Kubricken filmaren musikarekin gertatu bezala, adibidez. Hiru disko izan ziren musika horrela ulertzeko motorrak: *Radio-Aktivität* (1975), *Trans-Europa Express* (1977) eta *Die Mensch-Maschine* (1978) lan nagusia, azken izenburu hori zientzia-fikzioaren eta filosofiarren²⁰ o roipen argiak zituela —entzun, adibidez, *Metropolis* edo *Die Mensch-Machine* abestiak—: «Makina-gizona, gauza eta gizakia. Makina-gizona, sasi-gizakia» (*Die Mensch-Machine* abestian, 1978).

Talde hori izan zen lehenbizikoa bere diskoak eta zuzeneko ekitaldiak soilik tresna eta soinu elektronikoz grabatzen. Ahotsak ere Vocoder edo lengoai sintetizatzekeo bestelako softwareaz —Speak & Spell bat, esaterako, beren *Computerwelt* 1981eko diskoan— prozesatzen zituzten. Gainera, atzeko abestien erabileraren aitzindariak izan ziren, aurretik soinu sintetiko hutsak sortzen zituen sekuentziadore elektronikoeekin grabaturikoak. Kraftwerkek ez zeukan humanitatea, gizatasuna, zertan erakutsi bere emanaldietan, eta horrela nahi zuten. Nahikoa zen musika, antzerkia, estetika minimalista eta elektronika nahastearekin.

Baina, horiek horrela, eta *teknologia*en garrantzia ikusita, zein zen gai horren inguruan taldearen pentsamendua? Nola erakusten zuen hura? Kraftwerken mezuek 'zientzia-fikzio' sustraiko teknopop taldeen irudi-multzoaren ohiko bi aldeak erakusten zituzten: alde inozoa, zalantzatia eta edozein teknologiez erakarria, alde batetik; eta alde kritikoa, baita zalantzatia ere, bestetik, baina oinarritzko susmo batekin: herri industrializatu eta moderno batean bizitzea ez dela hain zuzen ere Edeneko bizitzea. Eta imperfekzio teknologiko hori, ongizate sistemaren akats horiek erakutsi behar zirela uste zuten taldekoek. Lan ho-

rretan, jakina, Kraftwerkek Europako hiri-bizitzari egiten zion erreferentzia batez ere, Alemaniako bizitzari, gerra ondokoari, eta horrek guztiak teknologiarekin zuen harremanari. Eta hori modu enpatikoan egiten zuten: hitzak gutxieneko adierazpenera zeuden murriztuta, bizitza modernoaren izaera paradoxikoa erakutsiz, hau da, teknologien garapenaren ospakizuna eta, era berean, alienazio-sentimendu sendoa teknologia haien azpian izateagatik:

Gure bateria aldatzen ari gara
eta orain energiaz beterik gaude.
Robotak gara gu.
Automatikoki gabilta eta
mekanikoki dantzatzun dugu.
Robotak gara.
(*We are the robots*, 1978).

Mezua, beraz, kritikoa zen, baina baita kriptikoa ere. Hermetismo pittin batek itsutzen zuen taldea lehenengo urratsetan, eta beren ideiak estetika hutsa direlako zalantzarekin uzten gaitu. Dena den, mezuak zabaltzeko bidea, hizkuntza, erabat irekia zen: alemanieraz kantatu, ingelesez ere bai, eta batzuetan gaztelania, italiara eta frantsesa ere ukitzen zituzten. Argitzen zituen horrek bere xedeak? Zentzu batean, behintzat, bai, *Techno Pop (Electric Café)*, 1986) himnoan entzun dezakegun moduan:

Music non stop, techno pop.
Elektroklänge überall, Decibell im
Ultraschall. Music non stop, techno-pop.
Es wird immer weitergehen.
Musik als Träger von Ideen.
Music Synthetic. Techno-pop.
La música ideas portará y
siempre continuará.
Sonido electrónico. Decibel sintético.

Eta *Radio-Aktivität* abestian pro-teknologiaren apologia eginez, esaten zuten bezala: «Radioaktibitatea: airean al dago zuretzat eta niretzat? Radioaktibitatea: Madame Curiek aurkitutakoa. Radioaktibitatea: bihurtu zaitez melodia. Radioaktibitatea: airean al dago zuretzat eta niret-

zat?» (1975). Kriptikoak? Hermetikoak? Errealistak? Zallantza barik, erretrofuturistak.

Devo tekno-ergelkeriaren aurka

De-eboluzioaren teoriaren musika taldea dugu Devo. Hobeto esanda: giza-eboluzioaren parodiaren taldea. Ohio estatuan dagoen Akron hiriko bost lagunek synth-pop talde bat osatu zuten, batzuetan synth-rock, erabat interesgarria, batik bat beren alde desberdinak nola agertzen zituzten ikusita: musika, estetika, ideologia, kritika. Beti originalak eta oso zirikatzaileak.

1972an jaio zen taldea, Oscar Kiss Maerth-en tesi antropologiko sasi-zientifiko batek iradokita, «The Beginning was the End» izenburukoa —*Now It Can Be Told: Live 1988* diskoaren azalak tesiaren azal bera darama—. Tesi horren arabera, gizakiaren jatorria tximino espezie maniako-sexual batek sorturiko akzidente bat izan zen. Tximino horiek kanibalak ziren, eta sortzen zituzten tresnak soilik beraien artean sexualki esplotatzeko erabiltzen zituzten, ondoren besteen burmuinak jateko. Bada, Devok metafora hori erabili izan du beti gizarte modernoa ren abstrakzio legez, teknologiarena barne, jakina.

Devok bere buruari *geek* irudia osatu zion: hau da, sasi-ikastunen estetika, mutil argiak eta aplikatuak bailiran, baina fisikoki ez oso erakargarriak. Hori pop munduko jorra estandararen aurka zihoan, musikariak galantak, erakargarriak eta ergelak izan behar baitzuten. Beraz, Devoren estetika eta aldarrikapenak jada hasieratik ziren zirikatzaileak. Pailazoarena egiten zuten, Frank Zappak egin legez, baina eduki sozio-politikoa herri-musikan sartu nahian ironiaz:

Esaten digute gure buztana galdu dugula,
barraskilo txikietatik eboluzionatu dugula.
Eta nik diot: 'haizea alde'.
Gizakiak gara? Ez, gu Devo gara!
Ergeltxoak gara orain, irakinaldi bat falta zaigu.
Ergeltxoak gara, jocko homoak.

Ez gara gizakiak? D-E-V-O.
Tximino-gizonak negozio-geletan,
irakasleak eta kritikariak denak ari dira kaka dantzatzen.
Ez gara gizakiak? Gu Devo gara!
Errepikatu behar dugu, ongi, aurrera!
(*Jocko Homo*, 1978).

Musikak eta irudiak bihurtu dute Devo ezagun synth-poparen inguruetan. Beti uniforme koloretsu eta futuristak jantzita, batik bat bi gauzez farre egin guran: *kultura industrialia eta informatikoa*, hain gogortsu Estatu Batuetan 70eko hamarkadaren hasieran dagoeneko, eta *pop kontsumismoa*, bai modaren bai irudi, literatura edota zientzia-fikzioaren bidetik hedatua. Horregatik kimikako babes traje horiak (*Q: Are we not men?*, 1978), B-serieko modara orrazturiko plastikozko ileordeak, mozorroak eta *Freedom of Choice* (1980) diskoko loreontzi-kapel tipikoak.

Musika-bideoren teknologiaren aitzindaria izan zen Devo 80ko hamarkadan. MTVren lehenengo bideoa talde horrek egin zuen *Whip It* (1980) abestiarentzat. Publiko zabalak ez zuen gehiegi onartu, baina bere arrakasta plazioan identifikatzen hasi zen berehala: bideoaren estrategia eta teknikak kopiatu zizkieten, beren kolorea, abiadura, kamera optikoa, irudi subliminalak eta teknologia berrien ekarpena.

Eta zuzeneko emanaldietan gauza bera zuten buruan: musika bizia eta sintetizadorez berrituriko pop soinuak. Lehenengo talde amerikarra izan zen eszenatokian soilik sintetizadorez eta haririk gabeko mikrofonoz lagundurik; estilo musikal ugari jorratu zuten: 1980ko hamarkadaren bukaeran *disco* musikara jo zuten —*Baby doll*, *Disco dancer*—, nahiz eta bitartean beti *new wave* tankerako pop-rockarekin nolabaiteko zerikusia izan —*It takes a worried man*, *Modem life*— eta punk-popa sekula ez utzi —*Jerkin' back and forth*—. *Recombo DNA* (2000) bitxikerien bilduma bereziaren liburuxkan esaten den moduan, Devok kitarra-urteak izan zituen, baina baita teklatu-urteak ere, eta alternatiboak, dantzagariak eta, hori beti, parodia-urteak.

Taldearen hitzek zientzia-fikzioaren *kitsch* tematika ere ukitzen zuten, eta umore surrealista eta satira soziala-

ren artean koka genitzake. Ez zegoen inolako asmo hermetikorik edo munduko arazoentzako soluzio handitsurik Devoren ahoan. Mozorrorik gabe aurkezten ziren beti:

Mongoloidea, mongoloide bat zen,
zu eta ni baino zoriontsuagoa.
Mongoloidea, mongoloide bat zen,
eta horrek determinatzen zuen zer ikus zezakeen.
Mongoloidea, mongoloide bat zen,
kromosoma bat: gehiegi.
Mongoloidea, mongoloide bat zen,
bere lagunak ez ziren konturatzen eta bestei bost axola.
(*Mongoloid*, 1978).

Downei errespetua eta ergelei kritika. Bere erasoak tekno-ergelkeria baitzuen miran. Eta, jakina, horrek zekarren teknohermetismoa. Hura zorrotz kritikatzeko zuzeneko emanaldietan bi figura erabiltzen zituzten, alegia *Booji Boy* eta *Azpi-Jeinuaren Eliza*. *Booji Boy* pertsonaiak Estatu Batuetako herri-kulturaren zati handi baten haur-erregresioa sinbolizatzen zuen. Kontzertu askotan beste pertsonaia baten ondoan agertzen zen, *General Boy*, autoritarismo amerikarraren satira. *Azpi-Jeinuaren Elizari* dagokionez, parodia aurrera eramateko, beste talde bat ateratzen zuten beren kontzertuetan. Beste talde hori, jakina, pertsonaia desberdinez zegoen osaturik, baina pertsona berekin. Taldearen izena Dove, the Band of Love (Usoa, maitasunaren taldea) zen, eta hala bere abesti propioak nola besteeonak jotzen zituen. Ospetsuenen artean, Neil Youngen *My my, hey hey* zegoen, Youngekin berarekin jotakoa behin baino gehiagotan.

Parodia hori guztia eszenatoki erabat teknologizatuena gainean eramaten zuen aurrera. Izan ere, estetika futurista horixe zen bere produktu guztietan gehien nabaritzen zena. Diskoen izenak, ildo horretan, erretrofuturismoaren isla argia ziren: *Duty for the Future* (1979) edo *New Traditionalist* (1981), esate baterako. Den-dena ironia hutsa, erlijio berrien transzendentalismo merkearen aurrean. Estetika, lehen esan bezala, teknologizatua, baina zientzia-fikzioaren erara:

Gizarteko erregelak obeditzen badituzue,
gizarteko ergelak izango zarete.
Obedituko duzue, eta ondoren desobeditu.
Desobedituko duzue, eta ondoren obeditu.
Gizarteko erregelak obeditzen badituzue,
gizarteko tresnak izango zarete.
Eta gizarteko tresnak hartzen badituzue,
gizarteko erregelak egingo dituzue.
(*Social fools*).

Garaztasuna ez da hor gelditzen, nahiz eta ironiak batzuetan bere azpiko irakurketa behar. Ez zen Devo gaia oso erraza zeukan horietakoa, lehenbiziko entzunaldian h a rrapatzekoa. Teknologia eta gizartea kritikatzeko diseinua, halere, inork ez dio kentzen, *Super-cop* ergelari dedikatuturiko abestian entzun ahal den moduan:

Juztiziaren zerbitzari izateko jaio nintzen,
baina ez ditut erretolirik botatzen.
Ongia ongi da, gaizkia gaizki,
eta sekula ez dut konpromisorik hartzen.
Karkaxa batean sartu ninduten,
haragiz eta hezurrez egindakoa.
Gerra-eremuan aurkituko zaitut,
nire harrizko ukabilekin.
Super-poli bat naiz. Super-poli bat naiz.
(*Super cop*).

Aurten biran dabil Devo taldea, iaz berriro bildu eta gero. 'Fifties, fatties, and back', eta betiko espiritu beraz, mito teknohermetiko guztien gainetik.

El Aviador Dro eta ironia espezializatuak: Nuklearra? Bai, noski

Madrilgo teknopop talde horren hasieratik jarraitzen duen partaide bakarra *Biovac-N* desizenaz ezagutzen duguna da —Servando Carballarren izen kodifikatua—. Beste Vac bat, *Multivac*, Isaac Asimovek hasitako gerra bat irabazi zuten teknologoaren ordenagailuaren izena zen —ikus «The Machine that Won the War», 1961, *The Magazine of*

Fantasy and Science Fiction—. Garaipenaren ondoren, teknikari-teknologo horiek bilera bat deitu zuten egoera aztertzeko. Lehenengo gauzen artean, beren etsaia *adigaitza* zela gogoratu zuten, hau da, ez zirela terrorista lurtarrak edo Kristautasunaren etsaiak, Cygnus konstelazioko De-neb izar-sistemaren biztanleak baizik. Estralurtarren mehatxua: suntsidura masiboko armen bitartez, lurra hondatzea. Hala eta guztiz ere, lurtarrek, beren adimen artifizialean konfiantza itsua izanik, garaipena lortu zuten azkenean, sinestezina badirudi ere. Jakina, hori zientzia-fikzioa da.

Istorioa, dena den, *The New York Times* egunkariko artikulua batetik hartzen dut, George Johnsonek sinatua (2005-02-20), Irakeko gerra dela eta bergogoratzen digunean. Zergatik gogora ekarri zientzia-fikzioa? Johnsonek inplizituki Pentagonoko plan bati egiten dio erreferentzia. Zientzia-fikzioaren kasu bat dirudi, baina ez, erreala da eta tamalez, berriro ere, digitalismo itsuaren gain jarritako konfiantzan oinarritzen da, kasu honetan gerra digital eta informatikoan. *Future Combat Systems* izeneko plan hori, non bilioika dolar inbertitzea espero den, ingurumen robotizatu batean giza-robotaren amets zahar haren aplikazioa besterik ez da. Gudari-robotak, hegazkin-robotak, gizakirik ez gerra horretan. *Tobor the Great*, *Doctor Satan* edo *I, Robot* filmetan bezala, robotak diseinatzea espero da gizakien gaitasun orotik harago ailegatzeko. Baina, etsaien alderdian, zer hilko dute? Beste robot batzuk ala gizakiak? Zoritxarrez, gehienetan gertatu bezala, auzi digitalista eta teknohermetiko horrek *arrazoimena* eta *kalkulua* identifikatzen dituen ekuazio kaltegarria ezkututzen digu, askotan zientzia-fikzioaren lerroetan egin den moduan.

Teknopop musikaren talde aitzindarien irudikapen teknologikoak gutxitan hartu du aintzat aipaturiko ekuazio hori errore itzala izan daitekeela. Baina, jakina, salbuespenak ere hor daude. Bat, hain zuzen, El Aviador Dro da. Bere eraginak Krautrocken aurki ditzakegu batez ere, baina baita ere Kraftwerk taldean, Europako synthpop musika estiloan —The Human League, Depeche Mode, New Order— edo Estatu Batuetako joeretan, batez ere De-

vo taldean. Hortaz, El Aviador Dro synth-poparen alderdi 'gaizto' eta azkarraren zati bat da.

1979tik aurrera, eta Balilla futurista italiarrak birtualki bataiatu ondoren, 80etako Madrilgo *movidaren* talde paradigmatico horrek multimedia produktu bat aurkeztu zigun —oinarrian, jakina, musikala—, eta mundu hispanikoaren erdi hildako panorama musikala hasi zen astintzen erabat, batik bat *underground* —*indie* egun— alorrean: estetika berezia eta berria zekarren, tresneria harigarria, musika futurista, zuzeneko emanaldi desberdinak, mezu probokatzailak, autoprodukzioa —DRO disketxearen sortzailak dira— eta, berr i ro ere, teknozientzia dute euren irudi-multzoaren oinarri eta xede. Nolanahi ere, atzerriko taldeen esperientziaz baliatu ziren, baina dena den beren ikuspuntu berezi eta berritzailea txertatzea ere lortu zuten. Beren ikonoa: hegazkinlari baten irudia, heroe modernoaren paradigma; hiru rogeita hamar urte lehenago futurismo italiarrak besarkatu ez ezik, Junger, LeCorbusier (*Aircraft*), Miyazaki (*Porco Rosso*) eta 2004ko Scorsesek (*The Aviator*) ere beren produktuen artean goi-goian zuten. Espiritu hori hobekien islatzen duen El Aviador Doren abestia *Selector de frecuencias* 1980ko hamarkadako arrakasta izan zen:

Ia ez dago ilargirik gaur gauean,
erlojua geldituta dut.
Aeroportutik noa
zure konstelazioaren bila.
Pilotatzen ikasi nuen
nire hangar zaharrera bueltatu naiz.
Nire biplanoa martxan jarri dut
ekaitza hasi bitartean.
[...]
Euria ari duela aireratu naiz,
haizeak nire aurpegian jotzen du.
Izarretan nahi dut egon
[...]
izpiak nire ondotik gurutzatzen dira
aeroplanoa agurtuz.
Eta ni berriro ere sentitzen naiz
kreaioaren garaipena.

Arrazoimen eta kalkuluaren arteko ekuazioa kontuan hartzen badugu ostera ere, alde kalkulatzailera, hotza, da El Aviador Dro zientzia eta teknologiarekiko irudi inozoen edukizera eramaten duena. Halako abestiak entzunda, badi irudi teknologiarren fan ergelak eta itsuak direla, tekno-entresaren batek ordaintzen diela. Baina ez dezagun ahaztu garai horretan —1979an— horrelako sinesmenak nahiko arruntak zirela oraindik Estatu Espainolean. Teknologia, beraz, aldaketaren bitartekari nabariena zen, ‘aldaketa’ bere zentzurik zabalenean ulertuta: kognitiboa, etikoa eta portaerarena. Horiek ziren, hortaz, taldearen asmo inozoki modernistak: zientziarekiko benetako maitasuna edo, hobeto esanda, zientziaren parafernaliarekikoa, bere idealtasuna zalantzan jarri barik.

Mezu mota hori hedatzeko idatzizko euskarria bikoitza zen: alde batetik, abestien hitzak; bestetik, LP eta CDe-kin batera zetozen koadernoak. Jakina, gaur egun web orrialdeak komunikabide mota horien osagai bilakatu dira (www.mecanisburgo.com; www.aviador-dro.com). Garai horretako *teknologismoaren* apologia oso sutua zen eta, hala eta guztiz ere, El Aviador Dro korrontez kontra joaten ausartu zen —serio ala parodia hutsa zen?—, *Nuclear sí* (1979) abestian argi ikus daitekeenez —hemen ironiaren keinuak, halere, ez dira bistatik galdu behar, askok ekologismoaren aurkako jarrera zela uste baitzuten—:

Erradiozko itsasoetan nahi dut bainatu;
estrontzio, kobalto eta plutonizko hodeiez inguratutik.
Berunezko bilgarriak nahi ditut eduki
eta ume deformatuak beren motorretan ibiltzen.
Hondamen hutsak piztina politekin,
emakume lehortuak banpiro ahotsekin,
mutante gosetiak kalean gorpu freskoen bila gosea
[asetzeko.

Nuklearra bai, jakina.

Nuklearra bai, nola ez!

Eguzkiak erretako muinoak sutan,
eta erretako azalekin egindako argi-basoak;
sugetzarrak etxeak irensten,
eta txingarrez estalitako basamortu handiak.

Sumendi zaratatsuak laba jaurtitzen
 eta lurralde beroak erabat erraustuak.
 Ezkutuko leizeak hondartza sakonetan eta
 lore hegodunez betetako haranak.
 (*Nuclear sí*).

Gainera, mezuek, baita zuzeneko emanaldietan esku-paperetan zabaldutakoek ere, taldeak iraultza dinamiko batera egiten zuen deia erakusten zuten, edozein autoritarismo, faxismo, eliza edo superstizioaren aurka. Alabaina —pentsa genezakeen—, taldearen jarrera ez al da superstizio-jarrera bat teknozientziarekiko? Ez, baina soilik bere arazoimenezko aldea, surrealista eta ironikoa, kontuan hartzen badugu.

Arrazoimenezko alde hori 1983ko *Síntesis: La Producción al Poder* disko bikoitzean ikus dezakegu argi. Lehenengo diskoak (*Tesis* izenekoak) taldearen alde inozoena eta pop tankerako musika duena erakusten digu:

Nestor lanera doa pozik eta alai.
 Elikaduren prozesatze eta ontziratzean lan egiten du.
 Han oso lagun onak ditu beti
 eta denek batera egiten dute lan.
 Nestor cyborga.
 (*Nestor el cyborg*).

Beste diskoak (*Antítesis*) soinu elektronikoko 'industrial'agoa sortzen du eta taldearen ideia politiko iraultzaileenak erakusten ditu:

Produktugileen eta langileen hiritar-elkarteen artean
 banatuko ditugu produkzio-bideak.
 Zientzia gure ondoan dugula,
 hierarkiak desagertuko dira,
 estatu zaharraren esku aitatiarra.
 [...]
 Benetako sozialismoaren zuzia hartzen dugu.
 Anarkia elektrikoaren unea heldu da.
 Isiltasunaren zamak
 jauziko dira elizak
 eta aluminiozko eskolak eraikiko ditugu
 ministerio zaharren zoruetan.
 Batzuetan denborak

eta beste batzuetan tiroek
makurtuko dute etsaiaren erresistentzia.
Eta Gizateria berriaren garaipena helduko da:
Kamarada Bakunin.
(*Camarada Bakunin*).

Areago, 1985ean, *Intonarumore* izeneko grabaketa prestatu zuten Balilla eta Luigi Russolo italiar futuristen omenez. Bertan agertzen den liburuxka benetako manifestu artistiko-ideologikoa zen. Hasieran izan ez bazen ere, atrebentzia eta originaltasun horrek 90eko hamarkadan jaso zuen saria belaunaldi gazteenen eskutik. *Ópera Científica* (1999ko bilduma bikoitza) baino lehenago, eta 2004ko azken diskora arte (*Confía en tus máquinas*) bederen, taldea *Elektropop* musika-mugimenduaren erdian kokatu da berriro ere, bere puntu abangoardista eta berritzailea galdu barik. Abesti berri batzuek 80etako estiloa gogoratzen digute (*En la Tierra ya no hay comida*, 2004), soinua araztuagoa bada ere. *Mecanisburgo* (2001) diskoa, adibidez, 2000 urteetako berrikuntza teknologiko-musikalaren kasu argia da, *computer*-zientzia-fikzioaren atal berri bat osatzeaz gain. Disko konpaktu bikoitza da eta edukia-
ren oinarritzko ideia *etorkizuneko hiri* bat da, arkitektu handi batek diseinaturikoa. Hiri horretan ohiko zientzia-fikzioaren auresan asko betetzen da —batzuk aipaturiko mitoen parte dira—; hau da, errealitate bilakatzen dira. Musikak, halere, lorpen horiek modu erabat goibelean, pesimistan, azaltzen dizkigu. Diskoetako bat CD-Rom interaktiboa da, eta bertan *Mecanisburgo* hiri birtualaren mapa, pertsonaiak, 3D animazioak eta grafikak aurki ditzakegu. Dena eguneratuta, baina nozio giltzarri batekin: egileek CD-Rom horrekin egin nahi dutena uler dezagun, bere osagarria entzun behar dugu, hau da, musika-diskoa. Eta horrek ez digu aukerarik ematen, benetan, CD-Romean aurkezten den teknologia jainkotzeko.

Nola azaltzen dira, dena den, El Aviator Dron zientzia-fikzioaren mito hermetikoak? Kraftwerkek ez bezala, Madrilgo taldeak modu argian erakusten ditu zientzia-fikzioarekin eta horren mitoeekin dituen harremanak. Helburua, azkenean, horiek desmitifikatzea baita. Prozesuan as-

ko dira aipatzen dituzten idazle ezagunen izenak: Asimov edo Bradbury (*Mundo Mutante* abestian, 2002), edota lehenbizikoaren Hari Sheldon pertsonaia esaterako, horrek ekarri baitie inspirazioa azken *Confía en tus máquinas* diskoa lantzeko. Baina baita teknohermetismoarenak ere. Hilezkortasunaren kasuan, esaterako, ironiak ez dio lekurik uzten mito horri:

Bukatu da. Gehiago ez pentsatu.
Ez pentsatu gehiago gelditu barik, erotu zaitetzke-eta.
Hautzarotik prestatu zaituzte. Hau da egia bakarra.
Eskolak txintik ez esaten irakasten dizu, obeditzen,
bat gehiago izaten, zure aukerak pikutara bidaltzen.
Ondoren armadak gizon bihurtzen zaitu,
zenbaki bat izenaren orde.
Jarraitu zure liderrari, eman boza zure lagunari,
sekula ez duzu jakingo zertarako hautatu duzun.
Orain prest zaude lana egiteko,
etekina emateko, produzitzeko eta, azkenean,
parke bateko banku batean eseriko zara
ea nor zaren eta kale non egin zenuen pentsatzen.
Hiltzeko bizi!
(*Vivir para morir*).

Azkenez, *cyborg* ikonoari dagokionez, taldeak adierazgarri desberdinak aurkezten dizkigu: Nestor bera (*cyborga*), *Hazme tu androide* abestiaren esklaboa edo, bere forma zitaleanean, Godzilla. Baina baita metalezko neska jator bat ere:

Neska hura plexiglasezkoa da
eta horregatik gustatzen zait gehiago.
Metalez egina da
eta horregatik gustatzen zait gehiago.
Begirada gorria,
korronte deskarga bat,
irribarre fluoreszentea,
teleikusle aurpegia.
(*La chica de plexiglás*, 1979).

Kasu hauetan guztietan, tekno-utopiak deseginda aurkitzen ditugu, arbuiatuak askotan, tekno-distopiez ordezkaturak. Baina beti, hori ere egia da, ambiguetate pittin batekin; izan ere, bedekatutako distopia egotea ere posible

da, gerra nuklear eta hondamen ekologiko batetik bizirik ateratakoak pozik bizi diren tokiak eta guzti. Orduan, tekno-zoriontasunaren mitoa ez legoke giza-harremanen bitartez eraturiko mundu batean, ente misteriotsuen ateko ustezko elkarrizketen moztuz jantzi arren. Baina harreman horien mundu artifizialak, azken buruan, joko baten parte dira, El Aviador Dro ren ludikotasunaren jokoarenak.

Xarramarroa eta erretrofuturismoa: bi hitz

Hemen ikusitako taldeen teknopopak, hortaz, zientzia-fikzioaren oinarriko parametroekin bat datorren irudi-multzo bat osatzen du, bi eranskinekin batera: teknologia berriekiko anbigutasuna eta teknohermetismoaren ukazioa. Kontzeptio metafisiko modernoan aurkako filosofoen proposamenekin gertatu bezala, 'beste mundu' horien —errealitatearen azpikoak— teknopop kutsuko irakurketa latza izan daiteke. Teknopop taldeak ez dira mundu ideal batez mintzatzen ari, erdi mutanteek, erradioaktibitateak eta robotek osaturiko sasi-errealitateaz baidiz. Eta azken buruan, hori beti gure munduari —horrela ez iruditu arren— erreferentzia egiten dion parafemalia linguistiko-teknologikoa besterik ez da. El Aviador Drok zuzenean erabiltzen dituen janzkera futuristak, ez dira akaso *Prestigean* zaborra biltzen zuten boluntarioen janzkera 'futurista' berdinak? Kraftwerken manikiak ez dira mundu zoriontsu batean bizi diren super-gizakiak; hau da, kaleetan ikusten ditugun gizapiko pobre horiek izan daitezke arazorik gabe, edo telebistaren urrutiko agintea askatu barik gurekin bizi daitezkeen 'sasi-robotak'. Eta beharbada horiek 'gu' gara. Devoren deboluzioa, de-bilakera, gure bilakera izan daiteke. Ozono geruzari edo New Orleansi begiratzea besterik ez dago. Hondamendi naturalak direla diote, baina badakigu *giza-hondamendiak* direla.

Talde horien emaitzek, hortaz, mentalki argia den baina forma esklerotikoa, hertsia eta hotza duen teknopop musika osatzen dute. Beti aurrera begiratzeko prest dagoen fikzio-musika, Futurismo italiarrak egiten zuen

moduan, baina XX. mendearen bukaeran eta XXI.aren hasieran irekitako posibilitateen alde gazi-gozoa erakusten diguna. Teknologia berriak, humanitate zaharra. Emaitza: nahasketa-egoera, non argienak poltsikoak betetzen dituen. Teknologiak, gizakia izan daitekeenari buruzko hausnarketarekin batera ez badu egiten aurrera, abangoardista-aurpegia daukan hermetismo bihurtzeko arrisku handia dauka, despistatuta dagoenarentzat benetako amua. Eta ez dago gauza errazagorik teknologiekin arreta galtzea baino, horiek gizateriaren basoa osatzen duten zuhaitzak baitira, eta askotan gizateria bera ongi ikusten ez baitigute uzten. Distantzia hori hartzeko modu egoki bat umorea, artea eta entretenimendua izan daitezke. Kraftwerk, Devo eta El Aviador Dro horren adibide ego-kiak dira. Karramarroek egin bezala, atzeratu gaitezen aurrerantz talde horiek: erretrofuturismoa!²¹¶

-
1. Eskerrak eman nahi dizkiet honako erakunde eta pertsona hauei: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza sailari, horrek emandako ikerketa-beka bati esker idatzi ahal izan dut testu hau; Colorado School of Mines-ko Jennifer Schneider eta Carl Mitcham irakasleei, Iñaki Arzoki eta Aitor Panerari.
 2. Txostenaren emaitza azpimarragarrienak *USA Today* (2005-08-09) egunkarian edo honako web helbide honetan kontsulta daitezke: www.usatoday.com/tech/science/2005-08-08-schoollabs_x.htm.
 3. Haragoko bilaketa horren isla ez da soilik haluzinazioak izan ditza keten lagun batzuen auzia. Delft-eko (Holanda) Unibertsitate Teknologiko ospetsuan 2005eko uztailan egindako Teknologia eta Filosofiar buruzko bileran, *diseinua* izanik gai nagusia, roboten adimenari eta gaitasunei buruz asko hitz egin zen. Adibide gisa, bertan zabaldutako bi tesi: alde batetik, epe motzean gizakiak baino balioetsuagoak izango diren makinak existituko dira, *artilektu* izenekoak. Beren oinarritzko ezaugarriak: ez dira izango gizakia baino gutxiago (adimen eta sentimenei dagokienez; kalkuluari dagokionez, jakina, gehiago dira); ez dira gizakien tresna bat izango; arriskutsuak izan beharrik ez dute; eta horiek existitzeak (hasiera batean, gizakiok sortzeak) ez du zertan arazo moralik sortu behar. Bestaldetik, konpainia egiteko robotak diseinatzen ari gara eta horrek sentimenekin du zerikusi handia. Ildo ho-

rretan, bi joera orokor daude: bata, Iparramerika eta Europakoa, robotak soilik produkziorako makina legez ikusten dituen; bestea, Korea eta Japongoa, non sentimenez auziak garrantzi handia hartzen duen. Hau da, gizaki-itxura ematen zaie robotei hain zuzen gizakiak ordezkatu ditzaten adineko pertsonentzako edo elbarrientzako laguntza-lanetan.

4. Batez ere «Zientzia eta hausnarketa» eta «Teknologiaren inguruko auzia», biak Heideggerren *The Question Concerning Technology and Other Essays* (1977) liburuan.
5. Horien eta beste batzuen artean, nik Albert Borgmann (1984) izena aipatuko nuke egungo mendebaldeko gizartearen eta teknologiaren arteko harremanen analisi *filosofiko* baterako. Tamalez, harreman horien analisi asko datu eta estatistika hutsean geratzen dira, *entziklopediaren —en kiklo paideia—* forma eta hausnarketa eman gabe. Soziologoak, politologoak, psikologoak... egiten ez duena, behintzat filosofoak egin beharko luke. Eta betebeharrorretan Borgmannen luma oso preziatua da, euskal-hispano analisten parrokianismoak amerikarrarena ia izen tabu legez ikusi arren.
6. *Philosophy and Social Hope* liburuan modu *pragmatistan* Rortyk esan bezala, berak ez du «uste gauzak berez diren bezalako modu bat dagoenik», eta nahiago du «*itxurazkoa-errealitatea* desberdintasuna mundua eta gu modu erabilgarrietan eta ez hain erabilgarrietan deskribatzen dituzten irudien arteko desberdintasunaz ordezkatu» (27. or.). «Ez dago egirik», berresaten du *Truth and Progress* idazkian (1. or.), zeren berak «Nietzsche eta Jamesengandik, beste askoren artean, *itxurazkoa-errealitatea* desberdintasunaz susmoak izaten» ikasi du. «Guk (pragmatistok) gertatzen ari denari buruz mintzatzeko modu ugari dagoela uste dugu, eta horietatik bat ez dago gauzak berez diren bezalako modutik gertuago beste bat baino. Ez dakigu 'berbaitan'ek zer esan nahi duen 'errealitatea bera berbaitan den bezalako' adierazpenean». «Ez dugu inolako zorrik gizatiarra ez den ezerrekin» (127. or.). Joera horren eta Rortyren pentsamenduaren aurkezpen labur eta oso on baterako, ikusi Robert B. Brandom-en «Vocabularies of Pragmatism: Synthesizing Naturalism and Historicism» (2000).
7. Descartesen *Meditazio Metafisikoak* (1641) testua da joera filosofiko horren burua, nahiz eta alde aurretiko antzeko hausnarketa-erak Platonen *Teetetoneta* Agustinen *Aitorkizunetan* aurkitu (ikus Bengoetxea 2004, 103h or.).
8. Ikuspuntu filosofiko-analitiko batetik Nelson Goodman izan da modu tematienean ahalegindu dena edozein esentzialismo eta errealismo metafisiko arbuiatzen, ondoren *mundu anitzen* ikuspegi propioa aurkezteko. Goodmanen ustez, teknozientzian zein artean, eguneroko bizitzan eta, jakina, fikzioan ere bai, era ugari dago munduak eraikitzeo, zeren horiek, munduak, ez datoz

kutxa batean aldez aurretik eginda. Alderantziz, munduak guk egiten ditugu (ikus Goodman 1978, batez ere I. eta VII. kapituluak, eta Goodman 1954ren hitzaurreak).

9. Zientzia-fikzioari buruz dauden milaka giden artean, bat oso erakargarria, atsegina, argia eta ongi dokumentatua, zientzia-fikzio estatubatuarren mitoak ederki uler ditzagun, Clareson-ena (1990) da. Zientzia-fikzio amerikarraren hiru aldi analizatzen ditu: loraldia (1926-1950), trantsizioa (50eko hamarkada) eta errebolta (1960-1980 hamarkadak). Hala eta guztiz ere, azkenengo aldia da —1990etik aurrera— digitalismo gordinenaren sasoa. Azken urte horien irudi bat izan dezazuen, ikus adibidez Nelson-en (2001, 273-290. or.) «The Door in the Sky» atala.
10. Arkitekturak, hiri-planifikazioak eta hiri-diseinuek giza-bizitzan duten eraginaren aurkezpen eder bat Carl Mitchamek aurtengo *Encyclopedia of the 20th Century Technology* liburuan argitaratu duen «Constructed World» itema da (Mitcham 2005, 226hh or.).
11. Knight eta McKnighten testua *The Matrix and Philosophy* liburuan argitaratu zen. Liburu hori izenburu bitxiez jositako bilduma baten barnean agertu zen: adibidez, *The Simpsons and Philosophy* (2001), *Buffy the Vampire Slayer and Philosophy* (2003), *The Lords of the Rings and Philosophy* (2003) eta *Woody Allen and Philosophy* (2004). Ez da harrizkoa izango beraz laster batean saltoki handientzat prestatutako bertsio hispanikoak agertzen badira eta *El existencialismo de Los Serrano* edo *Estudio Estadio y la filosofía* bezalako izenburuak ikusten baditugu hortik. Euskal Herrian, gure gerria ezagututa, baliteke *Goenkale eta filosofia* edo antzeko zer edo zer agertzea. Baina ez dut uste, gure 'saltoki handiek', udan edo abenduan, filosofia ezkabiarekin parekatzen baitute.
12. *Diseinu Adimentsuak* unibertsoaren sorreraren eta biziaren arduradunak kausa adimentsuak direla dio. Tesi horren arabera, teoria hori Jainkoaren eta 'alien' hiperadimentsuen existentzia frogatzen duten froga enpirikoak dituen zientzi teoria bat da. Froga enpiriko horiek *kreazionistek* erabilitako berberak direnez, ez dut uste asti nahikoa dugunik berriro iraganeko eztabaida hermetiko horietan sakontzeko, horiek mozerro berri batekin jantzita etorri arren.
13. *Slow Mugimenduak* —*Slow Food Movement*, izatez— baditu ideia egokiak *fasteretik* ospa egiteko, prezipitaziotik aldentzeko, A-Motako koronario-arriskutik (existitzen al da?) eta igogailuaren historismotik urruntzeko, baina batez ere gu salbatzera ez baldin badator ez dakigun zer-nolako erremedio 'zen-new age-mistikoe-kin' (ikus Gleick 1999, 245h or.).
14. Dawkins, dirudienez, Park-ek *voodoo science* deitutako kategorian tokiren baten bila ari da. Parken ustez, zientzialariek ere nahi dutena ikusten dute batzuetan. Kasu horietan *zientzia pato-logikoa* egiten dute. Bestalde, *zientzia zaborra* teoriak torturatzen

dituena litzateke, hau da, teoriak torturatu zientzialariek nahi dutena izan arte. Hirugarren eta laugarren kategoriak, hurrenez hurren, *sasi-zientzia* eta *iruzurrezko zientzia* dira. Horiek ez dute merezi ezer eranstea. Bada, Parken aburuz (2000, 9h or.), ‘zientzia budu’ adierazpenak kategoria horiek guztiak besarkatzen ditu, eta bere helburuak zera diosku inplizituki: ergelkeria, errore eta iruzurraren arteko muga askotan mehegia dela. Zalantzarik gabe, teknohermetismoaren digitalismoa eta Dawkins erraz egokitzen dira horietako kategoriaren batean.

15. Ardi elektrikoekin edo *blade runnerekin*, Dick (1928-1982), berak esan legez, fikzioa egiten zuen filosofoa zen. Baina filosofo berezia, super-natura, saiakera psikotikoak eta sinismen erlijioso-mistikoak hobekien nahasten zituen. Sekula ez zuen ezkutatu *hara-go* zegoen zer edo zer tekno-erlijiosoan sinesten zuenik, hura aurkitu baitzuen ‘benetan’ 1974. urtean —berak esperientzia horri bere ‘2-3-74’ (data: otsailak 3) denbora-unitatea esaten zion—. Dickek *Programatzaile* deitzen zion entitate batek bera ber-sintetizatu zuela uste zuen eta, ondoren, VALIS («Vast Active Living Intelligence System») izeneko kosmosera eramane zuela. Dualismo mota horrek —ikuskeri mistikoak eta euskarri linguistiko-tekno-zientifikoa— bere fantasiako irudi-multzo folkloriko ezaguna sortzera eramane zuen Dick, non ustezko ezagutza zientifikoaren eta erlijio-gurtzaren arteko muga guztiz lausoa egiten den.
16. Gaur egun nanoteknologia eta zientzia-fikzioa elkartzen dituzten hiru puntu gutxienez identifika daitezke: alde batetik, batzuetan nanoteknologiak gehiegi erabiltzen du irudi-multzo ez-zientifikoa —edo fikziozkoa— bere hipotesiak proposatzerakoan; bestetik, zientzia-fikzioa publikoari nanoteknologia hedatzeko baliabide gisa erabiltzen ari da; azkenik, nanoteknologiak zientzia-fikzioaren osagai narratiboak erabiltzen ditu. Lehendabiziko kasua erabat kritikagarria da; bigarrenak zientzia-fikzioak dibulgaziorako eduki dezakeen gaitasunaren azterketa sakonagoa beharko luke; azken puntuak ez du ezer arrarorik, batez ere egun tropeok eta beste baliabide narratiboek teknozientziaren diskurtsoan duten garrantzia inolako aurreiritzirik gabe onartzen denean (ikus Bengoetxea 2005; Brown 2003, 21. or.; Haraway 1997, 64. or.; López 2004, 2. atala).
17. Gizartean eta instituzioetan *pentsamendu tankeek* duten eraginari buruz, ikus Rich (2004), batik bat lehenbiziko eta seigarren atalak.
18. Francesco Balilla-k 1910ean aurkeztu zuen *Musika futuristaren manifestua*, Futurismo italiarraren idatzi seminalak, non hamabi puntutan zehar mugimendu artistiko horren ezaugarriak zehazten diren. Testu garrantzia eta erasotzailea da. Bere irakurleak: jende gaztea eta iritzi irekikoa, prest leudekeenak ohitura berriak eta, batez ere, musikaren ikuspegi berritzaile bat onartzeko. Baliabide buruan zuena matxinada zen, musika-giroen eta musika-sor-

kuntzaren matxinada, garaiko italiar melodrama baldarraren kas-karkeria intelektual eta artistikotik aldentzeko, melodrama horren ideologia heriotza zen heinean, hilerrien gurtza eta pentsamendu irekiaren zentsura. Futurismoaren irakurketa kritiko baterako, ikus Daniele Lombardiren «Futurism and Musical Notes» artikulua. *Manifestuaren* laburpen bat www.homolaicus.com/artefuturismo/manifestomusica.htm webgunean aurki daiteke.

19. «Erretro-futurismo» hitza Lloyd Duna-k 1983an asmatu zuen olgetan-benetan, karramarroek bezala aurreratzen duten joera artistikoak definitzeko; hau da, aurrera beti, baina atzera begiratzeari uko egin gabe. Hau da, iraganeko berrinterpretazioetan etorkizuneko bertsio berriak aurreikusten dituen artea da hori. Hitzak aldizkari abangoardista bati ere eman zion izena, 1989 eta 1993 urteen bitartean argitaratua, arte-makinari dedikatua eta lan sasi-plagiaturen produkzioa babesten zuena —*sampleen* bitartez sasi-plagiatuak—. Horretarako grafiko eta irudi oso oldarkorrak azaltzen zituen, testu zirikatzaileak eta arte instituzionalizatuaren aurkako kritika erabat garratza.
20. Bigarren Mundu Gerra bukatu eta gero, Alemaniako filosofiak erruduntzat hartu zuen bere burua gerran ingeniariak beteriko rola zela-eta. Teknologiar buruzko hausnarketak egiten zituzten filosofoak —hala joera humanista nola ingeniaritza joerakoak (bi kontzeptu horiek ulertzeko, ikus Mitcham 1994, 65hh or.)— modu serioan hasi ziren pentsatzen beharbada gerra ondoko krisiak irtenbideren bat soilik teknologiaren bitartez aurki zezakeela. 1947an *Ingeniari Alemanen Elkarte*a (VDI) berrantolatu zen aipaturiko ideia horri erantzuna emateko eta, batez ere, teknologiaren betebeharrak etiko eta kulturala hobeto ulertzeko. Lehenbiziko urratsak zuzenak izan ziren eta lau mintegi antolatu zituen elkarteak: «Ingeniarien ardurak» (1950), «Gizakia eta lana garai teknologikoan» (1951), «Gizateriaren aldaketa teknologiaren bitartez» (1953) eta «Gizakia teknologien indar-eremuan» (1955). «Gizateria eta teknologia» izenburupean, hortaz, 1950eko hamarkadako *teknologiaren filosofiak* eman zien hasiera Alemanian gizaki eta makinari buruzko hausnarketa sistematikoei, baina baita 'makina-gizakia'ri buruzkoei ere.
21. Euskal Herriko elektromusikaren egoera hobeto ezagutzeko, 'Mattin', 'Sototik' eta 'Ertz' webguneak bisita daitezke (ikus webgrafia). 'Sototik' orrialdean esaten den moduan, Munlet da synthpop musika egiten duen euskal talde bakarra. Haatik, badago beste proiektu erretro-elektronikoa, *PhD's* izenekoa, 'El Tommy' webgunean aurki daitekeena.

Bibliografia

- Alonso, Andoni, eta Iñaki Arzoz. *La Nueva Ciudad de Dios: Un ensayo cibercultural sobre el tecnohermetismo*. Madril: Siruela, 2002.
- Arzoz, Iñaki. «Tecnociencia y ciencia-ficción. Hacia el paradigma tecno-hermético». In *La tecnociencia y su divulgación: un enfoque transdisciplinar*, Andoni Alonsok eta Carmen Galanek argitaratua, 97-128. Bartzelona: Anthropos - Junta de Extremadura, 2004.
- Bengoetxea, Juan Bautista. «Epistemología». In *Filosofiako Gida. Filosofian aritzeko oinarriak: Gida bibliografiko eta metodologikoa*, J. Azurmendik, J. B. Bengoetxeak, J. Garmendiak eta I. Sotok argitaratua, 103-124. Bilbo: UEU, 2004.
- . «Between Models and Metaphors: On the Popularization of Techno-Science in Contemporary Spain». In *Science and Literature*, J. Hoeg-ek argitaratua. New York: Palgrave-Macmillan (prentsan), 2005.
- Borgmann, Albert. *Technology and the Character of Contemporary Life: A Philosophical Inquiry*. Chicago, IL: University of Chicago Press, 1984.
- Brandom, Robert B. «Vocabularies of Pragmatism: Synthesizing Naturalism and Historicism». In *Rorty and His Critics*. Robert B. Brandom-ek argitaratua, 156-183. Malden, MA: Blackwell, 2000.
- Clareson, Thomas D. *Understanding Contemporary American Science Fiction: The Formative Period, 1926-1970*. Columbia, SC: University of South Carolina Press, 1990.
- Gleick, James. *Faster: The Acceleration of Just About Everything*. New York: Pantheon Books, 1999.
- Goodman, Nelson. *Hecho, ficción y pronóstico*. Laugarren argitalpena ingelesez, lehenengoa espainolez. Madril: Síntesis, 2004. Jatorrizko bertsoia 1954an argitaratu zen.
- Goodman, Nelson. *Ways of Worldmaking*. Bloomington and Indianapolis: Indiana University Press, 1978.
- Haraway, Donna. *Modest Witness@ Second Millennium: Female Man@ Meets Oncomouse™: Feminism and Tecnoscience*. New York: Routledge, 1997.
- Heidegger, Martin. «Science and Reflection». In *The Question Concerning Technology and Other Essays*, J. Glenn eta J. Stambaugh-ek argitaratua, 155-182. New York: Harper Torchbooks, 1977.
- López, José. «Bridging the Gaps: Science Fiction in Nanotechnology». *HYLE — International Journal for Philosophy of Chemistry* 10/2 (2004): 129-52.
- Mitcham, Carl. *Thinking through Technology: The Path between Engineering and Philosophy*. Chicago: The University of Chicago Press, 1994.
- Mitcham, Carl. «Constructed World». In *Encyclopedia of 20th Century Technology*, C.A. Heampstead-ek eta W.E. Worthington, Jr.-ek argitaratua, 226-231. New York: Routledge, 2005.


- Nelson, Victoria. *The Secret Life of Puppets*. Cambridge, MA: Harvard University Press, 2001.
- Rich, Andrew. *Think Tanks, Public Policy, and the Politics of Expertise*. Cambridge: Cambridge University Press, 2004.
- Rorty, Richard. *Philosophy and the Mirror of Nature*. Princeton: University of Princeton Press, 1979.
- . *Truth and Progress: Philosophical Papers, Vol. 3*. Cambridge: Cambridge University Press, 1999. Jatorrizko bertsioa 1998koa da.
- . *Philosophy and Social Hope*. Londres: Penguin Books, 1999.
- Shapiro, Peter, arg. *Modulations: A History of Electronic Music: Throbbing Words on Sounds*. New York: Caipirinha, 2000.
- Taylor, Charles. *The Ethics of Authenticity*. Cambridge, MA: Harvard University Press, 1991.

Webgrafia

- Balilla Pratella, Francesco (1910) *Manifesto dei Musicisti Futuristi*.
Honako webgune honetan laburtua:
www.homolaicus.com/arte/futurismo/manifestomusica.htm
- El Aviador Dro y sus Obreros Especializados:
www.aviador-dro.com
www.NuclearSi.com
www.mecanisburgo.com
- El Tommy: www.eltommy.com
- Ertz: www.ertza.net
- Kraftwerk:
www.kraftwerk.com
kraftwerk.technopop.com.br/
- Lombardi, Daniele. «Futurism and Musical Notes»:
www.ubu.com/papers/Lombardi.html
- PhD's erretro-tekno proiektua: www.eltommy.com
- Mattin: www.mattin.org
- Sototik: www.sototik.com
- Ubu Web Papers: www.ubu.com/papers/

Egunen

gurpilean



literatura • 91

Fenomenoak

- Fenomenoa fenomeno
- Saritu eta zauritu
 - Idazteaz...

JON BENITO



soziolinguistika • 95

Pasaiako plazatik, dator...

- Plaza txiki batetik, plaza handiagara
- Ohitura aldaketari begira

PABLO SUBERBIOLA



telepolis • 100

Banaketak batzen gaitu

- Nortasuna Informazioaren Gizartean

PATXI GAZTELUMENDI

Fenomenoak

Literatura hitzen errepublika dela esan ohi du Hasier Etxeberriak telebistan *Sautrela* literatur saioari hasiera emateko. Hitzak ez ditugu sufragio bidez hautatzen eta batzuek besteek baino dirdira gehiago egiten dute, baina eman dezadan ontzat Hasier Etxeberriaren literaturaren definizioa.

Literaturan hitzek handik hona eramaten gaituzte. Hitzak sorpresa kutzak izaten dira errepublikan. Aske daude, ez dakizu zein norabidetan joango diren eta esanahia dute —bozkek duen zentzu bera?—. Baina hitzek eta horien esanahiak ze balio duten ikusi beharko litzateke.

Hitz batzuek besteek baino dirdira gehiago egiten dutela esan dut lehen. Hitz dirdiratsu horietakoa da *fenomeno* hitza. Harluxet Entziklopedian begiratuta, fenomeno hitzaren lehen adiera honakoa da: «Naturan edo gizartean gertatzen den eta behatua izan daitekeen edozein gertaera, jarduera edo ekintza». Eta bigarren adiera bat horri loturik: «kontzientziaren aurrean agertzen den edo zentzuen bidez hautematen den edozer». Fenomeno horiez —fenomeno literario, soziologiko eta mediatikoez— hitz egin nahi nuke *Egunen gurpilean* honetan.

Fenomeno hitzaren hirugarren definizio batez ere aritu nahiko nuke: harrigami, aparteko, izugarri on den zer-bait edo norbaitez esaten denaz. Harkaitz Canoz, alegia.

Fenomenoa fenomeno

Fenomenoak eta fenomenoak daude eta fenomenoa fenomeno da. Irakurri gabeko liburu batek —Harkaitz Canoren *Neguko zirkuak* (Susa, 2005)—, aurkezpenean esandakoarengatik bakarrik, gutxitan bezalako zalaparta piztu zuen prentsa idatzian. Hemerotekan lardaskan ibilita bi adibide:

Joxean Agirrek *Garan* (2005-09-29) titularrera: «Urteko liburuetakoa bat». Eta gero:

Gutxitan, gutxiegitan gertatzen zaio prentsaurreko prentsaurreko dabilen kazetariari gertakari garrantzitsu baten lekuko den sentipena izatea. Eta atzo, Harkaitz Canoren *Neguko zirkuaren* aurkezpenean horrelako zerbait sentitu genuen.

Notiziak nola jarraitzen duen irudika dezakezue.

Harkaitz Canok Jon Alonso izan zuen lagun aurkezpenean. Alonsoren hitzek ere balio izan zuten liburuaren ingurukoak girotzeko. Alonsoren hitzetan, Harkaitz Cano «dagoeneko euskal literaturak duen erreferenterik handienetako bat» da.

Orain hogeit hamar edo hogeita bi urte Sarrionandiak *Narrazioak* argitaratu zuenean gu bezalako idazlegaientzat flash bat izan zen, lurrikara bat. Hunkipen estetiko handia sortu zigun eta liburu hark esan zigun guri nondik joan behar genuen euskaraz literatura egiteko. *Neguko zirkua* irakurri ahala, behin eta berriz etorri zait burura garai hura, pentsatzen dudalako liburu honek markatzen duela erreferentzia garbi bat; alegia, euskal prosa literarioa nora doan markatzen duen liburua da.

Sarrionandiarekin parekatu du Alonsok Cano. Handia da hori. Mugarri berri gisa jarri zuen *Neguko zirkua*.

Alonsok gehiagorako ere eman zuen baina:

Aldi berean ikusi dut euskal prosak zenbateraino egin duen aurrera. Liburu honek hogeit hamar urteotan egin den ahalegina biltzen duela iruditu zait. Idazten ari ginela izan ditugun zailtasun asko orrialdeotan gaindituta ikusi ditut.

Detalle bat: begira zergatik den erreferentzia bat liburu berri hori.

Honaino liburuari dagozkionak. Idazlearentzat ere loreak izan zituen: «Beharbada badira beste dozena erdi bat autore bere mailan idazten dutenak, baina ez dago gehiago denik».

Felix Ibagutxi *El Diario Vascon* (2005-09-29) Joxean Agirreraren antzera aritu zen. Aurkezpenaren kronikarekin

batera, Harkaitz Canori despieze bat eskaini zion. Alonsoren aitortpenaz ari dela: «Aitortpen hau handia da, potoloa, baina sinesgarria. Eta sinetsi genion Alonsori. Bai baitakigu Alonso ez dela aktore izateko jai». Eta bukatzeko Felixen despiezean:

Bere gaztean ibilbide luzeko autorea dugu Harkaitz. Ni ez naiz literaturan aditua, kazetari lana juzkatzeko gauzago sentitzen naiz, eta ausartuko naiz idazle honek egunkari honetarako egin dituen iritzi-artikuluak epaitzera: erreferente izan da.

Felix Ibagutxik ere Alonsoren bidetik egin zuen aitortpena. Erreferentzia bat da Harkaitz Cano. Egile garrantzitsua da. Eta datozen urteotan literaturan jarraituko den ildoak markatzen du eta markatu du liburu honekin. Orain artekoa ikusi besterik ez dago: gutxik mantendu dute bere maila zutabegintzan, bide berriak eta estilo propio bat lortzeko gogor egin du lan hain gaizki ordaindutako ofizio makur horretan. Kaleratu dituen hamabi liburuak dira horren froga.

Baina beti ez da horrela izan.

Saritu eta zauritu

EZ da liburu berriarengatik bakarrik notizia Harkaitz Cano. Euskadi Saria eskuratu berri du *Belarraren ahoa* (Alberdania, 2004) liburuarekin. Felix Ibagutxi eta Joxean Agireren bedekazioaren aurrean, bestelako sentipen bat ere agertu zuen Harkaitz Canok prentsari eskainitako elkarrizketetan. Saria eskuratu ondoren, *Berria* egunkariari emandako elkarrizketan atzeman daiteke. Juan Luis Zaballak liburuak harrera ona izan duenentz galdetuta, honakoa Harkaitz Canoren erantzuna:

Bai, baina lerro artean halako aurrejuzku epel bat sumatu dut, esanez ez dela nire libururik onena eta horrelakoak. Baina ezin da konparatu. Ez dira gauza bera kuarteto bat eta opera bat, eta ezin dira konparatu. Eta niri kuartetoak opera baino gehiago gustatzen zaizkit.

Harkaitzek kuartetoak nahiago operak baino, baina epaimahaiak bere lana aukeratu zuen arrazoi ezberdinak zirela medio. Saria jakinarazi zuten egunean esan zuenarekin gelditzen naiz halere. Orduan Euskadi Saria baino, nahiago zuela Euskarri Saria esan zuen, «irakurleek eskue-tan liburua dutenean ematen dutena».

Idazteaz...

Harkaitz Canok idazteaz:

Idaztea askotan narzisisimo ariketa bat dela uste da. Kontrakoa da. Besteei hitza emateko era bat da, beste horiek gugan dauden besteak badira ere. Gugan dauden nortasun gaixotuei ematen diegu hitza. Idaztea komunikazioa eta jolasa dela esaten da era berean, eta horrek ere ez du bere horretan balio, norbere mania, gorroto eta frustrazioak irakurleek konpartituko dituzten itxaropena ere badu idazten duenak.

Fenomenoaren mania, gorroto eta frustrazioak konpartitzea: horixe literatura.

Baina eta prentsak zabaldutako laudorioak, espektatibak, ilusioak, desilusioak eta kritikak literaturaren parte dira ala ez?

Bai joko inozoa literaturaren hau.¶

Pasaiako plazatik, dator...

Ikerketa Psikosoziolinguistiko bat. Udalaren eskariz egin zen 2004. urtean, Maite Otegi izan zen ikerlaria, eta oraingoz argitaratu gabeko txostena den arren, bertako «plaza»tik datu batzuk aterata hasiko dugu honako *egunen gurpil* hau.

Soziolinguistika Klusterra, klusterreko bazkide den Urtxintxa Eskolarekin batera aritu da datu hauetan oinarrituta proiektutxo bat egiten Pasaiako Udalarentzat. Aipatu ikerketak «Gazteen hizkuntza jokaerak» aztertu zituen, eta informazio bilketa kuantitatiboa zein kualitatiboa egin zen herriko 15-29 urteko gazteen artean. Ikerketak eskaintzen dituen datu guztietatik gutxi batzuk hautatu ditugu garatu dugun proiekturako. Horietako bat, honako taula hau:

Euskararen erabilera kalean, adinaren arabera (%)

	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Beti euskaraz	1	-	1
Gehienetan euskaraz	19,8	25	15,6
Bietara berdin	35,4	15,6	16,7
Gehienetan erdaraz	25	30,2	11,5
Beti erdaraz	18,8	29,2	55,2

Galdetegi bidez jasotako erabilera datuak dira (aitortuak), ezagutza/erabilera mailan ematen ari den bilakaeraren adierazgarri, gure ustez. Goiko taula irakurri ahal izateko, hurrengo hau lagungarri zaigu, gazte berdinaren gaitasuna deskribatzen baitu (hau ere galdetegi bidez modu aitortuan jaso).

▀ **Pablo Suberbiola** Soziolinguistika Klusterreko teknikaria da.

Adin multzo bakoitzeko gazteen hizkuntz gaitasuna (%)

	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Jatorrizko hizkuntza euskara dute, eta alfabetatuta daude	49	41,7	26
Jatorrizko hizkuntza euskara dute, eta erdi-alfabetatuta edo alfabetatu gabe daude	2,1	-	2,1
Jatorrizko hizkuntza erdara dute, eta euskaraz alfabetatuta daude	35,4	30,2	11,5
Jatorrizko hizkuntza erdara dute, euskaraz zerbait dakite edo ikasten ari dira	9,4	22,9	51
Jatorrizko hizkuntza erdara dute, euskaraz ez dakite	4,2	5,2	9,4

Gaitasuna abiapuntu hartzen badugu, 15-19 eta 25-29 adin-taldeetako gazteak alderatuz gero (10 urtetan emandako aldaketa, nolabait), aldaketa oso nabarmena da, euskararen mesederako. Jatorrizko hizkuntza euskara edo erdara izan, euskarazko oinarritzko ezagutza bat duten gazteen kopurua nabarmen altuagoa da gazteenen artean (15-19): 25-29 urte dituztenen artean euskaraz «ez dakite» edo «zerbait dakite» gazteen % 60,4k. 10 urte gazteago direnen artean (15-19), aldiz, % 13,6k.

Hau da, herriko kirol elkarte batek, adibidez, bere ikastaroei buruzko informazioa herrian euskara hutsez banatuko balu, 15-19 urtekoen artean 10etik 8k edo 9k ulertuko lukete. Bilakaera oso positiboa da, ez kuantitatiboki bakarrik. Ezagutza portzentaje hauetara hurbilduz goazen heinean, aldaketa kualitatibo bat ere badakar igoe-ra honek: jasotzaile mailan bada ere (maila pasiboan), gero eta aukera gehiago daude herritarrei mezuak eta informazioa euskaraz bakarrik edo nagusiki euskaraz emateko (nahi izanez gero, noski).

Bistakoa da, beraz, bilakaera honen garrantzia, Pasaian bezala beste hainbat herritan eman dena, eta —as-

kotan kezka eta erronka berriek estalita— behar baino gutxiago baloratzen dena.

Gatozen orain *gaitasunaren* taulatik *erabilera*ænera. Zer ekarri du erabilera mailan gaitasuna modu hain nabarmenean igotzeak? Lehenik eta behin, «beti erdaraz» egiten dutenen proportzioa % 55etik % 20ra jaitea. Aldaketa nabarmena hau ere. Eta horrez gain? Ba, euskaraz «zerbait» (gehienetan erdaraz) egiten dutenen eta «bietan berdin» egiten dutenen igoera nabarmen xamarra, eta «gehienetan euskaraz» egiten dutenen igoera apal bat. «Beti euskaraz» egiten dutenetan, aldaketarik ez.

Plaza txiki batetik, plaza handiagora

Erabilera mailan ere, hortaz, bilakaera positiboa da, nahiz eta, gaitasunaren neurriko «iraultza» ez izan. Esan genezake Pasaiaiko datu konkretuekin deskribatutako bilakaera hau EAEko beste hainbat lekutan ere ematen ari dela. Bilakaera hau ulergarria da kontuan hartzen badugu, III. Mapa Soziolinguistikoaren datuek erakutsi bezala, euskara etxean jaso ez duten euskaldun gehien-gehienak euskaraz «pasiboak» direla erabilerari dagokionean (hemen eskura daiteke orain, PDF formatuan (7,27 Mb): www.euskara.euskadi.net/r59738/eu/contenidos/informacion/mapa_sociolinguistiko_2001/eu_10261/mapa_sociolinguistico_2001.html).

Eta euskaldun «pasibo» dira, aurreko belaunaldieta-koek ez zuten euskarazko oinarrizko ezagutza on bat eduki arren, ez dutelako «eskolaz gain, euskarazko esperientzia luze eta sakonik talde informalen batean». Eta, joera orokor bezala, ohitura edo jokaera aldaketaren bat behar-ko da tartean, borondatezkoa edo behartua, mota honetako hiztun euskaldunek era horretako «esperientzia luze» bat izan dezaten, beren ingurune natural hurbilekoan ez baitute izaten horrelako «talde»rik (hain zuzen, inguruan txikitatik horrelako talderik izan ez dutelako dira, nolabait, «euskaldun berri»).

Orain gutxi, *Hizkunea* agerkarian Jon Aizpurua HPSko Plangintza eta Azterlanetako arduradunak «Euskararen

transmisioa eta erabilera: bi kasuren azterketa konparati-boa» artikulua argitaratu zuen. Erabilera gehitzeko bilatu beharreko ohitura edo jokaera aldaketa behar hori honela aipatzen zuen artikuluaeren amaiera aldera:

Bi kolektiboetan gehiago erabiltzen da euskara hurrengo belaunaldikoekin [...] belaunaldi berekoekin baino [...]. Azken hauekin argi dago askoz gehiago hitz egin dezake-tela euskaraz, beraz aurkitu beharko da modua ohitura hori aldatzeko eta bitartean euskararen erabilera-maila mantentzeko.

Ohitura aldaketari begira...

Jakin-en aurreko zenbakiko artikuluan Valentzia al-detik zetorren planteamendu eta esperientzia baten berri ematen genuen, TELP izenekoa (Taller del Espai Linguistic Personal). Bertan erabiltzen diren planteamendu eta estrategiek balio dezakete gure egunerokoan euskara gehiago erabiltzeko; eta, kasu horretan, (beste esparrutan) erabilera ohitura bat, gaitasun on bat eta euskararen aldeko kontzientzia bat duten hiztunei daude zuzenduta gehien-bat. Euskal hiztun bat egunerokoan erdara erabiltzera eramaten duten egoeren aurrean tresna gehiago eta beste ikuspegi bat izateko da gehienbat baliagarri.

Artikulu honetan aipaturikoen kasuan, berriz, beste abiapuntu batzuk egokiagoak izan daitezke. Zentzu hone-tan erreferentzia baliagarria iruditzen zaigu, esate batera-ko, Kuadrillategi egitasmoko arduradunek azaldu izan di-tuztenak. Diego Egizabalek, SEI Elkarteak 2002an Eiba-rran antolaturiko ikastaroetan, jokaera berri bat finkatzeak eskatzen dituen baldintzak azaldu zituen, Kuadrillategi-ren urtetako esperientziaren oinarritik. Honako hauek li-rateke ideia nagusiak:

Jokaera berriari (euskarari) eusteko hainbat baldintza bete behar dira:

Hautemate subjektiboak:

- Jokaera burutzeko gogoia («nahiko nuke euskaraz mintzatu...»).

- Erabilgarritzat jo behar da. Jokaera berriak erabilgarria behar du izan. Ondo pasatzeko, zirrarak agertzeko...
- Neurriko ahalegina eskatu behar du.

Baldintza objektiboak: soziolinguistikoak

- Hizkuntz gaitasuna. Euskaraz jakin behar du gazteak.
- Euskaldun kopurua harreman sarean (lagunartean).
- Euskaldun kopurua guneko soziolinguistikoan.

Hautemate subjektibo mailan, beraz, baldintza batzuk, eta beste batzuk gutxieneko soziolinguistikoen mailan. Horrela, bada, gaitasun mailan nabarmen hazten ari diren belaunaldi berriak erabilera ere haziz joan daitezen egitasmo berriak behar ditugu, ezaugarri hauek beteko dituztenak, edota aldaketak egin lehendik indarrean dauden jarduera eta eskaintzatan. Hori guztia zertarako? Euskarak «plaza» eta «guneko» berriak izan ditzan..., edota «ezagutu berri» dituen plazetan jolaserako baldintza ego-kiak topatu ditzan. ¶

Banaketak batzen gaitu

Egunkariaren bila kioskora abiatu, eta goiza argazki batek ilustratzen du. Euskal prentsan paper garrantzitsua jokatzen dutenak, eskaileretan erretratatuta. Eskuetan nork bere agerkaria dauka —aldizkariak, egunkariak...— eta eskaera batek batzen ditu, eskaerak. Alegia, gehiago eskatzeko batu direla. Gasteizko gobernuari banaketaren inguruko eskariak egin zizkieten duela gutxi euskal prentsako agenteeak. Nazio mailako egunkariak, aldizkariak, herri mailako prentsa proiektuak, gazteentzako agerkariak, kultur aldizkariak, zientziari buruzkoak, dibulgazioa... paperaren euskal sektorea batu zen eskailera horretan. Gorago edo behe-rago nor koka ez zen garrantzitsuena. Argazkian denak batera agertu ziren. Eta eskaera, bat eta bakarra: aurrekontu gehiago. Eta agerraldia ~~ren~~ funtsa berez beharrezkoa bada ere, profitatu zitekeen agian, zerbait gehiagorako. Sektoreak eskatuko du, beharbada, bestelako azterketarik ere, bestelako gogoetarik, bestelako eskaera estrategikorik ere.

Euskal prentsa gero eta ugariago horrek izan beharko luke batzeko eta planteatzeko gairik, kezkarik. Irakurleen profila, merkatuaren lege zorrotzak, hizkuntza bera, tresna berriak, eginkizun soziolinguistikoak, kriterio ekonomikoak, digitalizazio garaiaren afera, edukien sektorearen gainontzeko krisiak... berba egiteko asko egon daiteke. Baina, eskaera egitea baino ez zaigu otu. Beharrezkoa izan daiteke, baina ez bakarra. Euskara eta subentzioak eskutik doazen honetan, bestelako gogoetak egiteko abaguneak ere profitatu beharko liriateke. Dirua ezin daiteke izan euskal prentsaren paper bakarra.

Paperaren ingurukoa batuta badago, beste sektore batzuk, ordea, erabat desintegraturik eta batasunik gabe ageri dira komunikazioaren panoraman. EITB talde mediatiko handi eta publikoaren gerizpetik at, ez dirudi beste sektore oso batuta dagoenik. Ikus-entzunezko kluster bat

sortu dute ekoizleek, baina ikus-entzunezko komunikabi-deek orain arte Tokiko —herri telebisten elkarte— baino ez dute sortu. Telebista lokalak eta hizkuntzaren aferaren inguruan, proposamen bat eta bakarra entzun dugu, eztabaidarik ez du sortu baina. Telebistan, ez dute txintik aipatu. Eta eztabaidatzeko unea izan daiteke, agian. Telebistei ere sukalde lana falta zaie, antza. Irratigintzaren inguruan gogotsu abiatutako Arrosa ekoizpen zentrua, adibidez, aurrekontu eta ideiarik gabe gelditu zela esan daiteke; nahiz eta koordinatzen jarraitzen duten, eragina murriztu eta arreta informatibo oro galdu duela dirudi. Asmo ona bai, baina gauzaren praktikorik ez zaio ikusi ia. Denborak erakutsiko du. Bitartean, radiokultura.com eta basqueradio azkenik gauzatu dira, Gure Irratiak lokala eskuratzeko zailtasun ekonomikoak bizi ditu, eta Urruñatik, irratigintzan arituko den ekimen berriaren albisteen zain gaude, uhinak eta sateliteak sintonizatzeke gogoz.

Eta Interneteko sektoreaz —Hiru gauren Espazioa deienezakeena—, zer esan. Batzen diren bakarrak blogariak dira, lantzean behin. Ostantzean ez dago ez eztabaidarik, ez bilkurarik, ez estrategia komunik ez deus. Nor bere kasara ari da, nor bere kabuz, lotura asko barik, link gabe alegia. Interaktibitateaz hau eta beste esaten dugun arren, euskarazko Internetgintza subentzio politikaren mende dagoen sektorea da, eta ez estrategikoa. Gutxi sortzen duen eta ipar argirik ez daukan sektore bezala defini dezakegu. Teknologia berrien inguruko proiektuak, oro har, oraindik oharkabean ari dira gauzatzen gure Euskal Herri honetan. Erakuslehio dira oraindik gehiago, tresna baino. Tailer baino, eskaparate. Sortzaile baino, erakusle. Eta komunean jartzeko ideia eta jario gutxi, salbuespenak salbuespen.

Nortasuna Informazioaren Gizartean

Informazioaren Gizartearen gailurra burutu da Tunisian. Handienek, boteretsuek, mundu hobego bat esan arren, mundu txikiagoa baizik ez dute gura. Eta horretarako tresna ezin hobea daukate eskura: Informazio eta Komu-

nikazioaren Teknologia Berriak. Globalizazioak sarea dabil, globalizazioaren kontrakoek sarean dabilen antzera. Elkartasun numerikoa aipatzen da, baina negozio digitalaz baino ez dihardute. Zelan irabazi gehiago, mundu osoan. Eta guri, herri txikietako hizkuntza txikiagodun txikioi, dagokigu nortasunaren aldarria hedatzea, lau haizetara. Hemen eta han. Non, on. Klik egitea kili-kili egitea baino gehiago da; zurruputzen gaituzten honetan, txikioi dagokigu saguari eragin eta digitalizazioaren garaian bizkor aritzea. Eta kezkatzeko moduko afera da Informazioaren Gizartearena, guretzat ere. Munduaren hego aldekoak ez garen arren, munduaren aldea txikikoak bagara, oraindik. Globala eta lokala borrokan ari diren honetan, nortasunak bermatzea, aniztasun kulturalak kontuan hartzea, eronka da oraindik. Erronka utopikoa, erronka birtuala eta erronka erreala. Gure nortasuna, euskalduna, jagon behar dugu sarean, saretik eta sarea bera erabiliz. Izango bagara, hor behar dugu jardun. Eta sarritan, kopeta ilun agertzeko zantzuak ikusi ohi dira gure bazterrean. Eman ditzadan adibide zenbait.

Interneten, negozio aukera sumatzen dute batzuek. Adituek, jakintsuek. Web 2.0 garaia biziko dugula arrastu egiten dute Informazioaren aroko esatariek. Tertuliano digitaletik. Blogetan prospekzioa eta kuntzultoria mediatikoak antolatuta ditugun honetan, Interneten garai berriak aurreikusten eta aztertzen ari da bat baino gehiago. Lau haizetara. Eta garai berriei, negozio aukera berriak. Ilusioa eta irudimena, ametsa eta gogoia uztartzeko plataforma proposa da Internet. Baina sarritan, ilusioa eta gogoia irabazteko lehia bezala baizik ez dira planteatzen. Kapitalismo neoliberalaren garaiotan, asko eta asko bere negozioa zelan egin ari da pentsatzen, eta garai bateko burbuilak, puntu.com pelotazoak eta beste amesten ditu, beste behin. Eta nortasuna galdu eta abiatzen gara munduaren konkistan, Elkano baikinan.

Eta nortasuna zertan bilakatzen dugu. Zer? Dirua, negozioa. Besterik ez. Ahantzi egiten dugu zer garen, nondik ari garen, zertarako eta zergatik gauden, iraungo dugun eta zertan dihardugun. Negozioak eklipsatu egiten du

ja rduna. Urte amaierako balantzeek itsutu egiten dute gure zeregina. Eta merkatal legeak axola zaizkigu soilik, zoritxarrez. Eredugari izan gura dugu, ikuspegi komertzialetik soilik. Eta horrela egiten dugu aurrera, kosta ahala kosta.

Azken aldi honetan, bi proiektu interesgarriren berri izan dut, biak zaizkit beharrezko, biak dira Interneten Interneterako sortuak. Euskaldun batzuek sortu dute bata, hemen (Eibarren) mundurako: Tagzania. Argentinaren batek sortu du bestea Madrilen (han) mundurako: fon. Mundua, herriak, tokiak eta guneak etiketatzeko baliabide proposa da Tagzania. Interesgarria, eta mundu osoan —bai, mundu osoan— arreta pizten ari dena. Nazioarteko haririk gabeko sare bat egiteko ekimena da bigarrena, aurretik enpresa handiak sortu dituen tipoa batek asmatua —Ya.com, Jazztel...—. Eta bi adibideekin gertatutakoa bitxi egin zait.

Euskaraz funtzionatzen duen enpresa batek egindako lana da Tagzania. Euskarazko webgune asko egiten dituen ekimena da, euskarara software ugari lokalizatu duen enpresa ekintzailea, enpreddoreak euskaraz. Eta ingelesez soilik sortu dute etiketatzeko gune mundial hori. Merkatu arrazoiak izan daitezke, munduan ibiltzeko hizkuntza hautatu dute. Ulertzekoa da.

FONeko Martin Varsavskik, ordea, Madrilen sortu duen arren, hizkuntza ezberdinetan, ugaritan ematen du bere informazioa. Euskaraz ere ageri da, eta euskaldunak ere bere bezero eta hornitzaile izan gaitezkeela uste du berak. Eta komunitate birtual handia sortzen eta hedatzen ari da, European lehenbizi, eta mundu osoan gero. Eta berak, merkatu legeei erreparatu, euskaraz egitea ere pentsatu du. Boluntario anitz ari da berarentzat lanean, eta uztartu gura ditu eredu enpresariala, gobernuz kanpoko ekimenetako boluntarioen borondatea eta gobernu eta instituzioen antolaketa ereduak. Uztartu gura ditu negozioaren ilusioa, borondatezko gogoia eta arauaren antolaketa. Fon. Haririk gabeko sare erraldoia antolatzen.

Eta niri kontraesana sortzen zait. Euskaldunak munduratzeko hizkuntza arrotza hautatu behar, eta mundutarrak gurea hartzen dute, gure etxeraino sartzeko. Zein da bidea? Ze bide? Identitatearena borroka gogorra izango

da mundu global honetan, nortasun politikoa, kulturala, linguistikoa arautu beharko dugu gurean, lege egin agian; baina irauteko, sortzen jarraitu beharko dugu. Egiten, zirikatzeko, hedatzeko, bultzatzeko. Iruditzen baitzait, Informazioaren Gizartean, bretxa digitalaz gain, identitatearen lubakia ere sor daitekeela, etena. Frantziako gazteei —bai, hirugarren belaunaldiko etorkin deitzen dieten horiei— begiratu diet une batez, begietara, beraien larru beltzera, eta konturatu naiz beraien identitatea ez dela onartua, kulturalki, sozialki, ekonomikoki. Eta gatazka sortu da. Gatazka hedatu da. Telebistan, irradian, prentsan, kalean baztertuak sentitzen dira; eta beraiek sortu eta garatu dute kultura propio bat, baztertuarena, mendengea, margebtarra eta frantsesa elkarrekin lotutako hizkuntza sortuz. Prekarietatea eta kultura uztartuz. Su eman diote sistemari, eta sistemak arau berriak ezarri gura ditu. Modu elektronikoz ari dira su hori pizten, eta agintariei bururatu zaien gauza bakarra Zero tolerantzia aplikatzea izan da, atxiloketak eta errepresioa —tartean, blogariak atxilotu eta webguneak isilaraziz—. Zero tolerantziari, bat asko gehitu behar zaizkio. Eta ez Frantzian bakarrik. ¶



JAKiN

Tolosa hiribidea, 103-1.C
20018 DONOSTIA
Tel. 943.21.80.92
Fax. 943.21.82.07
jakin@jakingunea.com